# Unibertsitate Sistemak euskal gizartearen eraldaketari egindako ekarpena

Alba Madinabeitia Ezkurra
Ane Larrinaga Renteria
Jone Martinez-Palacios
Josu Amezaga Albizu
Mikel Saratxo Moro
Onintza Odriozola Irizar

AGIRRE LEHENDAKARIA CENTER
for Social and Political Studies

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

euskampus
FUNDAZIOA

# Unibertsitate Sistemak euskal gizartearen eraldaketari egindako ekarpena

Alba Madinabeitia Ezkurra

Ane Larrinaga Renteria

Jone Martinez-Palacios

Josu Amezaga Albizu

Mikel Saratxo Moro

Onintza Odriozola Irizar

Leioa, 2018ko uztaila

AGIRRE LEHENDAKARIA CENTER for Social and Political Studies

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

euskampus FUNDAZIOA

CIP. Unibertsitateko Biblioteka

**Unibertsitate** sistemak euskal gizartearen eraldaketari egindako ekarpena [Recurso electrónico] / Alba Madinabeitia Ezkurra ... [et al.]. – Datos. – Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, 2018. – 1 recurso en línea : PDF (128 p.)

En port.: Agirre Lehendakaria Center, Euskampus Fundazioa.

Modo de acceso: World Wide Web.

ISBN: 978-84-9082-958-5

1. Universidades – País Vasco. 2. Relaciones universidad-colectividad. 3.Cambio (Sociología). I. Madinabeitia Ezkurra, Alba, coaut.

(0.034)378(460.15)

© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-9082-958-5

# Aurkibidea

**Aurkezpena** ... 8

**0. Diskurtsoen analisirako abiapuntu metodologikoa** ... 11

**1. Diskurtso akademiko-instituzionala** ... 15

**1.1. Elkarrizketatuen kokapena euskal unibertsitate esparruan** ... 15

**1.2. Eraldaketa ulertzeko modua** ... 16

1.2.1. Unibertsitate publikoaren sorrera, aldaketa garrantzitsua euskal gizartearentzat ... 16

1.2.2. Unibertsitate publikoaren ikuskera eta haren eragin-ahalmena euskal gizartean ... 17

**1.3. Unibertsitate publikoaren bilakaeraren diagnostikoa: lorpenak eta gabeziak** ... 21

1.3.1. Lorpenak eta inpaktuak ... 21

1.3.2. Gabeziak ... 24

**1.4. Euskal unibertsitate sistema (EUS)** ... 26

**1.5. Etorkizuneko desafioak eta proposamenak** ... 28

**1.6. Nabarmendutako balioak** ... 31

**2. Diskurtso tekniko-ekonomikoa** ... 33

**2.1. Elkarrizketatuen kokapena euskal unibertsitate esparruan** ... 33

**2.2. Eraldaketa ulertzeko modua** ... 33

**2.3. Unibertsitatearen diagnostikoa** ... 35

**2.4. Euskal unibertsitate sistema (EUS)** ... 37

**2.5. Etorkizunerako desafioak eta proposamenak** ... 38

2.5.1. Prestakuntzaren arloan ... 39

2.5.2. Ikerkuntzaren arloan ... 41

2.5.3. Gobernantzaren arloan ... 44

**2.6. Nabarmendutako balioak** ... 45

**3. Diskurtso kritikoa** ... 47

**3.1. Elkarrizketatuen kokapena euskal unibertsitate esparruan** ... 47

**3.2. Eraldaketa ulertzeko modua** ... 48

**3.3. Unibertsitatearen diagnostikoa** ... 53

3.3.1. Eraldatzen ari den unibertsitatea ... 53

3.3.2. Gabeziak ... 59

3.4. Euskal unibertsitate sistema (EUS) .......... 62

3.5. Etorkizuneko desafioak eta proposamenak .......... 65

3.6. Nabarmendutako balioak .......... 67

**4. Hiru diskurtsoetan partekatu diren euskal unibertsitateari buruzko ideiak** .......... 69

4.1. «Gizarte» kontzeptuaren zentralitatea diskurtsoetan .......... 69

4.2. UPV/EHUren erreferentzialtasuna .......... 74

4.3. Euskal unibertsitateek gaur egungo euskal gizartea eraikitzeko baliabideak eman dituzte .......... 76

4.4. Goi mailako irakaskuntza espezializatuaren monopolio instituzionalizatua du unibertsitateak .......... 80

4.5. Unibertsitateak eraldaketa instituzional eta sozialerako behar dituen baliabideak eztabaidagai .......... 80

4.6. Unibertsitatea ikerketa eragile moduan irudikatzen da .......... 83

4.7. Nazioartekotzea .......... 84

4.8. Euskal Unibertsitate Sistema zalantzan .......... 86

4.9. Euskal unibertsitateen irudiak .......... 88

4.10. Antolaketa ereduari buruzko kezka .......... 89

**5. Bibliografia** .......... 93

**6. Eranskinak** .......... 101

# Aurkezpena

Z**ein ekarpen egin dio gizarteari azken hamarkadetan Euskal Unibertsitate Sistemak?** Galdera hau jarri ziguten erronkatzat lan honen enkargua jaso genuenean, Agirre Lehendakaria Center eta Euskampus Fundazioaren eskutik, duela urtebete. Ekarpen hori ebaluatzeko modu ezberdinak egon daitezke: batzuk, kuantifikagarriak, hainbat estatistika eta txostenetan jasotzen dira modu sistematizatuan. Izan ere, unibertsitateen emariari buruzko indikatzaile kuantitatiboak ugariak dira gaur egun, eta panoramaren ezagutza oso sakon eta zehatza ahalbidetzen digute.

Bestelakoa da ordea ebaluazio kualitatiboa. Nola baloratu euskal gizarteak maila ekonomikoan, politikoan, kulturalean, sozialean eta beste maila batzuetan azken hamarkadetan izan duen eraldaketa sakonean unibertsitateek egin duten ekarpena? Edota ekarpenik egin ote duten?

Hasieratik egin genuen analisi kualitatiboaren aldeko apustua. Batetik, esan bezala, analisi kuantitatiboak ugariak direlako honez gero. Bestetik, eta nagusiki, gizarteko fenomenoak ezin direlako datu kuantitatiboetan soilik aztertu. Pertsonek egiten dituzten jarduerak zenbakitan biltzea bezain garrantzitsua da jarduera horien atzetik dauden motibazio, balio, asmo eta zentzuak ulertzea. Gizarte zientzietako 'ikerketa-objektuak' ez baitira objektu hutsak, subjektuak baizik: pertsonak alegia, borondatea eta erabakimena duten pertsonak (banaka hartuta edo erakunde gisa hartuta). Horrekin batera, naturaren edo teknikaren zientzietan ez bezala, gizarte zientzietan analisiaren egiatasuna ezin da beti fenomeno enpirikoetan egiaztatu. Grabitatearen lege zientifikoaren zuzentasuna enpirikoki frogatzen da; gizarteko jokamoldeen zuzentasuna aldiz ezin da modu horretan baloratu, eta jokamolde horiek behatzen eta aztertzen dituztenen adostasunera jo beharra izaten da gutxieneko egiaztatze irizpideen bila. Horrregatik iruditu zaigu garrantzitsua, Euskal Unibertsitate Sistemak gizarteari zein ekarpen egin dion, egiten dion eta egin behar dion ebaluatzeko, horri buruzko iritziak jasotzea. Aurerrago azalduko den bezala, unibertsitatea ikuspuntu ezberdinetatik ezagutzen duten pertsonak izan dira gure informatzaile nagusiak asmo horretan.

Lana egiteko bestalde metodo induktiboa erabili dugu. Alegia, ez gara abiatu aldez aurretik definitutako hipotesi multzo batetik. Analisi kuantitatibo batean adibidez, esanguratsutzat jotzen diren dimentsioak aukeratzen dira lehenik (azpian hipotesiak daudelarik: «unibertsitateek A faktorean edo B faktorean egin dute ekarpena» erakoak), geroago datu kuantitatiboak baliatuz horiek frogatu edo ezeztatu ahal izateko. Gure analisian ordea ez dugu aldez aurretik zehaztu zertan izan den, izan bada, unibertsitateen ekarpena: errealitatea behatzera joan gara gure informatzaileen eskutik, eta haiek adierazitakoa aztertuz eta interpretatuz atera ditugu emaitzak. Horri esker, aurrez ezarritako hipotesiek aurreikus ez zitzaketen emaitzak atera ditugu.

Lanaren ekarpen orokorra, Euskal Unibertsitate Sistema ikusteko hiru modu ezberdin identifikatu eta aztertu izana da. Batetik ikuspegi akademiko-insituzionala aurkitu dugu, zeinak neurri handi batean -baina ez soilik- unibertsitatearen instituziotik ikusten baitu aztergaia; horregatik deitu zaio diskurtso akademiko-instituzionala. Bestetik ikuspuntu tekniko-ekonomikoa, zeinetan unibertsitateari, bereziki, produkzio sistematik begiratzen baitzaio. Azkenik ikuspuntu kritikoa, gizartearekiko jarrera eraldatzaile batetik unibertsitatearen egitekoak planteatzen dituena.

Hiru diskurtso edo narratiba hauek, seguruenik, zerikusi zuzena dute gizartea bera ikusteko moduekin, nahiz eta hori ez den gure analisiaren helburua izan. Areago, pentsa liteke interes ezberdinei ere lotzen

zaizkiela, gizartea bera interes ezberdinen arteko topalekua baita. Horregatik zenbait puntutan dibergentzia handiak antzematen dira, hiru diskurtsoen artean, unibertsitateari buruz oro har; eta Euskal Unibertsitate Sistemak eginiko ekarpenei buruz, zehazki.

Alabaina puntu partekatu nabarmenak ere agertzen dira analisian. Narratiba ezberdinak izan arren, eta sektore ezberdinetatik etorri arren, ikuspegi partekatuak ere badira izan, eta ez dira gutxi, ez eta txikiak. Beharbada, lerro hauek idaztean, horixe izan liteke lanaren emari zehatz handiena. Izan ere pentsa liteke ezberdintasunekin eta -seguruenik- gatazka puntuekin batera, adostasun handiak lortzeko aukerak ere badaudela. Adibide batzuk jartzearren, batzuek zein besteek unibertsitatearen ekarpen nagusi gisa euskal gizarteak gaur egun duen formakuntza maila altua aipatzea, gure gizarteko kohesio sozialaren eta aukera berdintasunaren bidean (bai maila sozioekonomikoari dagokionez, bai genero edota hizkuntzari dagokienez ere) lagundu izana balioestea, unibertsitatearen xede nagusia euskal gizartearen hobekuntza dela aldarrikatzea, nazioartekotzea ekidinezina ez eze onuragarria izan daitekeela aitortzea, guztiak hiru narratibetan agertzen diren ideiak dira; zeinetan bere nabardurekin, baina partekatutako puntuak arakatzeko bidea zabalduz.

Ildo honetan, ez da egileen asmoa izan narratiba ezberdinen arteko ezberdintasunak nabarmentzea, haiek ulertu eta partekatzen dituzten puntuak arakatzea baizik. Hortik dator lanaren egitura: 0. Atalak aurkezpen metodologikoa egiten du, bai eta ikerketa teknikak deskribatu ere. 1, 2 eta 3. ataletan diskurtso bakoitzaren analisiari ekiten zaio, informatzaileetatik jasotako adierazpenak sakon interpretatuz eta logikak aurkitu asmoz. Azkenik, 4. atalean, partekatutako puntuen azalpena egiten da, lanaren ondorio gisa.

Eranskinetan, elkarrizketei eta informatzaileei buruzko xehetasunekin batera, datu kuantitatibo batzuk ere erantsi zaizkio lanari. Kasu gehienetan, Euskal Unibertsitate Sistemaren argazkia osatzea izan da helburua: bere egituraketa, dimentsioa, emaitza batzuen bilketa, eta beste. Datu horiek ezagunak dira eta iturri ezberdinetatik jasoak. Beste datu bat ordea ezagutu gabea zen: UPV/EHUk bere sorreratik sinatutako hitzarmen guztien analisia. Unibertsitateek gizartearekin duten harremana ikusteko baliagarria delakoan, eragile ezberdinekin sinatutako hitzarmenen datu bilketari ekin genion, eta hemen aurkezten da emaitza. Sistema osoa gogoan, Deustuko Unibertsitateko eta Mondragon Unibertsitateko datuak ere geureganatzen ahalegindu gara, baina lerrook idatzi orduko ez ditugu oraindik eskuratu. Ea laster hori egiteko moduan gauden, eta argazki osoagoa izango dugu.

Sarrera hau amaitu aurretik, ohar garrantzitsu bat: atal metodologikoan luzeago azaltzen denez, diskurtsoen balioa ez datza errealitatea zuzen deskribatu edo interpretatzeko duten ahalmenean, pertsonen ikusmoldeak, erabakiak eta jarduerak baldintzatzeko duten indarrean baizik. Diskurtso bat erreala izateak ez du esan nahi errealitatea modu egokian interpretatzen duenik, norbaiten jokamoldea modu errealean baldintzatzen duela baizik. Zentzu horretan, ikerketa honetan lekuz kanpo legoke identifikatu diren diskurtsoetatik egokiena zein den ebatzi nahi izatea. Aitzitik, hiruak hor daudela berretsi da. Horixe izan da lan honen asmoa.

Ezin sarrera hau amaitu haien ikuspuntua gurekin partekatu duten guztiei eskerrak eman gabe. Bereziki eskainitako elkarrizketa luzeen bitartez edota egindako kontraste saioko parte hartzearen bitartez Euskal Unibertsitate Sistemari buruz asko ikasteko aukera izan dugu. Mila esker, beraz, guztioi. Ea jasotako ezagutza anitz hori behar bezala islatzeko gai garen.

# 0. Diskurtsoen analisirako abiapuntu metodologikoa

**Balioak** sinesteak edo usteak dira; errealitate sozialean dagoen gauza baten ontasunaz edo txartasunaz ohartarazten gaituzte, eta gauza hori beste bat baino hobea ala txarragoa den iradokitzen digute. Funtsean, desiragarri, egoki edo ona den horren norabidea erakusten digute. Balioak sozialak dira, izaera eta jatorri soziala dutelako, zalantzarik gabe (Rokeach, 1979)[1]. Hala, inork ez ditu balioak asmatzen. Aitzitik, norbanakoren kultura errepertorioan eta garai historikoan atxikitzen dira. Ildo horretan, pertenentziazko edo erreferentziazko talde sozialek baldintzatzen eta zehazten dituzte norbanakoaren hautaketak balioen munduan (Giner, Lamo de Espinosa, Torres, 1998)[2].

Horrek ez du esan nahi balioak ikuspegi psikologikotik aztertu ezin direnik, azken finean banakoak dira haien eroaleak. Baina, hemen darabilgun ikuspegi soziologikotik abiatuta, balioak talde jakinetan partekatutako elementu kulturalak direla azpimarratu nahi dugu, eta, ondorioz, balio horien tipologiak eta eraldaketak gizartean arauturik egon ohi direla.

Beraz, bai balioak bai haietan oin hartuta sortzen diren ideiak, jarrerak eta iritziak fenomeno kolektiboak dira, den-denak. Begirada soziologikoarentzat, balioek izaera konbentzionala eta arbitrarioa daukate: gauza bat baliotsu da askok lehenesten dutelako. Aldiz, banakoaren begiradak sozialki eta kulturalki emanda datozen elementu gisa hautematen ditu balioak (Giner, Lamo de Espinosa, Torres, 1998).

Horrenbestez, aktore sozialek eta instituzioek partekatzen dituzten balioak ehun kultural baten parte izan ohi dira. Balioak eta, balioekin batera, balio horien kultura oinarriak atzemateko tresnetako bat aktore sozialen **diskurtsoak** aztertzea eta interpretatzea da. Analisi mota hori **metodologia kualitatiboa**ren ildoan kokatzen da zientzia sozialetan (Vallés, 1999)[3]. Aipatu metodologiak errealitate sozialaren dimentsio sinbolikoan jartzen du arreta. Errealitate sozialaren alderdi sinbolikoa hizkuntzan gauzatzen da bereziki, alegia, aktore sozialek modu intentzional eta subjektiboan buruturiko hizkuntza ekintzetan objektibatzen da. Horregatik, metodologia kualitatiboaren barruan, aktore sozialen ideiak, iritziak eta pertzepzioak ahoz jasotzera bideratutako teknikak erabiltzen dira, besteak beste, ikerketa honetan erabili den **elkarrizketa sakona**.

Elkarrizketa sakon erdi-egituratua informazioa jasotzeko gizarte zientzietan erabilitako teknika kualitatiboa da. Elkarrizketatzaileak gidoi egituratu batean oinarritutako galderak egiten dizkie elkarrizketatu guztiei, baina, azken horiek askatasuna daukate nahi duten ideia eta argudio-ildoetatik bideratzeko solasaldia[4] (Ikusi 1. eranskina erabilitako gidoia ezagutzeko).

Ildo horretan, elkarrizketa sakon erdi-egituratuen bidez era askotako aktore sozialen adierazpenak jaso dira euskal unibertsitate sistemari buruzko ikerketa honetan; aktore horietako batzuk unibertsitateari lotutako eragileak dira (irakasle, ikertzaile eta ikasleak, esaterako); beste batzuk, berriz, *stakeholders* gisa

1 Rokeach, Milton (arg.) (1979). Understanding Human Values, Individual and Societal. New York: The Free Press.

2 Giner, Salvador, Lamo de Espinosa, Emilio & Torres, Cristóbal (arg.) (1998). Diccionario de Sociología. Madrid: Alianza, 811-812 or.

3 Vallés, Miguel. (1999). Técnicas cualitativas de investigación social. Madrid: Síntesis.

4 Ruiz Olabuenaga, José Ignacio (1999). Metodología de la investigación cualitativa. Universidad de Deusto.

hautatu izan dira, unibertsitate esparruarekin eta haren eraginarekin zuzenean lotuta daudelako. Guztira 25 elkarrizketa egin dira (ikusi 2. eranskina). 25 informatzaile horien aukeraketa egiteko ikuspuntu intersekzionala erabili dugu. Horretarako, 3. eranskinean jasotzen den banaketa-matriza erabili izan dugu. Honen bitartez unibertsitate alorrean eta honetatik gertu dauden bestelako alorretan (politikoa, ekonomikoa, e.a.) kokapen desberdinak dituzten pertsonak aukeratu ditugu. Matriz honetan bi banatzaile nagusi aukeratu ditugu. Alde batetik, unibertsitatearekiko harremana kontuan hartu dugu. Horrela, unibertsitate barnean lan egin edo unibertsitateko kide direnak eta unibertsitatearekin kanpotik harremana dutenak eta hura kanpotik ikusten dutenak desberdindu ditugu gure lagina aukeratzeko. Ostean, banaketa horri beste banatzaile batzuk aplikatu dizkiogu. Lehenengo banatzailea bereziki inportantea da unibertsitatearen barnean dauden kideen kokapena irudikatzeko eta zer ikusia du binarismo zientifikoak (zientzia «gogorra» vs. zientzia «biguna») duen eraginarekin. Horrela, formazio akademikoa edo disziplina bat edo bestearekiko pertenentzia kontuan hartu dugu lagina aukeratzerakoan. Bigarren banatzaile multzoa intersekzionalitatearen planteamenduetan erabiltzen diren egitura sozialek jarraitzen dituzten ideiak hartzen ditu eta, beraz, generoa, klase soziala, adina, hizkuntza eta ikasketa maila hartzen ditu kontuan. Hartara, 25 pertsonen lagina aukeratzeko orduan bilatu da banatzaile horietatik sortzen diren intersekzioetan posizio sozial desberdinak, anitzak eta orotarikoekin konektatzea. Azkenik beren ibilibide pertsonaletan unibertsitatearekiko kokapen ezberdinetatik igaro izanari ere garrantzia eman diogu (enpresan edo administrazioan eta unibertsitatean ibili izana, uniertsitate batan baino gehiagotan ibili izana e.a.).

Elkarrizketak grabatuak izan dira. Transkribatu ondoren, adierazitakoaren analisi semantikoak eta motibazioen interpretazioak egin dira, horretarako besteak beste Nvivo 11 analisi kualitatiborako sofwarea baliatuz. Horri esker, batetik, jasotako diskurtsoen egiturazko unibertsoen esanahi kulturalak eta orientazio ideologikoak analizatuko dira testu honen hurrengo ataletan. Eta, bestetik, diskurtso horien motibaziozko interpretazioa, hau da, aktore sozialek aditzera emandako ideien, balioen eta jarreren interpretazio sinboliko-intentzionala (kontzientea edo ez kontzientea) (Ibañez, 1994)[5].

Horrenbestez, alde batetik, ikerketan parte hartu duten aktore sozialen esperientziak eta bizipenak, eta aktore horiek unibertsitate-instituzioei, -ekintzei, -jarduerari, eta abar, esleitutako esanahiak jaso eta aztertu dira. Baina, dimentsio horrekin batera, azterketak aintzat hartzen ditu bestelako alderdi makro-soziologikoak ere, berbarako, adierazpenak egin dituzten aktore sozialen kokapen sozialak eta beren testuinguru sozialaren ezaugarriak. Horrenbestez, bi dimentsioak jarri dira harremanetan, ikusi ahal izateko egiturazko kokapenetatik unibertsitate sistemari buruzko zer nolako zentzuak eta esanahiak sortzen diren, eta kokapen desberdinetatik sortutako esanahi horiek bat datozen edo ez.

Aktore sozialak beren erreferentziazko taldeetan sortzen diren ideien, sinesteen eta balioen jabe izaten dira. Gizartean daukaten kokapenetik eta interesetatik abiatuta, modu jakin batean definitzen dute errealitate soziala ideia eta sineste horien bitartez. Izan ere, aipatu ideia, iritzi eta irudikapenek errealitatea hautemateko betaurreko batzuen antzera funtzionatzen dute. Hala, errealitate sozialeko egiturei eta ekintzei esanahia esleitzen laguntzen diete aktore sozialei beren bizitza sozialean. Bestalde, esanahi horiek diskurtso sozialetan egituraturik egon ohi dira, hau da, marko batzuetan sistematizaturik. *Frame analysiak* deituriko ildo teorikoak erakutsi duenez, enmarkatze lanaren helburua (*framing*) errealitate sozialaren pertzepzioa eta errepresentazioa bideratzen duten egitura kognitiboak ezartzea izaten da. Hainbat aktore sozial (indibidual nahiz kolektibo) aritzen da enmarkatze lan horretan, talde sozialak, interes taldeak,

5 Ibañez, Jesús (1994). El regreso del sujeto: la investigación social de segundo orden. Madrid: Siglo XXI.

hedabideak[6] eta mugimendu sozialak[7], besteak beste. Aktore sozialek, horrela, enmarkatu eta zentzua esleitzen diete era guztietako gertakariei, erakundeei nahiz ekintza sozialei.

Gizartean diskurtso ugari eta askotarikoak sortzen dira erakunde eta ekintza sozialen inguruan. Eta, sarri askotan, ez dira bat etortzen. Horrela gertatzen da unibertsitateari buruzko diskurtsoekin ere. Modu asko baitaude euskal unibertsitateen egiturak eta funtzioak ulertzeko. Errealitate horren konplexutasuna errazteko eta ulertu ahal izateko sakoneko elkarrizketen bitartez sorturiko adierazpenen analisia egiten da datozen orrialdeetan, frame analysiak ematen duen tresneria analitikotik abiatuta.

Modu analitiko batean, euskal unibertsitate sistemari buruzko **hiru diskurtso-marko** (*master frame*)[8] identifikatu dira**:**

- Diskurtso akademiko-instituzionala.
- Diskurtso tekniko-ekonomikoa.
- Diskurtso kritikoa.

Diskurtso edo narratiba horien garrantzia ez datza beren egiazkotasunean, edo ustez objektiboa litzatekeen errealitate bat aztertzeko egokitasunean. Garrantzia, aktore sozialen jarduera baldintzatzeko duten ahalmenetik datorkie. Izan ere, aktore sozialek uste dutenak, oinarri objektiboa izan ala ez, ondorio errealak ditu beren jardueran. Hortaz, zentzurik ez luke, ikerketa honetan, «benetako» errealitatera gehien zein hurbiltzen den ebazten saiatzeak. Aitzitik, aktore ezberdinen uste eta jardueren azpitik dauden logikak ulertzea da ikerketaren helburua. Bai eta haien artean egon litezkeen puntu komunak agerian uztea ere.

Snow eta beste autore batzuek[9] mugimendu sozialez ari zirela nabarmendu zutenez, diagnostikozko enmarkatze-lan bat baita pronostikozko enmarkatze bat ere bereiz daitezke diskurtso-markoak sortzeko prozesuetan. Hain zuzen ere, planteamendu horri jarraiki osatu da hemendik aurrera eskaintzen den analisia. Hala, arestian zehaztutako diskurtso bakoitzaren barruan aztertzen da unibertsitate sistemari buruz egiten den diagnostikoa, diskurtsoaren logikaren arabera hautematen diren desafioak eta, aurkezten diren proposamenak. Horrekin batera, ikuskatzen dira diskurtsoei itsatsita dauden balioak. Eta, unibertsitate sistemaren etorkizunari begira izan dezaketen eragina aintzat hartuta, hiru diskurtsoek partekatzen dituzten proposamenak eta balioak nabarmentzen dira amaierako atal batean.

Ohar metodologiko garrantzitsu bat: hemen deskribatzen diren diskurtsoak **tipo ideal** gisa hartu behar dira, Weber-en kontzeptu ezagunaren ildoan (Weber, 2002)[10]. Izan ere, tipo idealak eraikuntza analitikoak izan ohi dira, errealitatearen konplexutasuna ulertzeko tresna kontzeptual moduan erabiltzen direnak.

---

6 Scheufele, D.A. & Tewskbury, D. (2007): «Framing, Agenda Setting and Priming: The Evolution of Three Media Effects Models».D. Tewskbury, D.A. Scheufele (arg.), *Journal of Communication*, 57 (I), 9-20 or.

7 Snow, David & Benford, Robert (1988). «Ideology, Frame Ressonance and Participant Mobilization». B. Klandermans, H. Kriesi & S. Tarrow (arg.), From Structure to Action. International Social Movement Research I, Greenwich: Jai Press, 197-217 or.

8 Snow, David & Benford, Robert (1992). «Master Frames and Cycles of Protest». A.D. Morris & C. Mueller (arg.), *Frontiers in Social Movement Theory*. New Haven, London: Yale University Press, 133-135 or.

9 Benford, Robert & Snow, David (2000). Framing Processes and Social Movements: An Overview and Assesment». Annual Review of Sociology, vol. 26, 611-639 or.
Hunt, Scott; Benford, Robert; Snow, David (1994). «Marcos de acción colectiva y campos de identidad en la construcción social de los movimientos». E. Laraña & J. Gusfield (arg.), *Los Nuevos Movimientos Sociales. De la ideología a la identidad.* Madrid: CIS, 211-249 or.

10 Weber, Max (2002). Economía y Sociedad. México: Fondo de Cultura Económica.

Hemen irudikatutako hiru diskurtsoak 25 elkarrizketa sakonetan jasotako ikuspegi eta ideien multzoa ordenatzen dute. Elkarrizketatu askoren adierazpenak elkarrizketa baten baino gehiagotan koka litezke ziur asko. Halaz ere, nahiko modu nabarmenean marraztuta agertzen dira jarraian deskribatzen diren hiru ardatzak.

Atal metodologikoarekin amaitzeko, sakoneko elkarrizketetatik sortutako diskurtsoen kartografia abiapuntu hartuta, bi ordu eta erdiko iraupena izan zuen kontraste saioa burutu zen 2018ko uztailaren 11an (4. eranskinean jasotzen da parte hartzaileen zerrenda). Bilera honetan, elkarrizketen agenteak aukeratzerakoan erabilitako intersekzionalitate irizpide berdina bete genuen bi helburu hauek jarraituz: egindako analisiari buruzko iritziak jasotzea eta egindako azterketan faltan hartutako elementuak ezagutzea. Saio horretako emaitzekin datozen orrialdeetan luzatzen den analisia findu eta osatzeko abagune paregabea izan dugu.

# 1. Diskurtso akademiko-instituzionala

## 1.1. Elkarrizketatuen kokapena euskal unibertsitate esparruan

Diskurtso instituzionala izendatutako narratiba sortzen duten aktore sozialak askotarikoak dira prestakuntzari eta ikaskuntza-motari dagokienez. Ingeniaritzatik, zuzenbidetik eta zientzia esperimentaletatik datoz, batez ere. Halaz ere, den-denek partekatzen dituzte ezaugarri batzuk: unibertsitateko goi mailako kudeaketarekin lotutako ibilbidea egin dute, eta inplikazio pertsonal eta profesional handia dute sakon sakonetik ezagutzen dute instituzio akademikoan. Unibertsitateetako goi karguak bete dituzte denek, baita unibertsitateari lotutako kargu politikoak Jaurlaritzan ere horietako hainbatek. Gehienak UPV/EHUkoak diren arren, badago tartean Deustuko Unibertsitateko kiderik ere.

*Ethos* profesionalari dagokionez, oso barneratuta daukate zerbitzu publikoaren balioa, eta Deustuko kasuan, unibertsitatearen balio humanistak. Euskal gizartearen edo euskal herriaren aldeko norabidean ulertzen dute, batik bat, unibertsitatearen jarduna. Ildo berean, atxikimendu profesionala ez ezik afektiboa ere erakusten dute unibertsitate publikoarekiko, bokazioz jantzia betiere, eta birtualki unibertsitate publikoarenak diren balioen defendatzaile agertzen dira beren adierazpenetan (publikotasuna, autonomia, erantzukizun instituzionala…). Euskal hiztunak dira gehienak eta, alde horretatik ere, euskararen eta euskal kulturaren garapenerako gunetzat hartzen dute unibertsitate publikoa.

> **Niretzat, unibertsitatean geratzearen helburua zen, alde batetik, ikerketa gustatzen zitzaidala [...] eta, bestetik, fakultatea herriaren parte bihurtzea, ze lehen Valladolideko barrutiari atxikitzen zitzaion, eta zegoen jendea nahiko erdalduna zen. Orduan, bokazioa hori zen (E-19, 2).**

> **Trabajar en gestión me ha dado la oportunidad de conocer muy a fondo la universidad, y conocer algo implica conocer sus virtudes y sus defectos, pero sobre todo implica querer a esa institución (E-14, 1).**

Unibertsitatera iritsi aurretik era desberdinetako kokapen sozial subordinatuetan izandako bizipenek eta esperientzia sozialek (euskal hiztun izateak, emakume izateak eta jatorri sozial apaletik etortzeak, adibidez) areagotu egin dute batzuen unibertsitate publikoari buruzko lotura pertsonala, geroago, ardura instituzionalak hartzearekin batera, sendotzen joan dena.

> **Yo vengo de una familia trabajadora humilde [...] Esto a mis padres les supuso un esfuerzo enorme [...] Y eso nosotras lo vivimos con gran responsabilidad [...] Viendo mi trayectoria y la de muchos compañeros míos, la universidad ha permitido a personas que veníamos de una clase social más humilde acceder a puestos en los que tienes una gran influencia en la sociedad (E-14, 3).**

## 1.2. Eraldaketa ulertzeko modua

Diskurtso akademiko-insituzionala deitu dugun horretan bi modutan ulertzen dira unibertsitate jardunean inplikaturik dauden eraldaketak. Batetik, barnera begira, instituzioaren beraren antolakuntza-eraldaketak daude. Bestetik, kanporako begirada batean, unibertsitate publikoak euskal gizartean eragindako eraldaketak hartzen dira aintzat. Bi dimentsio horiek, gainera, lotu-loturik azaltzen dira.

### 1.2.1. Unibertsitate publikoaren sorrera, aldaketa garrantzitsua euskal gizartearentzat

Narratiba akademiko-insituzionalean kokatutako aktore sozialek duten unibertsitate-ibilbide luzea abiapuntu harturik, begiraldi historikoa erabiltzen dute instituzioa baloratzeko. Hala, lehendabizi, UPV/EHU-ren sorrerari berari irizten diote euskal gizartearentzat aldaketa garrantzitsua. Are gehiago, unibertsitate publikoaren sorrera bere testuinguru historiko-sozialean kokatu behar dela uste dute, hain zuzen ere frankismoaren osteko sakoneko eraldaketa sozialen abagunean. Izan ere, 80ko hamarkadan abian jarri zen instituzionalizazio prozesuaren urrats bat gehiago izan zen.

Zalantzarik gabe, unibertsitate publikoaren fundazio unea berebiziko gertakaritzat jotzen dute unibertsitate tradiziorik ez zeukan euskal gizartearentzat, artean historian zehar egon diren hainbat ahalegin eta proiekturen bururatze modura hartzen baita (besteak beste, Eusko Ikaskuntzaren proiektuarena) UPV/EHUren sorrera.

> **Oraindik EHU ez zen existitzen, orduan zen *Universidad de Bilbao,* eta momentu hartan nik uste dut oso esperientzia polita bizi izan genuela, aldaketa zetorrelako, eta aldaketaren parte izan nahi genuen askok eta askok [...] Momentu hartan gure errektorea zen Goio Monreal [...] unibertsitateko hasierako klaustro hori, hemen egin zena, ez dakit noiz izango zen, 1981ean edo izango zen. Orduan, hori dena gogoratzen dut oso ondo, oso momentu berezia izan zelako, eta ikasle moduan ibili nintzen mobida ezberdinetan; polita izan zen (E-1, 2).**

Aktore akademiko-insituzionalen iritziz, euskal unibertsitate publikoaren sorrera gorabeheratsua eta berantiarra azaltzea ezinbestekoa da unibertsitatearen ondorengo erakundetzea eta kontsolidazioa nola gertatu diren ulertzeko. Baita, euskal gizarteak luzez pairatu zuen hutsune handiaren ondorio kaltegarriez ohartzeko ere. Euskal Herriak ez du unibertsitate publikorik izan XX. mendearen amaierara arte. Egon dira unibertsitate txikiak, Iratxekoa eta Oñatikoa. Baina, XIX. mendetik aurrera, industrializazioarekin batera, hasi ziren unibertsitatearen aldeko aldarrikapen inportanteak. Eusko Ikaskuntzak ere garatu zituen 1937ko gerraren aurretik horretarako proiektuak. Hala ere, euskal elite askok ez zuten aldarrikapen hori bereganatu bere osotasunean, adibidez Katalunian gertatu zen bezala. Izan ere, negozio eskolak eta ingeniaritza eskolak eskatzen zituzten, bereziki elite industrialek. Eta, neurri batean, Deustuko Unibertsitateak bete zuen eskari hori.

> **Elite industrial horren interesa ez zen ikasketak bideratuko zituen eta herri honen kultura maila igoko zuen unibertsitate orokor bat, baizik eta interesatzen zitzaizkien ikasketetara jotzen zuten. Ondorioz, hemen elizaren esku geratzen da hutsune hori, eta betetzeko, Deustuk egiten du bai Bilbon eta bai Donostian bere planteamendua. Ondorioak ikaragarriak dira herri honentzat (E-19, 3).**

Ondorio horien artean aipatzen dira, lehendabizi, magisterio eskolen monopolioa galdu izanak dakarren kaltea euskarazko heziketa garatzeko. Eta, bigarrenik, zuzenbide propio bat landu eta garatu ezin izana, beren zuzenbide propioa zuten beste herrialde batzuek, Kataluniak kasu, egin zuten antzera.

> **Oso galera inportantea izan zen unibertsitatea ez izatea. Oso berandu eta ikaragarrizko gatazka politiko baten ondoren lortzen da barruti propioa izatea frankismoaren bukaera eta gero. 1980ra arte ez daukagu gure barruti propioa garatzeko aukerarik. Eta nik jarriko nuke unibertsitate-barruti propioa izatea Eusko Jaurlaritza edo Legebiltzarra izatearen parean. Gehiago kostatu zitzaigun unibertsitatea Jaurlaritza baino (E-19, 3).**

Ondoren etorri zen unibertsitate publikoaren eraikuntzak hainbat muga izan zituen, elkarrizketatu batzuen ustez. Horietako batzuk dira Euskal Herriaren zatiketa administratiboak dakartzanak, bereziki erkidego autonomoen ezarreraren ostean. Izan ere, erkidego autonomoen araberako unibertsitate publikoak sortu dira, eta horiek elkarri bizkar emanda dihardute harrez gero. Hartara, zatiketak zaildu egin du, besteak beste, Eusko Ikaskuntzako hasierako proiektuetan aurreikusten zen komunitate zientifikoaren eraketa euskal gizartean.

### 1.2.2. Unibertsitate publikoaren ikuskera eta haren eragin-ahalmena euskal gizartean

Sorreraz geroztik unibertsitateak hiru hamarkada baino gehiagotan euskal gizartean eragindako eraldaketak ezin dira ulertu haren **izaera publikoaren** balioa aintzat hartu barik. Zalantzarik gabe, diskurtso akademiko-insituzionalaren ezaugarri nagusietako bat unibertsitatearen publikotasunaren gorespena da. Areago, publikotasuna da UPV/EHU-ren balio-ardatz nagusia narratiba ildo horretan. Izan ere, ezaugarri hori beste balio garrantzitsu batzuen ezinbesteko bermetzat jotzen da, aukera-berdintasunarena eta jatorri sozial ezberdinetako pertsonen arteko berdintasunarena, besteak beste. Hain zuzen ere, gizarteko era guztietako jendeari buruzko irekitasun horrek ahalbidetzen ditu unibertsitateak gizartean izan beharreko inpaktu sozial handienak.

> **Nik pentsatzen dut EHU-k alde batetik kontuan izan beharko lukeela publikoa dela. Niretzat hori oso inportantea da. Publikoa niretzat lotu beharko genuke puntarengoa izatearekin, balio duen edonori aukera ematearekin eta gizarteko ikur izatearekin [...] Gauza guztien gainetik uste dut garbi izan behar dugula gure esku dagoela edonori aukera ematea ahalik eta prestakuntzarik onena izateko, eta horrek bere bizitzan izango du inpaktua (E-3, 5).**

Publikotasunaren hari horretatik ulertu behar dira unibertsitate publikoak euskal gizartean eragindako funtsezko aldaketei eman zaien zentzua diskurtsoan. Eta unibertsitateari berari gizartearen eredu gisa esleitzen zaion ardura ere. Hala, eraldaketak ez dira soil soilik alderdi ekonomiko eta material batetik interpretatu behar, ondoren nabarmenduko den narratiba ekonomikoak egiten duen bezala. Aitzitik, aktore akademiko-insituzionalek uste dute ikerketaren eta ezagutza zientifikoaren produkzioaren bitartez sorrarazitako emaitza material neurgarriak egon direla, bai (eta horien adierazle litzateke, adibidez, 37 urteren buruan UPV/EHU Shangaiko unibertsitate-rankingaren barruan kokatu izana)[11], baina horiekin batera, adierazten dute modu berean neurtu ezin daitezkeen bestelako emaitza immaterialak ere hartu behar direla kontuan.

11 2018ko maiatzean ezagutzera eman denez, 359. tokia betetzen du UPV/EHUk munduko unibertsitateen artean, *CWUR (Center for World University Ranking) erakundearen arabera.*

Esaterako, pentsatzen dute UPV/EHU-k erreferente bat izan behar duela euskal gizartearentzat arlo teknologikoan eta zientifikoan ez ezik kulturan ere. Bada, balioetan ere erreferente eta eredugarri izan behar du unibertsitate publikoak. Horrela, eraldaketaren ikuskera akademiko-insituzionalak unibertsitateak eragiten dituen transformazioen alderdi materialak eta ez-materialak (kulturalak) hartzen ditu barnean.

> **Gizarteak ikusi behar du guk egiten ditugun gauzak [...] eta gauza horiek aurrera eramateko erabiltzen ditugun metodoak ere eurentzat erreferenteak direla [...] Eredugarri izan behar gara, eta adibiderik errazena ikerketa da. Zuk egiten baduzu ikerketa teknologiaren ez dakit zein esparrutan, hegazkinentzat turbina berriak, adibidez, eta turbina horiei esker gure industriak aterako du etekin handia, orduan, guk egiten badugu hori gizarteak ikusiko du unibertsitate honek funtzio hori betetzen duela. Baina, ez da hori bakarrik [...] Oso inportantea da gizarteak ikustea baloreetan ere gu erreferenteak garela [...] Unibertsitate honek [...] erakutsi behar du bidea arlo sozialean, berdintasunean, teknologian, zientzian eta kulturan ere bai. Eta hor badaukagu oraindino lan handia egiteko (E-1, 7, 8).**

Ildo akademiko-insituzionaleko aktoreen aburuz, gizarte batek ezinbestean behar du unibertsitate publikoa. Betetzen dituen funtzio sozialek ezaugarritzen dute unibertsitate publikoa. Gizartearen zerbitzurako eta gizartearen garapenerako ezagutza sortzera bideratu behar ditu lehenik ahaleginak. Bigarrenik, gizartea hezitu behar du eta hark behar dituen profesionalak prestatu. Eta, azkenik, sortutako ezagutza bide desberdinetatik gizartera bueltatzen jakin behar du, transferentziaren eta dibulgazioaren bitartez. Eginkizun horiek guztiek publikotasunetik eratorritako balio argi batzuk dituzte itsatsita, unibertsitatea gizartearen ongintzaren bidean jartzen dutenak.

> **La universidad es el lugar donde se genera conocimiento, se produce conocimiento a todos los niveles: a nivel científico-técnico y a nivel humanista. Entonces, un país sin universidad es un país sin futuro [...] Entonces, para mí la universidad es fundamental en ese sentido. Genera conocimiento y el conocimiento genera ilusión, oportunidades y libertad. Pero la universidad no solo se necesita para generar conocimiento [...] sino que la universidad necesita instruir a muchos niveles. Por lo tanto, por una parte, generamos conocimiento y eso es imprescindible para que la sociedad vaya hacia adelante. Por otra parte, necesitamos formar buenos profesionales que tomen el relevo de los que ahora estamos aquí generando ese conocimiento. Y esos buenos profesionales tienen que tener ética, conocimiento, autocrítica, esfuerzo, etc. Y luego estoy convencida de que debemos devolver a la sociedad ese conocimiento, no solo en forma de profesionales competentes, sino en forma de conocimiento digerido adecuadamente para que la sociedad no solo comprenda, sino que aprenda y haga suyo ese conocimiento (E-14, 2).**

Ikusten denez, aipatu diren unibertsitate-zereginen multzo horren hartzaile eta onuradun euskal gizarteak izan behar du. Diskurtso honetan gizartearen interesak ez dira soilik enpresarekin eta eragile ekonomikoekin identifikatzen, ondoren azalduko den diskurtso tekniko-ekonomikoan gertatzen den bezala. Ekonomiatik harago, unibertsitatean sortutako ezagutzak baliagarriak dira gizarte aske eta burujabea eratzeko.

> **Ese conocimiento tan profundo que generamos necesitamos digerirlo para darlo a la sociedad, y que ésta lo tome como suyo, y lo utilice a la hora de tomar decisiones,**

**de reclamar qué se hace con sus impuestos, de decidir qué hace ante un problema determinado, etc. Yo no concibo una sociedad sin universidad (E-14, 2).**

Horrenbestez, unibertsitateak produzitzen duen ezagutzak gizartearen zerbitzura dagoen ondare soziala izan behar du. Izan ere, ikuspegi honen arabera, uste da zientziaren bitartez gizartearen arazoak konpon daitezkeela eta gizarte hobea eraikitzen lagun daitekeela. Unibertsitateak gizarteari eman beharreko zerbitzu hori ez da ulertu behar sistema ekonomikoaren garapenera bideratutako laguntza tekniko gisa soilik, modu orokorragoan baizik. Hala, elkarrizketatu baten hitzak erabiliz, gizarte hobea egin daiteke ez bakarrik «natur zientziak erabiliz, baita kultur zientziak erabilita ere» (E-23).

**Nik sinisten dut zientziaren bitartez arazo asko konpondu daitezkeela [...] Guk lagundu dezakegu gizarte hobeago bat egiten (E-23, 3).**

Unibertsitateak modu askotan egiten dio ezagutzaren transferentzia gizarteari. Ikasleen prestakuntzaren bidez, dibulgazioaren bidez (goi milako dibulgazioa eta dibulgazio apalagoa egongo lirateke tartean) baita hedabideen bidez eratzen den esparru publikoan ere. Unibertsitateak gizarteari egiten dion ezagutzaren transferentziaren hartzaileen artean, badaude nabarmentzen diren bi esparru. Bata politikaren esparrua da. Bada, esparru politikoan diharduten politikariek era askotako erabakiak hartu behar izaten dituzte auzi oso espezializatuen inguruan eta, sarritan, modu oso azkarrean hartu ere. Unibertsitateak produzituriko ezagutzak lagun dezake politikarien erabaki horiek zuzenagoak izan daitezen. Beste esparrua gizarte zibila da. Gizarte zibila edozein gobernu orekatzeko oinarrizko elementua da. Horretarako ondo eratuta egon behar du, eta unibertsitatea (publikoa, bereziki) eraketa horren parte da. Gizarte zibila sendo badago, gizarte horretako gobernua ere sendo egongo da. Hartara, bere ekarpenen bitartez, unibertsitatea gizarte zibil sendoaren eta gobernu sendoaren bermeetako bat izan ohi da.

**Nire esperientzia apalean Eusko Jaurlaritzan ikusi nuen ikaragarrizko beharra dutela gobernuek, ez bakarrik gizarteak. Gobernua, hauteskunde sisteman sinesten baldin badugu, izango da gizartearen ordezkaritza bat. Baina, badago ere gizarte zibila, antolatuta dagoena eta antolatuta ez dagoena ere bai. Orduan, transferentzia ikaragarria egin dezakegu hari begira, ze politika oso azkar ibiltzen da, eta erabakiak hartu behar dira jada. Orduan, erabaki-katea ez badago behar den bezala prestatuta, erabakitzen dute argi izan gabe, eta gero horrela ateratzen dira gauzak... Orduan, gizarte zibil sendo bat badago, eta hor sartzen dut unibertsitatea ere, gobernua sendo egongo da (E-23, 3).**

Hari beretik, unibertsitate publikoari lotuta dauden elkarrizketatuen aldetik ez ezik, Deustuko Unibertsitateari loturik daudenen aldetik ere ideia bera partekatzen da, alegia, gaur egun nagusitzen ari den ezagutzaren ikuspegi utilitaristaren kritika. Elkarrizketatu batek azaltzen duenez, ezagutza ezin da baloratu epe laburrean sistema ekonomikoan izango duen eraginagatik soilik. Hartara, enpresaren logikak ezin du unibertsitatea zuzendu. Unibertsitateak komunitate zientifikoaren barruan egiten du lan, haren erritmoekin, eta, askotan, bere ezagutzaren eragina zeharka gauzatzen da gizartean, ez epe labur laburrean. Ildo horretan, uste da desberdinak direla unibertsitateak eta zentro teknologikoek dituzten funtzioak. Unibertsitateko departamentu askotan sortzen den ezagutza ez da ezinbestean amaitzen patente baten lorpenean edo enpresa batean. Zientziak ez du horrela funtzionatzen. Zientzia ekosistema bat da, non, atal bakoitzak bere funtzioa duen sistema orokorraren barruan.

> La sociedad está necesitada de todo ese conocimiento, quiere que cree puestos de trabajo, que cree empleo. Y la universidad dice que la universidad no es exactamente eso. Si el conocimiento lo convertimos en algo utilitarista estamos pervirtiendo un poco el conocimiento. El conocimiento está para entender cuáles son los límites del propio conocimiento humano y para ensancharlos. Y de ahí la historia nos dice que siempre se crean cosas buenas. Es decir, la sociedad siempre se ha beneficiado del ensanchamiento del conocimiento [...] El conocimiento no se tiene que medir en base a si soluciona el problema del desempleo para el año que viene, ni tampoco se debe poner a los empresarios a dirigir universidades, porque el conocimiento es otra cosa. El que se mueve «aquí» no se mueve por lo mismo que el que se mueve «ahí». El que se mueve «aquí» regala su conocimiento a la comunidad científica, así ha funcionado desde siempre y así ha demostrado que es eficaz. Claro, el que se mueve «ahí» hace lo contrario: blinda su conocimiento con patentes o secretos para intentar que sus competidores no le roben la idea (E-25, 7).

Publikotasunari estu lotuta, bigarren bereizgarri batek ere ezaugarritzen du UPV/EHU bere hastapenetatik: **masa unibertsitate** modura sortu eta garatu izanak. Goi mailako hezkuntzari dagokionez masa unibertsitate gisa definiturik agertu izanak herriaren zerbitzura bideratu du UPV/EHU-ren jarduna bere sorrera une beretik aurrera, hainbat aktore akademiko-insituzionalen aburuz.

> EHU hezkuntza mailan masa unibertsitate bat izan da, eta uste dut benetan jarraitu behar dugula herriari zerbitzua ematen. Momentu honetan goi mailako ikasketak dituen populazioa %60koa da, OCDEn altuena, eta uste dut hori positiboa dela (E-19, 9).

Hartara, arestian aipatu diren unibertsitatearen alegiazko eraginak eta eraldaketak ulertzeko modu hori unibertsitateari esleitutako eginkizun sozialekin harremanetan dago berriz ere. Eta auzi honetan ere zeharo desberdinak dira diskurtso ekonomikoa eta akademiko-insituzionala. Izan ere, aurrerago zehaztasun handiagoz ikusiko dugunez, narratiba tekniko-ekonomikoak industriako eskariei egokituriko profesionalen prestakuntzan jartzen du arreta unibertsitatearen funtzioei dagokienez. Eta, narratiba akademiko-insituzionalak, aldiz, zeregin hori ukatu gabe ere, harago eramaten du unibertsitatearen ardura; «pertsonak egitea», hau da, pertsona kultuak, ikasiak eta jasoak prestatzea da unibertsitate publikoaren zeregina, haren arabera. Era horretan, esparru ekonomikora barik, gizarte osora zabaltzen dira unibertsitatearen eginbeharrak, horretarako baita publikoa. Unibertsitatearen eginkizun teknikoaz harago (profesionalak sortzea), balioetan eta kulturan hezteko zeregin sozial nabarmena egozten zaio unibertsitateari. Are gehiago, gizarte zibil aberatsagoa eratuko duten pertsona autonomoak eta burujabeak prestatzeko gomendio uzten diote unibertsitate publikoari ildo horretako aktore sozialek.

> Unibertsitatearen helbururik inportanteena ez da profesional onak sortzea, eta hori da Confebask-en hanka sartzerik handiena, hori ere esan diet [...] Unibertsitatearen produktua da pertsona kultuak sortzea, eta hitz hori erabiltzen badut, zentzu onean hartu [...] Jakin behar duzu termodinamikaz, jakin behar duzu anatomiaz, jakin behar duzu psikologia sozialari buruz. Hori onartu behar da ikasi behar dela [...] Baina, pertsona kultuak sortzea da problema (E-1, 22).

> Gaur egun garrantzi handia ematen gaude dualari. Baina, niretzat hori arlo tekniko bat da. Nik uste dut unibertsitatearen balioa dela pertsonari aukera ematea burua

> **mugimenduan edukitzeko eta ideia berriak sortzeko. Ez da bakarrik ikasketa batzuk betetzea. Ikasketa horiek ematen dizuten aberastasuna da garatzen dutela pertsona modura gai izatea zure pentsamendu propioa eta zure ideiak izan ahal izateko [...] Pertsonak daukan gauzarik inportanteena da bere kabuz pentsatzeko gai izatea. Hori da unibertsitateak bultzatu behar duena, nire ustez. Arlo teknikoa ondo dago, baina uste dut ez genituzkeela bi arlo horiek nahastu behar (E-3, 4).**

Publikotasunak eta masa izaerak bilatu gabeko ondorioak sortu dituzte unibertsitatearen bilakaeran. Hain zuzen ere, unibertsitate publiko eta masa unibertsitate izatean, UPV/EHU irekirik egon da era guztietako jatorri sozialeko gazteentzat hainbat hamarkadetan. Irekitasun horren eraginez, diskurtso akademiko-insituzionalean nabarmentzen da gaur egungo ikasle askoren begietan –eta, hartara, gizartearen zati baten begietan ere- unibertsitate publikoaren balio eta ospearen galera-prozesua ikusten dela ageri-agerian. Horren aurrean, publikotasunari lotutako erantzukizun sozialaren balioa aldarrikatzen dute eragile akademiko-insituzionalek.

> **Ahora lo que veo es que es más fácil traer a nuestros hijos a la universidad [...] Nos movemos en un entorno en el que se ha popularizado más [...] hay algunos alumnos que se permiten el lujo de suspender, repetir, suspender, repetir... ¿por qué? Porque consideran que es algo asequible, porque no se dan cuenta, hablo de la universidad pública, del coste real de sus estudios. Sí es verdad que antes era una cuestión más elitista o mucho más restringida, ahora se ha popularizado pero no se ha hecho el hincapié en la responsabilidad de tener unos estudios universitarios que pagamos todos los contribuyentes (E-14, 3).**

Balorazio eza hori unibertsitate barneko profesionalen iritzietara ere zabaldu da zenbaitetan. Batez ere, instituzioari buruzko identifikazio eza eta urruntzea antzematen delako unibertsitatearekiko iritzi kritikoetan. Ildo horretan, narratiba akademiko-insituzionalean asko azpimarratzen da erantzukizun instituzionalaren balioa, eta instituzioarekiko atxikimendua.

> **Cuando digo mimarla, hablo de nosotros. No podemos criticar vacuamente la universidad, porque la universidad somos nosotros y tenemos que empezar por ahí. Si queremos que nos respeten tenemos que respetar nuestro trabajo, y respetar y querer a la universidad, y exigir que se la valore en su justa medida. Y que se la critique en lo que no hace bien para que lo haga mejor (E-14, 4).**

## 1.3. Unibertsitate publikoaren bilakaeraren diagnostikoa: lorpenak eta gabeziak

### 1.3.1. Lorpenak eta inpaktuak

Ia lau hamarkadako ibilbidean unibertsitate publikoak erdietsitako lorpenak (eta, hartara, gizartean eragindako aldaketak ere) era askotakoak dira, eragile akademiko-insituzionalen adierazpenak aintzat hartzen baditugu. Nabarmentzekoa da, dena den, azpimarraturiko aldaketarik gehienak gizarte alorrekoak direla. Elkarrizketaturiko eragile baten ustetan, honako hiru hauek dira UPV-EHUren lorpen aipagarrienak: giza kapitalaren produkzioa, kohesio soziala eta euskararen integrazioa goi mailako irakaskuntzan, hurrenez hurren.

Giza kapitalaren sorrerari dagokionez, UPV/EHU-k bere ibilbidea hasi zuenean Euskal Herrian zeuden tituludun gehienak Deustuko Unibertsitateakoak edo Bilboko Ingeniaritza Eskolakoak zirela argudiatzen da. Sorrera unetik gaur egunera arte, berriz, 320.000 tituludun igaro dira unibertsitate publikoaren ikasgeletatik. Eta tituludun masa horren prestakuntzak eta lan jardunak izugarrizko eragina izan dute euskal gizartearen azken urteetako garapenean.

Giza kapitalarekin batera, kohesio soziala ere izan da UPV/EHU-ren emaitza sozial arrakastatsuetako bat. Izan ere, unibertsitatean sartzeko gutxieneko prestakuntza daukan edozein pertsonarentzat zabalik egon da unibertsitate publikoa haren historia guztian. Ikasleek ordaindu beharreko matrikulak ez dira garestiak, modu konparatiboan bederen, eta beka sistemak ere aurreikusi dira lagungarri moduan. Ondorioz, instituzioaren goi mailako hezkuntzarako irekitasun horrek berebiziko eragina izan du euskal gizartean, hain zuzen ere, gizarte eredu kohesionatu, integratu eta prestatua lortzeko. Zalantzarik gabe, berdintasunaren aldeko unibertsitate gisa ezaugarritzen dute unibertsitate publikoa aktore akademiko-insituzionalek.

> **En los últimos 50 años ha sido cuando ya las familias tenían los medios económicos, y la idea de que a sus hijos tenían que darles estudios universitarios. Y eso coincide también con el *baby boom*. A eso había que darle respuesta, y yo creo que tanto para las que ya estaban como para la UPV, que nace justo en ese momento, el gran reto fue cómo dar respuesta a esa necesidad de dar formación [...] La UPV trató de ofrecer la oportunidad a la gente de poder estudiar casi cualquier especialidad en su país y en su idioma, y yo creo que eso fue una aportación fundamental para la sociedad [...] El desempeño económico actual de Euskadi no se entendería sin tener en cuenta la respuesta que dio la universidad en ese momento. Luego, creo que hay un efecto más indirecto de tener una población más formada [...] Una cabeza mejor armada [...] tiene más resortes para que su respuesta como ciudadano sea más completa [...] Tiene su importancia no sólo en la economía, sino también en la integración social, en las opciones políticas, etc. El tener una ciudadanía que tiene estudios creo que es positivo (E-25, 3).**

Ildo horretan, luzaroan goi mailako hezkuntzaren monopolioa izan duen heinean, unibertsitateak (publikoak, bereziki) eskaini dituen titulazioak gizarteko langile jatorriko sektoreentzako goranzko higikortasun sozialaren giltza izan dira. Hala gertatu da 80, 90 eta 2000ko hamarkadetan euskal gizartean ere. Hori aldatzen ari da azken urteetan, lehen ospe handiagoa zeukan unibertsitatea bera masifikatu egin delako eta, ondorioz, unibertsitate tituluek galdu egin dutelako, hein batean, lehen ematen zuten estatus ikurra. Gainera, unibertsitatea hezkuntzaren monopolioa galtzen ari da azken aldi honetan. Orain enpresek eskatzen dituzten ikasketak asko dibertsifikatu dira, eta egoera berri bati egin behar dio aurre unibertsitateak. Izan ere lan mundura bideratutako eskaintza interesgarriak daude unibertsitatetik kanpo ere.

Azkenik, perspektiba historikoan jarrita, diskurtso akademiko-insituzionalean arrakastatzat jotzen da euskara goi mailako hezkuntzan eta mundu zientifikoan ere integratu izana. Zeregin horretan beste unibertsitate eta entitate batzuen ekarria ere egon den arren (UEUrena nabarmentzen da, esaterako) unibertsitate publikoak egindako ekarpen hori ez dute gainerako unibertsitateek burutu maila berean. Euskararen integrazio horrek, gainera, hezkuntzatik baztertuta egondako hizkuntza batuaren egokitzapena eta modernizazioa eskatu du. Eta esparru horretan handia izan da UPV/EHUren ekarpena.

Bestalde, azken ekarpen hori oso lotuta dago UPV/EHU-k hasieratik izan dituen helburu eta balioekin. Aktore akademiko-insituzionalen ustetan, unibertsitate publikoaren sustraiak Euskal Herrian eta euskal gizartean erroturik egon dira bere sorrera unetik aurrera. Hartara, berezko hizkuntza eta kultura, eta euskal

gizarteari lotutako balioak unibertsitate publikoaren sakoneko osagai gisa agertzen dira behin eta berriro aktore horien narratiban.

> **Guk unibertsitate moduan sustraiak herri honetan eduki behar ditugu, eta herri honek badauzka berezitasun batzuk, batez ere kultura bat eta hizkuntza bat. Eta balore batzuk ere badauzkagu; adibidez elkarrekin lan egiteko nik uste dut errazagoa dela unibertsitate honetan beste unibertsitate batzuetan baino. Guk auzolanaren izpiritua badaukagu […] Eta elkartasuna badaukagu ere. Beraz, nire ustez, unibertsitatearen sustraiak herrian daude. […] Ba al dago hor zerbait ezberdinak egiten gaituena? Nire ustez, bada gure sustraiak herri honetan daudela, eta hori irakasleok nola edo hala transmititzen dugu. Batzuek modu batean eta beste batzuek beste modu batean, baina, orokorrean, gehienok hori sentitzen dugu, eta balio horiek baditugu (E-1, 20).**

Oro har, Deustuko unibertsitateko elkarrizketatu batek nabarmentzen duenez, EAEn kokatutako unibertsitate guztiek lagundu dute herri gisa Euskal Herriak duen identitatea eraikitzen.

> **Creo que la universidad ha ayudado a construir esa identidad, ha sido uno de los elementos constructores de esa identidad (E-25, 10).**

Eragile batzuek, emakumezkoek bereziki, azpimarratzen duten azken hamarkadetako eraldaketa garrantzitsua honako hauxe da: emakumeek goi mailako hezkuntzan izandako integrazioa eta ondorengo inpaktu soziala euskal gizartean genero berdintasunari dagokionez. Zalantzarik ez, unibertsitate publikoa izan da eraldaketa horretan parte hartu duen eragile nagusietako bat. Publikotasunak, hain zuzen ere, merituaren eta gaitasunen printzipioen arabera jardutera bultzatzen du UPV/EHU. Ondorio eraldatzaileak askotarikoak izan dira. Batetik, emakumeen sarrera horrek ahalbidetu du euskal emakume-belaunaldi batzuen lan-merkaturatzea eta eragina izan du, azken batean, haien emantzipazio ekonomikoan. Bestetik, inpaktu hori baino harago, unibertsitateak lan sozializatzailea egin du emakumeen eta gizonen artean, gune partekatuetan elkarrekin lan egiteko aukera eman dielako berdintasunaren alde goi mailako hezkuntzan.

> **Nik uste dut unibertsitateak nahi eta nahiez lagundu duela gizarte hori aldatzen, ze unibertsitateak aukera eman dio gizon-emakume askori euren burua ikusteko esparru ezberdinetan, anekdota bat izatetik berdintasunez bizi izatera egoera hori […] Unibertsitateak aukera hori eman du […] Inork garatzen badu berdintasuna, publikoak izan behar da: «igualdad, mérito, capacidad» […] Ez dago besterik. […] Berdintasunean ikasi baduzu, zergatik ez zara biziko berdintasunean? (E-3, 11, 12).**

Onartzen da genero berdintasunaren bide horretan asko direla geratzen diren desafioak. Baina aitortzen dira egindako urratsak ere. Baita azken urteetan unibertsitate publikoaren aldetik berdintasunaren alde garatutako politika aktiboen eragina ere.

> **Gizartearen aurrera egite horrek askotan unibertsitateak bultzatu du. Generoaren kontuan, esate baterako, dudarik gabe unibertsitateak ireki dizkio ateak belaunaldi berri bati. Eta, nire ustez, aurrerapen ikaragarriak egin direla emakumeen lan mundu-ratzean unibertsitatearen ikuspegitik. Uste dut momentuan unibertsitateak daukan erronka bat dela, erakundetzearen ikuspegitik, ereduak sortzea. Emakume-eredu profesional oso potenteak behar ditugu, emulatzeko gogoak ematen dutenak, hori**

> **fundamentala iruditzen zait erakundetze prozesua sendotzeko orduan. Errekonozimendu politikak behar ditugu emakumeekin, nire belaunaldiko emakumeok izan ez ditugunak. Hor daukagu erronka bat unibertsitatean. Eta, nire ustez, unibertsitate hau ikaragarrizko ahaleginak egiten ari da ikuspegi horretatik (E-19, 9).**

### 1.3.2. Gabeziak

Euskal gizartea ohitu egin da sarbide errazeko unibertsitate publikoa izatera. Ohitu, egunerokotasuneko erakunde arrunt eta betikotzat hartzen duelako haren sorreraren historia ezagutzen ez duen jende askok. Aktore akademiko-insituzional batzuen iritzitan, unibertsitate publiko bat lortzea gizarteari asko kostatu bazitzaion ere, euskal gizarteak ez du nahikoa baloratzen gaur egun unibertsitate publikoak herri honen etorkizunerako daukan benetako balioa. Ohiko errealitate bihurtu da unibertsitatea euskal gizartean, eta gazteen prestakuntzarako gune moduan ikusi da nagusiki azken hamarkadetan. Gizartetik ez zaio beste funtzio nabarmenik esleitzen, ikerketa eta ezagutzaren produkzioa, adibidez. Egiten den ikerketa ia ikusezina da gizartearentzat. Ondorioz, gutxi eskatzen dio euskal gizarteak unibertsitateari, goi mailako hezkuntza-eskaintza jakin bat egiteaz harago. Ildo beretik, aktore horiek uste dute unibertsitate publikoa berrikuntza historikoa dela euskal gizartean. Eta, gainera, kontsolidatu gabe dagoen errealitatea, ez soilik barnera begira instituzio moduan, baizik eta gizarteari begira ere. Hartara, ez dago eskakizun sozial zorrotza unibertsitateari dagokionez.

Testuinguru sozial horrek ahalbidetu du erkidegoko gobernuek unibertsitate publikoari buruz izan dituzten politikak. Zenbaiten aburuz, 90eko eta 2000ko hamarkadetan egon dira unibertsitate publikoaren aldeko apustu argiak egin dituzten gobernuak. Baina, batez ere 2008ko krisialditik aurrera, ez dute ez unibertsitate politika egokirik burutu, ezta politika zientifiko seriorik ere egin. Hala da, bereziki bultzatu dituzten beste politika batzuekin, adibidez, politika industrialekin, alderatzen badira. Ez dago inbertsiorik, eta finantzazioa beherantz joan da. Eta ez da bakarrik politikoki apustu horiek egiteko borondaterik egon ez izana. Gizarteak berak ere ez du horren aldeko eskaririk azaldu.

> **Edukiko bagenu gizarte bat maila kultural handikoa, prestigiozko unibertsitateak behar dituena idiosinkrasikoki bere burua definitzeko, ba seguru asko erakundeetatik ere hau [unibertsitatearen politika] politika inportante bat izango litzateke [...] Ez dago gizartearen aldetik unibertsitate on bat behar izatearen ikaragarrizko kezka bat. Beraz, horrek azaltzen du baita ere erakundeetan unibertsitatearekiko bigarren mailako politikak egitea. Nik uste dut biak lotuta daudela: oso zaila da erakundeak unibertsitatean inbertsioak justifikatzea epe ertainean eta epe luzeko maila bati begira, baldin ez badago eskakizun bat gizartearen aldetik. Oso zaila da (E-19, 5).**

Unibertsitateari begira buruturiko politiken ifrentzuan kokatzen dira industriaren aldeko gobernu politikak. Hain zuzen ere, industriaren zerbitzutara jarritako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako euskal sarearen osaketa izan da azken urteetako gobernu estrategiaren muina. Hala, euskal enpresen eta eragile ekonomikoen premiei erantzuteko sortu den sare horretako guneetara bideratu dira botere publikoen politika estrategikoa eta diru funtsak. Eta unibertsitatean burutzen den ikerkuntzan murriztu dute finantziazioa, hura ia puntu kritiko batera iritsi den arte.

> **Ingeniaritza soziala egin behar da, eta krisi garaietan erakundeak ez daude prest holako apustuak egiteko [...] Erakundeak ere desinflatuta daude unibertsitatearekiko. Ez dute ikusten unibertsitatean egin beharreko inbertsio handiago baten beharrik, hau da, politika kontrazikliko bat aplikatzeko beharra, ikerketan inbertitzeko beha-**

> **rra. Eta beste maila bateko apustuak egiten dituzte industriari begira, esaterako. Nire ustez, egoera arriskutsu batean gaude, denbora hau oso preziatua zen, eta galtzen ari gara (E-19, 5).**

Bereziki larritzat jotzen dira diskurtso akademiko-insituzionalaren barruan Jaurlaritzak azken aldi honetan unibertsitate publikoko ikerketa taldeei bideratutako finantziazioaren murrizketak, eta emandako diru horren banaketarako erabilitako irizpideak. Narratiba honetan kokatzen diren aktoreen ustetan, UPV/EHUko ikerketa taldeen multzoa sistema modura ulertu behar da. Sistema horretan integraturik daude bikaintasun taldeak, erdi mailakoak eta maila apalagoko produkzioa daukatenak. Baina, den denek dute funtzio garrantzitsua. Izan ere, unibertsitatean sortutako doktoreen masak produkzio zientifiko ertaina edo apala duten taldeetan integratzeko aukera izan behar du eta, hartara, talde horiek baliabideak izan behar dituzte aurrera egiteko eta bikaintasun taldeekin zubi lana egin ahal izateko. Gainera, unibertsitate publikoak ikerketa behar du bikaintasunezko hezkuntza eskaini ahal izateko. Ikerketa sistema batek ezin du beren egiteko guztia mundu izar bat sortzera bideratu, oinarria bertan behera utzi ondoren. Jaurlaritzaren politika ikerketa sistema hori ahultzen eta desegiten ari da.

Unibertsitate publikoko BERC[12] baten ikertzaile nagusiak adierazten duenez, politika honen atzean bikaintasuna ulertzeko modu okerra dago. Izan ere, haren ustetan, bikaintasuna ezin da izan onenak saritzea soil soilik. Aitzitik, bikaintasuna ikerketa talde bakoitzari behar dituen baliabideak ematea da taldeak ahalik eta gehiena produzitu dezan. Bikaintasuna, beraz, ahalik eta gehiena ematea da, eskura dauden baliabideak kontuan hartuta.

> **Un tema que me preocupa [es] la polarización que se está haciendo con el dinero para la investigación de excelencia. Porque excelencia para mí es que todos los elementos de un sistema estén bien arraigados, como si fuera un tejido. Hay órganos vitales, que serían aquellos grupos de investigación que son muy potentes y punteros, que necesitan ser nutridos adecuadamente. Pero está pasando [...] y con la última convocatoria de grupos de investigación se ha visto, que hay una polarización tremenda del dinero [...] Creo que estamos cometiendo un error, que es premiar a los excelentes ahogando o dejando morir de inanición al bloque intermedio que no es excelente. Porque la excelencia para mí es un conjunto en el que hay unos grupos que van a la cabeza, pero luego hay varios vagones [...] Y necesitamos distribuir bien los fondos en investigación, porque creo que la universidad necesita investigar si quiere hacer docencia de calidad. Entonces, necesitamos diseñar un sistema en el que hagamos un presupuesto en un continuo, con una serie de dotaciones para los muy excelentes, pero sin dejar a ese grupo intermedio, porque ese grupo intermedio es el que hace gran parte de la formación (E-14, 8).**

Diskurtso akademiko-insituzionalean ez dira ukatzen unibertsitate publikoak dauzkan hainbat hutsune. Neurri batean, arestian aipatu den gizartearen eskakizun zorrotzen gabeziak ondorioak eragin ditu instituzio gisa unibertsitate publikoak izan duen barne bilakaeran ere. Elkarrizketatutako aktore batzuen aburuz, unibertsitatea mundu oso babestua da harreman profesionalei begira. Gune itxia da eta, batzuetan, auto-hausnarketa falta zaio. Barne bilakaerari dagokionez, ez du gizarteari buruzko lotura aski izan behin baino gehiagotan. Eta ez du jakin bere eginkizunak eta jardueren emaitzak gizarteari ondo helarazten.

12 BERC, *Basque Excellence Research Centre*.

Lotura eza horren ondorioz, zurrunduta geratu dira bere egiturak eta kostatu egiten zaio planteamendu berritzaileak gauzatzea.

## 1.4. Euskal unibertsitate sistema (EUS)

UPV/EHU-ren sorrera izan baldin bazen EAEko erakundetze prozesuaren barruan euskal gizartea unibertsitate publikoaz hornitzeko urratsa, 2004an beste pausu bat ematen da EAEko unibertsitateak sistema bakar batean eratzen dituen Euskal Unibertsitate Sistema definitzen duen legea onartzean.

Zer nolako motibazioak eta balioak egon ziren lege horren sorreran? Legearen diseinuan eta formulazioan parte hartutako elkarrizketatu batek adierazten duenez, hainbat ideia-ardatz zeuden legeari eusten zion bulkadan, besteak beste, euskal unibertsitateak sistema bakar baten barruan artikulatzea, Europako goi mailako hezkuntzaren konbergentziaren aurrean euskal unibertsitateak kokapen egokian ipintzea, irakasleria propioa abian jartzea eta euskararen unibertsitate-garapenari berme-gunea ematea.

> **Esango dizut zerk bultzatu gintuen: sistemaren ideiak, hau da, ulertzea unibertsitatea sistema bat bezala. Hemen daukagu unibertsitate publiko bakarra, oso handia dena, aurreko etapa batzuetan planteatu zen unibertsitatea zatitzea campus tematikoen arabera; baina, hori bere momentuan ez zen egin [...] Horrez gain, bazegoen MU, sortu berria zena, eta gero Deustu. Orduan, guk esaten genuen sistema bezala planteatzen badugu askoz ere indar gehiago daukagula, ze horrela gauza batzuk konpartituko ditugu gure esparru honetan, eta horrek indarra emango digu, jakinda bat dela publikoa, beste bat kooperatiba bat dela, eta bestea pribatu-erlijiosoa dela (E-13, 3).**

Arestian aipaturiko ardatz horiek funtsezko jo ziren unibertsitate esparruan kokatutako EAEko unibertsitate guztiei eta haien barneko funtzionamenduari herri ikuspegia emateko, euskal gizartearen zerbitzurako egon zitezen. Hartara, Espainiako unibertsitate esparruaren menpekotasunetik askatzeko tresnatzat hartu zuten legea haren egile batzuek bere sorrera unean. Sistema gauzatu ahal izateko, haren barnean zeuden unibertsitateentzako kontratu-programak planteatu ziren. Kontratu horien arabera unibertsitateek diru bat jaso behar zuten, baina betebehar batzuk ere jartzen zitzaizkien.

Geroztik, legeak berak aurreikusten ez zituen errealitateak agertu dira. Adibidez, bestelako ikerketa eta teknologia guneak sortzen joan dira sistema osatzen zuten unibertsitateetatik at. Lehenago unibertsitatean garatzen zen ikerketaren zati handi bat. Gaur egun, aldiz, ikerketa tokiz aldatu da zentro teknologikoetara, neurri batean. Eta unibertsitate publikoko ikerketa talde gehienak proiektu estrategikoetatik kanpo geratu dira. Era berean, unibertsitatez kanpoko guneetara bideratutako baliabide ekonomikoak garapen eta berrikuntza teknologikoa bultzatzen duten arloetara joan dira, eta horra bakarrik. Eta ez garapen sozialarekin loturik dauden beste arlo batzuetara (gizarte zientziak, giza zientziak). Horrela, arrakala gero eta handiagoa sortu da, batetik, unibertsitateen eta zientzia, teknologia eta berrikuntza sareko erakundeen artean, eta, bestetik, ikerkuntza arloen eta diziplinen artean.

Gaur egunera etorrita, funtzionatzen dute EAEko unibertsitateek sistema modura? Ñabardura txikiak gorabehera, zalantzarik ez dago diskurtso akademiko-insituzionala partekatzen duten gehienen artean euskal unibertsitate sistemari buruzko diagnostikoa egiten denean. EUS, sistema gisa, ez dabilela diote ia aho batez elkarrizketatuek. Halaz ere, aktore akademiko-insituzionalen artean ez dago adostasunik euskal unibertsitateak artikulatzen dituen EAEko legearen inguruan.

Batzuen ustetan, ez da lege egokia, Madrilgo legearen kopia hutsa izan da. Eta ez du ematen inolako aukerarik unibertsitate publikoan kudeaketa interesgarria egiteko. Hain zuzen ere, lege horretan oin hartuta Eusko Jaurlaritzatik asmatu zuen eragin praktikorik gabeko artefaktutzat jotzen da euskal unibertsitate sistema, iritzi honetako hainbat aktore akademiko-insituzionalen argudioan. EAEko markotik harago, Espainiako legeriak arazo are handiagoa jartzen duela, eta unibertsitatearen autonomiak eta benetako garapenak marko horretatik harago joatea eskatuko lukeela irizten da ildo berean.

Gaur gaurkoz, unibertsitate sistemak ez du funtzionatzen. Legez, sistemaren barnean kokatuta dauden unibertsitateak oso desberdinak dira, bai jabetzaz, bai tamainaz eta helburuz. Eta sistemak aurrekontuak banatzeko bidea besterik ez du ematen. Unibertsitate planak ez dira betetzen. Eta sistema batek beharko lukeen unibertsitateen arteko lankidetzarik ez da burutu orain arte. Aitzitik, lehia nagusitu da haien artean.

> **Zer da euskal unibertsitate sistema? EUS da muntaia bat azken legean, Eusko Jaurlaritzak onartutako legean agertzen dena, eta esaten da horren parte izateko unibertsitate bat izan behar zarela, eta izan behar duzula zure egoitza Euskadin [...] Baina [...] sistema bat da gauza bat interkonektatuta dagoena eta helburu batzuk lortu nahi dituena. Eta horretarako denok goaz batera eta elkarrekin lan egiten dugu (...) Hori ez dago hemen [...] Hori da politikoentzat polita den hitz bat [...] Eta gero horrek zer ekartzen du? Aurrekontuetan agertzen direla partida batzuk Mondragon Unibertsitatearentzat, Deusturentzat eta guretzat, eta UNED ere agertzen da. Eta hemen ematen du sistema bat dagoela, baina gezur handia da, ze unibertsitate planak gero ez dira betetzen, eta unibertsitate plana teorian da euskal unibertsitate sistemaren garapenerako [...] Hemen etorkizunean benetan zerbait egin nahi badugu unibertsitate bezala [...] kendu behar dugu lotura guztia Espainiako normatibarekin eta pentsatu behar dugu beste modu batean. Eta badaude adibide pila bat munduan pentsatzeko, galdu barik gure izaera publikoa, baina kudeatzeko beste autonomia batekin eta beste posibilitate batzuekin (E-1, 10).**

Halaz ere, arestian esan bezala, badago legea modu positiboan baloratzen duenik ere. Azken arrazoibide honetan adierazten denez, lege horren bitartez herri mailako apustu bat egin zen. Izan ere, iritzi hori partekatzen dutenek uste dute hezkuntzan eta ikerketan badaudela herri modura egin beharreko apustu batzuk. Eta lege horrek, baita haren ondorioz garatu ziren hainbat dekretuk ere, helburu hori izan zutela irizten diote. Halaz ere, nabarmentzen dutenez, EAEko unibertsitateen egunerokotasuna espainiar estatuaren barruan arautzen da lege eta dekretu bitartez, eredu zentralista baten logikaren barruan. Eta horrek mugatu egiten du EAEko unibertsitatean egin daitekeen kudeaketa, sistema propio bat garatzeko bidean.

> **Guk kapa batzuk jarri ditugu sisteman [...] legearekin, baina oinarrizko makinaria eta funtzionamendua dekretuz egiten da Madriletik. Hau eztabaida funtsezkoa da, zeren unibertsitatea erkidego autonomikoek ordaintzen dute, baina azkenengo komaraino arautzen da dekretuz Madriletik, eta hori ez da Unibertsitatearen Lege Organikoak esaten duena. Unibertsitatearen Lege Organikoak oinarrizko artikulu batzuk dauzka, baina beste gai askotan askatasuna eman behar zaio unibertsitateari funtzionatzeko [...] Dekretuz gobernatzen da Madriletik. Beraz, gaineko sistemaren kapa bat dugu, trakzionatzaile bat izan da, ona izan da lehiakortasunaren ikuspegitik, baina jarraitzen dugu oso estuki dekretu mailako unibertsitate administratibista, napoleoniko oso zorrotz bati lotuta egoten, eta horrela oso zaila da sistema propio bat garatzea (E-19, 6).**

Sistema bat osatzeko aukerak zabaltzen zituen arren, iritzi-ildo honetako aktoreek uste dute unibertsitate publikoa ondo kontsolidatu gabe zegoela oraindik legea indarrean jarri zenean. Eta, adierazten dutenez, harrez geroztik baliabideak egonkortzearen aldeko desafioak unibertsitateen arteko gehiegizko lehia piztu du lankidetzaren ordez. Beraz, zailtasunak daude herri moduan ere, ikerketaren eta beste arlo batzuen inguruan komunitate zientifiko artikulatu bat sortzeko eta indarrak modu sinergikoan erabiltzeko unibertsitateen artean.

> **Uste dut aukera askoz ere gehiago zeudela sistema izateko eta lankidetzan aritzeko, dudarik gabe. Baina, errekurtsoak kontsolidatzearen erronka hain izan da latza unibertsitatearen kontsolidazio fasean, sistema askotan lankidetza aukera bezala baino ikusi izan da errekurtsoengatiko lehiakortasun elementu bat bezala. Horrek distantziatu egin ditu unibertsitateak, eta uste dut benetan transbersalki gai askotan, ikerketan batez ere, aukera zegoela egin behar genuena egiteko, eta hori da Euskal Herriak behar duela ideal bat: erkidegoak gainditzea eta unibertsitateen artean komunitate zientifiko artikulatu bat sortzea. Hezkuntza mailan lehiakorrak izan behar dugu, ikasleak lortzeko disputa sano bat izan behar dugu. Baina, ikerketan ez hainbeste [...] Beraz, hor, dudarik gabe, ikaragarrizko artikulazio falta bat dago sisteman. Baina, errekurtsoen borrokak uste dut eragotzi izan digula lankidetza hori artikulatzea (E-19, 6).**

Baliabide ekonomikoen banaketaren auziak baditu bestelako ertzak ere diskurtso akademiko-insituzionalaren barruan. Deustuko Unibertsitateko elkarrizketatu baten iritziz, badaude egon unibertsitate pribatuak denetarako izan behar duela pribatu pentsatzen duten pertsonak unibertsitate publikoaren barruan, eta, hartara, baliabide publikoak beren osotasunean unibertsitate publikora bideratzearen alde agertzen direnak. Elkarrizketatuaren ustetan, ebatzi gabe dagoen eztabaida soziala da horrako hori. Halaz ere, uste du unibertsitate pribatuari laguntzak ematen zaizkiola politikariek horretarako nahikoa babes sozial dutelako, gaur gaurkoz, eta gizartean neurri bateko adostasuna dagoelako politika horrekin.

## 1.5. Etorkizuneko desafioak eta proposamenak

Narratiba akademiko-insituzionalean aipatzen diren etorkizuneko desafioen artean unibertsitate sendoago bat lortzea dago. Izan ere, elkarrizketatuen aburuz, unibertsitate sendo batek laguntzen du gizartea ere sendo egiten. Hartara, gizarte demokratiko egonkor batean, unibertsitate sendo eta independente batek egon behar du. Erronka ez da erraza, baina. Uste da Euskal Herrian oraindino ez dagoela unibertsitate tradiziorik. Unibertsitate publikoa oso gaztea da eta ibilbide laburrekoa, beste herrialde batzuetako unibertsitate sistemarekin alderatuz gero. Bestalde, ikusten da Espainiako esparruan kokatuta egotea eragozpen bat dela geroko garapenerako, Espainiak unibertsitate tradizio eskasa duelako.

Sendotasun eza hori gainditzen ez den bitartean zaila izango da gizartearen konfiantza ere eskuratzea. Bada, unibertsitate ahul bat izatean, euskal gizartea oraindik ez da ohartu unibertsitate instituzioaren etorkizuna euskal gizartearen geroko garapenari eta ongizateari loturik dagoela.

> **Unibertsitate sendo batek laguntzen du gizartea ere sendo egoten. Ordea, gizartea ahula izan denean, eta gizarte latino asko eta Espainiakoa bereziki urteetan egon dira diktadurapeetan, aldameneko lurraldeak baino askoz gehiago, horrek eragin du gizarte ahul eta unibertsitate ahul bat egotea. Horrek ez du esan nahi unibertsitatea gaizki dagoenik, askoz hobeto dago, baina oraindik ez daukagu unibertsitate sendo bat.**

> **Orduan, nik uste dut gizarteak ikusten duela daukan unibertsitatea, eta oraindik ez duela gehiegi sinesten, agian bizi ez duelako sendoa den unibertsitaterik. Eta hor, pixkanaka, joan behar dugu indartzen, eta indartuago egon ahala transferentzia gehiago egongo da, eta horrek eragingo du gizarte hobeago bat, autoritate hobeago bat, eta demokrazia hobeago bat egotea. [...] Gizarte demokratiko sendo batean [...] unibertsitate sendo eta independente batek ere egon behar du, ez menpekoa (E-23, 4).**

Batzuen ustetan, gizartetik gutxiegi eskatzen zaio unibertsitateari. Unibertsitatea, unibertsitate publikoa bereziki, ez da behar bezala baloratzen. Gizartea egokitu egin da dagoen errealitatera eta hezkuntzazko erakunde moduan ikusten du unibertsitatea, hartara, ez dio besterik galdegiten. Esate baterako, lidergo intelektualeko rol bat hartzea.

> **Berehala akomodatu gara errealitate honetara eta ikusten dugu batez ere hezkuntzako erakunde moduan. Ez diogu eskatzen unibertsitateari ez lidergorik, ez herri kulturaren bultzatzaile izaterik. Ez dugu sentimendu estu bat unibertsitatearekin, ez gaitu irudikatzen idiosinkrasikoki unibertsitateak herri honetan. Eta, pentsatzen jarrita, ez dago beste alternatibarik XXI. mendean. Ez badugu ikurra unibertsitatean jartzen, ez dakit non egingo dugun. Uste dut oso ona izango litzatekela herri honek errekuperatzea unibertsitatearen grina (E-19, 11).**

Unibertsitatea sendotzea eta unibertsitateak gizartearen lidergo intelektuala hartzea, zenbaiten iritzitan, bikaintasunaren lanketari loturiko helburuak dira. Gaur egungo testuinguruan bikaintasuna inperatibo bat da. Bikaintasunaren helburuak moldatze garrantzitsua eskatzen du unibertsitate barruan. Aldaketa hori dagoeneko abian dago. Eskakizun mailak gora egin du irakaskuntzan, ikerkuntzan nahiz kudeaketan. Horretarako, autokritikatik hasi behar da; eraketa moduak aldatu behar dira eta diru hornikuntza bat behar da. Denbora ere bai.

> **Orduan, bikaintasuna da falta zaiguna, eta bikaintasuna da norberarekiko exijentzia, baita ere antolaketa eredua... Eta horrek denbora behar du, legez edo diruz ere ezin da hori inprobisatu. Maila igo behar da, eta kontziente izan behar dugu maila igo behar dela eta modu independentean funtzionatu behar dugula, eta beti autokritika eginez (E-23).**

Unibertsitatea irakaskuntzan oinarritutako eredu batetik ikerkuntzan oinarritutako eredu baterako igarotze unean dago gaur egun. Kalitatezko ikerketa egiteko erronkak, baina, diru inbertsio inportanteak eskatzen ditu. Unibertsitatearen trantsizioa krisi ekonomikoarekin batera gertatu da eta horrek zaildu egiten du aldaketa. Azken urteetan, bestalde, zentro teknologikoei eman zaie lehentasuna ikerkuntzaren aldeko politika publikoetan.

> **Durante años hubo una lógica que era que se daba una subvención a alguna empresa pero para que contratase a un determinado centro tecnológico, es decir, que le daban dinero para que hicieran lo que quisieran hacer, pero lo tenía que hacer un centro tecnológico. Y eso pasó durante 20 años. Fue lo que consiguió que los centros tecnológicos llegasen a tener una relación estable con las empresas, que hubo que construir con esfuerzo [...] Cuando llegó el turno a la universidad, la universidad consideró que ya había pasado la marea docente y se dio cuenta de que hoy en día, para ser una universidad de calidad, con la ANECA, los diferentes sistemas internacionales, etc., si no**

> **produces en resultados de investigación no eres considerada una universidad buena […] En ese momento en el que hay una conciencia al respecto en la universidad es cuando se acaba el dinero (E-25, 5).**

Elkarrizketetan nabarmentzen denez, ez dago inolako parekidetasunik EAEko unibertsitateetako finantziazio maila nazioartean lehian dauden gainerako unibertsitateekin alderatzen denean. Unibertsitatearen nazioartekotzeak baldintza berriak ekarri ditu unibertsitate esparrura, batik bat ikerkuntzara. Argi dago ikerketak diru koste bat duela, eta arazo hori ezin da saihestu. Bikaintasunezko taldeak babesturik daude. Baina, beste esparru batzuetan ere bultzatu egin behar da egokitzapena ikerketan ondo koka daitezen. Eta egokitzapena ezin da baliabiderik gabe gauzatu.

Finantziazioari dagokionez, onartzen da EAEn asimetria handia dagoela zientzian eta teknologian aritzen diren eragile desberdinen artean. Zentro teknologikoek eta CIC deituriko zentroek finantziazio maila handia izan dute. Ildo horretan, Jaurkaritzako industria sailak pisu handia izan duela beti berresten da. Halaz ere, batzuen aburuz, horrek ez du esan nahi Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza sareko eragileek gain-finantzatuta daudenik. Baina, desoreka handia egonik, aho batezko iritzia da unibertsitatera baliabide gehiago bideratu behar dela. Ildo horretan, gogorarazten da oinarri-oinarrizko ikerketa, hau da, merkatu interesetatik gertu ez dagoena, funts publikoekin hornitu behar dela ezinbestean. Aldiz, enpresa emaitzak lortze bidean dagoen ikerketa funts pribatuekin ordain litekela onartzen da. Nolanahi ere, unibertsitatearen fakultate teknologikoetan bi ikerketa mota horien arteko oreka bilatu behar da. Eta, hartara, finantziazio pribatuaren nahiz publikoaren aukera aurreikusten da unibertsitateko disziplina eta esparru batzuetan. Beste batzuetan, aldiz, nahitaezko jotzen da baliabide publikoen bitartez egindako hornikuntza.

> **En las facultades tecnológicas hay que encontrar el mix en ese aspecto, pero claro, si estás investigando en sociología, en sociolingüística, etc., pretender que una empresa te lo pague es muy difícil; o te lo paga un fondo público, o una empresa a modo de mecenazgo (E-25, 6).**

Kalitatezko ikerkuntzan sakontzearekin batera, eta hari lotuta, unibertsitateak duen desafio garrantzitsuenetakoa da berrikuntzari dagokionez ere lidergo soziala berreskuratzea. Hala adierazten dute narratiba akademiko-insituzionalean kokaturiko aktore sozial batzuek. Aktore horiek berrikuntzari ematen dioten adiera ez da zientzian eta teknologian eragindako aldaketetara mugatzen. Argi adierazten dutenez, egia da orain urte batzuk berrikuntza modu oso murriztailean neurtzen zela. Gaur egun, ordea, berrikuntza sozialaren kontzeptua aldarrikatu behar da. Izan ere, ezin dira berezi alde batetik Ikerkuntza, garapena eta berrikuntza eta, bestetik, gizartearen garapena. Dena da ezagutza, eta ezagutzak gizarteko esparru desberdinak hartzen eta eraldatzen ditu. Elkarrizketatu batek gogoratzen duenez, industria iraultza ezin da ulertu frantziar iraultza aintzat hartu gabe. Ildo beretik, elkarrizketatu batzuek gogoratzen dute gizarte zientzien aldeko apustua egiteko beharra geroari begira.

> **Gizarte zientzien apustua egin behar da herri honetan, apustu argia eta serioa. Galduta daukagu hegemonia unibertsitatearen barruan, gizarte zientzietan ez daukagu egitura nahikorik. Ez daukagu sinistuta benetan asko eman dezakegunik, eta horretarako programa espezifikoak behar ditugu (E-19, 12).**

Ikerkuntzan eta berrikuntzan egindako inbertsioa ez dela diru galdua azaldu behar zaio gizarteari, narratiba akademiko-insituzionalaren barruan kokatzen diren aktore sozial batzuen iritziz. Nazio Produk-

tu Gordinaren arabera ikerkuntzan egindako inbertsioa lehiakortasun faktore bat dela erakutsi behar da. Munduan sortzen ari diren ezagutza-polo indartsuek ezagutza-ekosistema trinkoak eratu dituzte euren inguruan. Eta hor unibertsitateak ere badaude. Polo horien inguruan izugarrizko garapena, ekonomikoa eta soziala, gauzatzen ari da gaur egun. Ildo horretan, batzuek uste dute unibertsitateak ez duela jakin errealitate hori komunikatzen ez gizarteari ezta politikariei ere. Eta unibertsitateak gizarte garapenean daukan zeregin garrantzitsuari buruzko uste oso hori gizartean zabaltzea litzateke, horrenbestez, beste desafioetako bat.

> **Cuando es evidente que en los polos de conocimiento del mundo, donde se está concentrando este conocimiento, a su alrededor se está generando una prosperidad económica imbatible, ¿cómo no somos capaces de trasladar esto a la sociedad, a los políticos y a las empresas para que den este paso? [...] Igual es que nos estamos explicando mal y tenemos que pensar cómo debemos explicar las cosas a la sociedad [...] con un lenguaje que la sociedad entienda. Porque si la sociedad lo entiende, premiará a los políticos que lo hagan y castigará a los que no lo hagan [...] También hay que trabajar cómo hacemos que los medios de comunicación nos ayuden a eso. Ya te digo, echar la culpa a los políticos o a los empresarios es lo más fácil. Y yo creo que en la universidad tenemos que hacer muchos deberes en esta dirección, en ver cómo nos explicamos también (E-25, 11).**

Oro har, diskurtso akademiko-insituzionalean gizartearekiko harremana eta transferentzia sistema hobetu beharra ikusten da etorkizunari begira. Eginkizun horrek barnean hartzen ditu beste zeregin batzuk ere, batik bat industriaren eta hezkuntzaren arteko lankidetza gauzatzea.

> **Hobetu behar da gure transferentzia sistema. Errepaso bat egin behar dugu dauzkagun egiturena eta egin ditugun apustuena, eta transferentzia sistema hori benetan egokitu behar da. Baina, hori egituratze arazo bat da, eta horrek eskatzen du lankidetza bat industriaren eta hezkuntzaren artean, gaur egun ez dagoena (E-19, 12).**

## 1.6. Nabarmendutako balioak

Antolakuntza-balioak, balio profesionalak eta balio sozio-politikoak dira nagusi diskurtso akademiko-instituzionalean: autonomia, erantzukizun instituzionala, profesionaltasuna, publikotasuna, gizarteari-herriari zerbitzua (transferentzia gizartera), kalitatea, berrikuntza, irekitasuna, aniztasuna, kohesio soziala, garapena (zientifikoa, soziala, ekonomikoa), berdintasuna (klase berdintasuna, genero berdintasuna), euskara, nazioartekotze akademiko-zientifikoa.

# 2. Diskurtso tekniko-ekonomikoa

## 2.1. Elkarrizketatuen kokapena euskal unibertsitate esparruan

Diskurtso tekniko-ekonomiko izendatutako narratiba sortzen duten aktore sozialek gizarteko esparru ekonomikoan eta teknologikoan jarduten dute. Formakuntzaz, ingeniariak, ekonomialariak eta enpresa munduko profesionalak dira, batik bat. Batzuk unibertsitatean aritzen dira, berrikuntzara bideratutako unibertsitate institutuetan, adibidez; beste batzuk unibertsitatez kanpoko aholkularitzan eta ikerketan, eta, azkenik, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren euskal sareko erakundeetan eta bestelako kultura elkarteetan. Gaur egun edo iraganean MU, Deustu eta UPV/EHUn ikasle edo profesional moduan aritutakoak dira gehienak, batzuk unibertsitate batean baino gehiagotan ibilitakoak. Nagusi dira, hala ere, MUrekin eta Deusturekin harreman profesionala dutenak. Aktore horietako batzuen ibilbidea lotuta dago enpresa munduari, zenbaitzuek Euskal Herrian kokaturiko enpresa garrantzitsuen administrazio kontseiluetan eta patronalaren erakundeetan parte hartu dute, eta hainbatek kargu politikoak bete dituzte foru aldundietan nahiz Jaurlaritzan. Edonola ere, gaur egun unibertsitate barruan nahiz kanpoan egon, unibertsitate esparruan edo unibertsitatearen eraginean inplikaturiko *stakehorlder* gisa hartu dira.

Atal honetan ikusi ahal izango denez, narratiba tekniko-ekonomikoan biltzen diren aktoreen ezaugarri nabarmena da unibertsitate publikoaz duten ikuspegi kritikoa. Adierazpen kritikoen atzean, jakina, aktoreen kokapen soziala txertatu behar da, eta kokapen horiei lotuta dauden interesak eta balioak. Ez narratiba honetan ezta azterketa honetan aurkezturiko gainerakoetan ere, ez dago ikuspegiaren neutraltasuna bermatzen duen kokapenik, ikuspegi kokatuak baizik.

> **Nik MU ezagutzen dut gehien bat. MUkoa naiz, eta hango filosofiarekin ados nago. MU-ren diskurtsoa izaten da: praktikotasuna, batik bat enpresaren zerbitzura, Euskal Herriko sistema tekniko-produktibo berritzailearen alde lan egiteko, eta Jaurlaritzak egiten dituen politiken aginduetara (E-8, 12).**

## 2.2. Eraldaketa ulertzeko modua

Diskurtso honen ezaugarri nagusietako bat hauxe da: Euskal Herriko produkzio egitura industrian oinarrituta dago, oroz gain. Lehiakortasun handiko merkatu ekonomian txertaturik daude euskal enpresak, eta merkatuaren beharrizan aldakorretara egokitzeko prest egon behar dute eten gabe. Hortaz, eraldaketa gaur egun enpresaren munduan eta, oro har, esparru ekonomikoan gauzatzen da, transformazioa berrikuntza teknologiko modura ulertzen delako, batik bat. Eraldaketa hori, gainera, oso azkarra da ekonomia globalaren baldintzetan. Enpresaren eta ekonomiaren beharrak oso arin aldatzen dira, eta erritmo horri erantzun beharra dago euskal ekonomiaren lehiakortasuna bermatu nahi bada.

Horrenbestez, eraldaketa ez da ulertzen gizarte osoari eta, bereziki, gizarte zibilaren garapenari edo ongizateari loturik. Berbarako, ez da «berrikuntza sozialaren» kontzeptua integratzen diskurtsoan, ezta «giza garapenarena» ere. Garapen soziala eta giza garapena garapen ekonomikoaren berezko emaitzatzat jotzen dira. Eta ez dira unibertsitatearen jardueraren helburutzat jotzen. Beraz, fokua eraldaketaren dimen-

tsio ekonomikoan eta teknologikoan jartzen da, eta horietara bideratzen dira unibertsitateari egiten zaizkion eskariak eta hobekuntza proposamenak. Eraldaketa ekonomikoa da gizarteko beste esparru guztien motore eta eragile, eta eraldaketa hori elikatzera bideraturik egon behar dute gizarteko instituzioak, goi mailako hezkuntza-instituzioak barne.

> **Ni ideologikoki apur bat materialista naiz [...], oinarrizko ekonomiak baldintzatzen du beste guztia (E-8, 10).**

Ekonomian gauzatzen diren aldaketa azkarren aldean oso atzeratuta geratu dela egungo unibertsitatea deritzote diskurtso-ildo honetan kokaturiko aktore sozialek. Unibertsitatea aldatzen ari da, bai. Baina, ez behar besteko erritmoan, hau da garapen eta berrikuntza ekonomikoek eskatzen duten bizkortasunez. Atzerapen horren oinarrian bere ingurumenera zabaltzeko unibertsitateak dauzkan mugak antzematen dira, baita gehiegi hazi den instituzio baten erritmo geldoa eta malgutasun eza ere.

> **Nik konparatzen baldin badut unibertsitateak berak egin duen aldaketa Euskal Herrian ditugun enpresek egin dituzten aldaketekin esango nuke unibertsitate dagoela kuaternarioan. Enpresak zergatik egin ditu aldaketa horiek? Beharrak zituelako. Eta zeintzuk ziren behar horiek? Bere kanpoan egon diren aldaketei erantzun bat ematea. Orduan nik eraman badut diskurtso hori unibertsitatera, eta aldatu baldin ez bada, horrek esan nahi du bere burua ez dagoela pentsatzen gizartean gertatzen ari diren aldaketetan, eta ez dagoela gizartean dauden beharrei begira (E-8, 5).**

Hartara, unibertsitatearen betebeharra irizpide ekonomikoen arabera juzgatzen da, eta haren emaitzak edo ustezko eraginak tokiko nahiz nazioarteko etekin neurgarrien argitara ulertzen dira. Adierazle desberdinez osaturiko ranking-ak eta sailkapenak aipatzen dira euskal unibertsitateek garapen ekonomikoaren mailaren aldean duten  egoera gibeleratuaren erakusle.

> **Horretarako sailkapenak daude. Enpresa berrikuntzaren perspektiban joaten bagara Europako sailkapenetara, EAE dago nahiko ondo. Uste dut 260 erregio daudela Europar Batasunean, ba EAE lehenengo 50en artean dago, eta hori lortu dugu. Joaten bazara osasun sistemetara oso ondo daude. Joaten bagara unibertsitateen sailkapenetara, Shangaiko ranking-era, adibidez, eta ez gara azaltzen, kostatzen zaigu maila horretan azaltzea (E-8,12).**

Zer esanik ez, enpresaren munduaren premietara lerraturik egotean, ikuspegi horrek ezagutzaren esparru jakin batzuk lehenesten ditu ezagutza guztien artean eta, zehazki, unibertsitatearen barruan ere, hain zuzen ingeniaritzatik eta teknologiatik, zientzia esperimentaletatik eta ekonomiatik datozenak, eta bazterreko ezagutzatzat hartzen ditu, berriz, gizarte eta  giza zientzietan jatorria daukatenak. Esan nahi baita, ez ditu aintzat hartzen azken horietatik etor litezkeen eraldaketarako edo berrikuntzarako ekarpenak. Ez dira aurreikusten gizartetik esparru horiei zuzenduta egon litezkeen eskariak ere, ez badira aktore ekonomikoek edo enpresakoak egindakoek. Horiek horrela, gaur egungo unibertsitateek (bereziki publikoak) hartutako gehiegizko dimentsioaren iturritzat hartzen dira diziplina horiek. Hartara, diskurtso honek hierarkia inplizituak ezartzen ditu fakultate, diziplina eta mota bateko eta besteko irakasle-ikertzaileen nahiz ikasleen artean.

> **Badaude fakultate batzuk eragin handiagoa daukatenak inguruan [...] ingeniaritzakoak eta ekonomiakoak. Gizarte zientzietakoak agian daude gehiago azterketak egi-**

> **tera, eta horrek ez dakit eragin gehiago daukan aldaketak egiteko [...] egon dira gehiago ikerketan parte hartzen, baina askotan ez gizarteak eskatzen dituen ikerketak [...] noski direla baliagarriak, baina urrunago ikusten da, ze normalean epe luzeagoko emaitzak emango ditu [...] [gizartean eta kulturan] gertatu diren aldaketak lortu dira unibertsitatearen eraginez edo gertaeren eraginez? Edo azaldu diren gauzek erakusten dute behar bat dagoela? [...] uste dut hausnarketa batzuk [gizartetik] urrutiago gelditzen direla, eta behar dute beste dinamika bat gizartera iristeko (E-10, 4, 6).**

Logika berari jarraiki, beste edozein irizpideren gainetik irizpide ekonomikoa hartzen da unibertsitateak izan dezakeen inpaktuaren neurgarri. Errentagarritasuna eta koste-etekin harremanak, lortutako onura materialen arabera balioesten dira (ekonomikoak, teknologikoak eta abar). Eta uste zabala da irizpide hori aplikatu behar zaiola giza baliabideen kudeaketari ere, eredu gerentzialisten ildotik: langileen kontrola, emaitza kuantifikagarrien kontularitza eta ebaluazioa barne.

> **Gauza da zuk ikusten badituzu EUSTAT-en dauden orduak edo pertsona baliokideak eta gero lortzen diren argitalpenak, eta horien arteko erlazioa ikusten duzu eta beste erkidegoekin konparatzen baldin bagara, oso behean gaude [...] Ziur aski badagoela jendea ez duena ikerketarik egiten, edo behar bada falta da «partes de actividad» bezala kontabilizatzea, guk egiten dugun bezala (E-9, 2, 3).**

Hari horretatik, ingeniaritza ekonomikoaren kontzeptuak gailentzen dira diskurtsoan: giza baliabideen eta baliabide materialen kudeaketa eraginkorra, baliabideen optimizazioa eta efizientzia kontzeptuak, adibidez, sarri agertzen dira narratiban. Azpimarratzekoa da eraginkortasun ezaren paradigma gisa UPV/EHUri buruzko iritzi kritiko aski zabaldua, eta unibertsitate publikoari egozten zaion gehiegizko hazkuntzaren argudioak hartutako pisua diskurtsoaren barruan, «inbertsio handiegia emaitza urriak» ideiaren ildoan.

> **Gaur egun uste dut ez dela eraldaketarako eragile bat. Berrikuntzarik ez da gertatzen unibertsitatean. Zenbat enpresek hartzen dute unibertsitatearen ikerketa beraien berrikuntza egiteko? Zeintzuk dira transferentzia kontratuak? Ze diru portzentaje dago hor? Oso baxua (E-9, 3).**

> **Ni egon naiz Leioako campusean. Eta ikusten dituzu izugarrizko eraikinak eta toki asko hutsik daude [...] azpiegitura asko eta bizitza gutxi [...] hori lotuta dago «dena eman behar zaio unibertsitate publikoari» ideiarekin, publikoa delako. Eta nik esaten dut: zertarako? [...] Zer izan behar da handia? Eraikinak ala barruan dagoena? [...] Ez dut zalantzan jarri nahi unibertsitate publikoaren beharra, nik zalantzan jartzen dut zer izan behar duen eta nola kudeatu behar den [...] Zergatik kostatzen du hainbeste? Nik uste dut efizientzia optimizatzearen aldetik etorriko dela gerturatzea bizitza errealean gertatzen diren gauzetara, kendu gabe izate publiko hori (E-10, 9, 10).**

## 2.3. Unibertsitatearen diagnostikoa

Oro har, diskurtso ekonomikoan enpresaren ikuspegia nagusitzen da unibertsitateari dagokionez. Ikuspegi horren arabera, unibertsitate esparrua gehiegi araututa dagoen espazio sozial gisa deskribatzen da. Uste da Erkidego Autonomoko unibertsitateak sistema itxi eta gehiegi erregulatuak direla eta horrek zail-

tasunak sortzen dizkiela, ikaragarri kostatzen zaielako beren ekosistema horretatik irtetea eta «kanpora» (alegia, enpresara, merkatura) irekitzea eta egokitzea.

Ildo berean, unibertsitatea merkatu ekonomikoaren tresna modura hautematen da, eta narratiban kokatzen direnen iritziz, helburu horretara bideratu beharko litzateke haren egituraren eta funtzionamenduaren muina. Ingeniaritzaren logika oso txertatuta dago unibertsitatearen eginkizunak ulertzeko modu horretan.

> **Nire perspektiba beti da [...] enpresa mundutik datorkidan perspektiba [...] Guk ikasten genuen arazoak konpontzen. Guk ez genuen ikasten metafisika edo espekulatzeko, gurea zen arazoak eta gauza konkretuak konpontzea, normalean, gauza teknikoak. (E-8, 3).**

Diskurtso honen barruan kokaturiko elkarrizketatu batzuek azken urteetan unibertsitate esparruan gertatutako zenbait aldaketa jarri dituzte agerian. Horien artean, aipatu dira unibertsitate sistema propioa eraikitzeko egindako ahaleginak, euskararen integrazioa goi mailako hezkuntzan eta, ezagutzaren transmisiotik gaitasunetara irakaskuntzan egindako igarobidea, baita talde lanaren hedapena ere ikerketan, eta prestakuntza dualaren hasiera. Halaz ere, askoz gehiago dira unibertsitatearen ezintasunari buruz azaldutako iritziak lorpenei buruz nabarmendutakoak baino, diskurtso ekonomikoaren perspektiban. Eta zalantzan jartzen da eraldaketa sozialak eragiteko edo eraldaketen buruzagitza hartzeko gaitasuna izan dezakeenik unibertsitateak.

Hari horretatik, gaur egungo unibertsitatearen hutsuneak nabarmentzen dira ekarpenen gainetik. Oro har, unibertsitateari buruzko ikuspegi ezkorra gailentzen da. Batik bat, UPV/EHU-ri buruzkoa. Gizartea bere osotasunean hartuta, ez zaio unibertsitateari eraldaketa sozialak egiteko ahalmenik onartzen gaur egun. Unibertsitatearen inertziak haren eginkizun nagusietan islatzen dira, bai irakaskuntzan bai ikerkuntzan. Irakaskuntzari dagokionez, gizartean eta lan merkatuan ustez erabilgarriak ez diren ikasketen eskaintza larregi hazi dela salatzen da. Hala, ikuspegi ekonomiko-utilitarista erabiltzen da gizarte zientzietako eta humanitateetako ildoetan dauden ikasketak eta ikasleak ezaugarritzeko.

> **Salbuespenak salbuespen, jendea dago unibertsitatean pasatzen dituen urteetan denbora pasatzen. Gero, esparruaren arabera, ezberdina da; ikasketa teknikoetan beste pertzepzio bat dago, baina gizarte zientzien munduan... Nik esango nuke oinarrizko zientzien eta zientzia aplikatuetako esparruan Euskal Herriko eskolen eta fakultateen irudia ona dela [...] Beste gauza bat da gizarte zientziez hitz egitea. Nik hor ezberdinduko nituzke enpresa-zientziak eta gizarte zientziak orokorrean [...] Euskal Herriko egitura produktiboa da den bezalakoa. Gero, gizarte zientziak orokorrean..., eso ya se nos escapa, eta arteak eta humanitateak, berdin (E-8, 11).**

Prestakuntzan bezala, ikerkuntzari dagokionez ere, errealitate sozioekonomikotik urrun funtzionatu izana egozten zaio unibertsitateari. Ildo horretan, unibertsitateak produkzio sistemari eta enpresen premia teknologikoei behar besteko azkartasunez egokitzeko gaitasunik ez duela berresten da behin eta berriro elkarrizketatuen adierazpenetan. Zenbaiten ustez, unibertsitatean egindako ikerkuntza krisian dago. Iritzi horren arabera, unibertsitatearen zeregin nagusia gero eta gehiago zentratu behar da prestakuntzan eta ez ikerkuntzan. Azken zeregin hori lekuz aldatzen joan da azken urteetan, eta, arian-arian, zientzia eta teknologia sareko erakundeek eta enpresek berenganatu dute orain arte unibertsitateak betetzen zuen funtzioaren zati bat. Era berean, erakunde horietara bideratu dira administrazio publikoen berrikuntzarako estrategia politikoak eta funtsak.

Horrenbestez, unibertsitatearen ohiko eginkizunak prestakuntza, ikerkuntza eta, oro har, ezagutzaren ekoizpena izan baldin badira, narratiba honen sortzaileek uste dute paradigma aldatzen ari dela. Hartara, ezagutzaren sorrera eta ikerkuntza, baita prestakuntza ere, neurri batean, unibertsitatetik at kokatzen ari direla nabarmentzen dute, eta unibertsitatetik kanpoko aktore sozialek eskuratu dutela azken urteotan eginkizun horien zati bat, bereziki ikerkuntzari dagokiona. Izan ere, ikuspegi honen arabera, ikerketak eraldaketa teknologiko-ekonomikoaren zerbitzura, eta horretara bideraturik ororen gain, egon behar du. Horrela, ikerketa zentroetan, enpresetan, goi mailako institutuetan eta abar kokatzen ari da ikerketa lana, eta erakunde horiekin guztiekin lankidetzan baino lehian ari dira unibertsitateak.

Unibertsitateari egotzitako malgutasun ezaren arrazoiei dagokienez, bat datoz diskurtso ildo honetan kokaturiko elkarrizketatuak egindako diagnostikoan. Hainbat arrazoi aipatzen dira. Funtsean, unibertsitate publikoari gehiegi hazi izana egozten zaio, eta tamaina horretako antolakuntzak berez dakartzan inertzia eta aldaketaren aurreko erresistentziak adierazten dira. Euskal unibertsitateei, oro har, gehiegizko barne zatiketa esleitzen zaie ezaugarri kaltegarri moduan. Ikastetxeek, sailek, institutuek eta gainerako arloek askotariko interesak eta estrategiak garatzen dituzte, askotariko diziplinak eta jarduerak ordezkatzen dituzte, eta horien arteko botere harremanak eta lehiak gauzatzen dira etenik gabe. Zatiketa horrek norabide berean jarri beharreko indarrak ahultzen ditu, eta gobernantza zailtzen du. Azkenik, unibertsitatearen joera endogamikoa aipatzen da. Ezaugarri horrek ere ez dio uzten inguruko errealitateari buruzko beharrezko irekitasuna izaten, bereziki enpresa errealitatearekin.

> **Ikusten dut oso autozentratuta bezala dagoela; bere buruari begira dago ea nola antolatu behar den [...] eta kezka edo aipamen gutxi ikusten dut egiten dena nola zabaltzeari begira (E-4, 6).**

> **Unibertsitatea gaur egun da karrera [...] endogamikoa. Pertsona batek ikasten du unibertsitatean, doktoretza egiten du eta bere irtenbide bat da ikerlaria eta irakaslea izatea unibertsitatean, baina kanpoko munduarekin harremanik ez dauka (E-8, 4).**

## 2.4. Euskal unibertsitate sistema (EUS)

Elkarrizketatu gehienen ustetan, euskal unibertsitate sistema UPV/EHU-k, Deustuko Unibertsitateak eta MU-k osatzen dute. Zenbaitek Nafarroako unibertsitateak ere kokatzen dituzte EUS-aren barnean. Azken horiek diotenez, EAEko errealitateari erantzuten dion sistema izanda, nahiago dute «unibertsitate sistema» kontzeptua erabili eta ez euskal unibertsitate sistema.

Aipatu unibertsitateei ezaugarri bereizgarriak esleitzen zaizkie. Hala, MU unibertsitate txiki eta tokiko inguruan sakonki sustraituta dagoen entitate gisa deskribatzen da, enpresari eta enpresa berrikuntzari lotu-lotua. Horrenbestez, bere jarduera, bai prestakuntzaren eta bai ikerketaren aldetik, inguruko errealitateari atxikirik hautematen da. Deustuko Unibertsitatea tradizio ibilbide batetik datorkion prestigioa landu duen unibertsitate elitista moduan ikusten da prestakuntzari dagokionez, nahiz eta azaltzen den azken urteetan izan duen masifikazio prozesua. Ikerketan, aldiz, ez dago maila berean, azken aldian asko hobetu duen arren. Azkenik, UPV/EHU gehiegi hazitako erakunde handi gisa deskribatzen da, funtzio soziala bete arren (bereziki, irakaskuntzari dagokionez) errealitate ekonomiko aldakorrari egokitzeko zailtasunak izan dituena ikerkuntzan eta transferentzian.

Sistema orok beren barneko osagaien arteko harremanak hartzen baditu ezinbestekotzat, narratibaren barruan aho batez nagusitu den diagnostikoak argi utzi du ez dagoela aipatu unibertsitateen arteko ha-

rreman sendorik. Ez, behintzat, harreman horiek lankidetza moduan ulertzen badira. Eta ez, gainera, harremanak erakundeen eskalan hartzen badira. Hutsune hori gainditu beharreko arazo moduan definitzen da. Horrek ez du esan nahi bateko edo besteko ikertzaileek eurenak ez diren unibertsitateetako lan taldeetan parte hartzen ez dutenik. Baina, erakunde gisako lankidetza estrategikorik ez dago. Gehien jota, harreman pertsonaletatik abiatu daitekeela pentsatzen da.

> **Unibertsitatea, niretzat, «reinos de taifas» bilduma bat da, de «jefecillos», erabat zatituta dagoena, eta zuk harremana egin behar duzu maila pertsonal batean. Ez du balio maila instituzionalak (E-8, 3).**

Lankidetzaren ordez lehiaren ideia gailentzen da unibertsitateen arteko harremana definitzean. Euskal unibertsitateak finantza-baliabideak eta ikasleak erakartzeko lehia bizian aritzen dira, eta horrek oztopatu egiten du elkarren arteko lana.

> **Nik esango nuke Euskal Herriko unibertsitate sistema dela paperean dagoen gauza bat, baina praxian oso zaila dela hori gauzatzea, gaur egun dauzkagun unibertsitateak bata bestearekin lehia gogor batean bizi direlako [...] Errealitatean denak ari dira daukagun diru-kutxa publikotik ea nork ateratzen duen kopuru gehien, eta horrek baldintzatzen du beste guztia (E-8, 7).**

> **Unibertsitateek eurek beraien artean lehia dute, ikasleak gutxitzen doaz eta bakoitzak erakarri behar ditu (E-4, 8).**

Aurrera begira ere denek ez dute erraz ikusten hiru unibertsitateen arteko elkar lana. Besteak beste unibertsitate bakoitzak jatorri jakin bat, izaera bat (publikoa ala pribatua) eta irauteko estrategia desberdinak dituelako.

> **EHU-k dirua lortu behar du Eusko Jaurlaritzatik, eta eskaini behar ditu ikasketa batzuk nahiz eta ez egon ikaslerik. Aldiz, Deustu pribatua da, eta eskainiko ditu ikasketa batzuk baldin eta eskaera dagoen. MU dago kooperatiben munduari lotuta, beraz, ulertzen dut eskainiko diola bere mundu horri erantzun bat eduki ditzaketen arazoentzat. Hiru ereduak diferenteak dira. Ez dut esaten ezin dela koordinazioa lortu beraien artean edukien aldetik edo arlo batzuetan, baina, haratago joanda, zailago iruditzen zait (E-10, 5).**

## 2.5. Etorkizunerako desafioak eta proposamenak

Etorkizunerako erronkak aztertzean, diskurtso honetan kokatzen diren aktore batzuek auzi politiko baten aurrean gaudela nabarmentzen dute. Izan ere, uste dute ikuspegi estrategiko bat garatu behar dela euskal unibertsitateei dagokienez, eta politikariek ausardiaz analizatu behar dituztela dauden desafioak, eta egoera aztertu ondoren, horren araberako erabakiak hartu.

> **Inportanteena da lehenago oso ondo aztertzea arazoak eta irtenbideak eta, ahal den neurrian, kontsentsuarekin horiek bideratzea. Gauza batzuk arlo publikotik oso modu zuzenean egin daitezke; beste batzuk, batez ere erakunde pribatuez ari baga-**

> **ra, kontsentsuaren bidez edo pizgarri batzuen bidez. Baina, inportanteena da benetako gogoa egotea klase politikoaren aldetik, eta ausardia izatea gauzak mugitzeko. Lehen aipatu dugun finantziazioa [adibidez]. (E-7, 10).**

Beste batzuen ustez unibertsitateen esparrua, oro har, desarautu egin behar da. Eta deszentralizatu. Ez da argi zehazten desarautze horrek zer ekarriko lukeen unibertsitate publikoari dagokionez. Edozelan ere, horren helburua litzateke askatasun handiagoa ematea unibertsitate bakoitzari eta unibertsitateen barruan dauden institutu, ikastetxe eta entitateei, baita akademikoei ere, enpresekin era desberdinetako harremanak ezartzeko. Ildo horretan, planteatzen da interes pribatuen eta publikoen hibridazioa litzatekela orain daukagun egoeratik irteteko bidea.

Ikus dezagun nola gauzatzen den proposamen hori unibertsitateen eginkizun orokorretan eta haren gobernantzan.

## 2.5.1. Prestakuntzaren arloan

Prestakuntza jotzen da unibertsitatearen bere-berezko zereginen artean lehena. Badaude goi mailako prestakuntzaz arduratu daitezkeen bestelako entitateak ere (adibidez, etengabeko prestakuntzan aritu daitezke enpresak eta beste erakunde batzuk), baina oinarrizko irakaskuntza unibertsitateari dagokio.

> **Badago jakintza bat, handia dena, lanean bertan hartu dezakezuna etengabeko prestakuntzarekin, edo software jakin batzuen erabilerarekin lotuta daudenak, baina oinarrizko ezagutza..., unibertsitatetik ez baduzu zenbait gauza jasotzen, gauza horiek gero enpresan jasotzea oso zaila da. Orduan, hor badago oinarrizko jakintza bat unibertsitateak eman ahal dizuna, eta gainera laguntzen duena gero ulertzen praktikarekin lotuago dauden beste alor batzuk (E-4, 8).**

> **Unibertsitateak enpresarekiko daukan misioa batez ere formakuntzan dago, baina ez berrikuntzan, hori argi daukat (E-9, 3).**

Goian aipaturiko ildotik, gaur egungo ikasketak gehiegi egituraturik daudela uste da. Ikasketak aurredefiniturik daude eta horrek unibertsitateak beharko lukeen malgutasuna eta errealitate aldakorrari erantzuteko gaitasuna eragozten du. Bestalde, merkatuko eta enpresetako aldaketa azkarrei erantzun ahal izateko etengabeko prestakuntza bermatzeko neurriak hartu behar dira, narratibaren argudio-bidearen arabera. Hain justu, lanaren mundua eta unibertsitate-eskaintza hurbiltzera zuzendurik daude diskurtso tekniko-ekonomikoaren barruan jasotako iradokizun gehienak. Helburu edo asmo bakar bat partekatzen dute denek, alegia, langileek etorkizunean beharko dituzten gaitasunak eskuratzeko espazio egokiak izan daitezela euskal unibertsitateak. Izan ere, ekonomiaren dinamikaren arabera kontuan hartzen da bizitzako etapa desberdinetan beren gaitasunak eguneratzen ibili beharko dutela pertsonek hemendik aurrera. Prestakuntza ez da dagoeneko unibertsitatean gaztetan gauzatzen den ikastaldi bat, gero lan munduan integratzeko balio duena. Prestakuntzak ez du amaierarik gaur egungo lan baldintzetan eta eten gabe eguneratu behar da pertsonen bizitzan zehar.

Aldakortasunaren eta malgutasunaren ildo horretan, hainbat proposamen aipatu dituzte elkarrizketatuek. Lehendabizi, graduez eta orain arauturik dauden ikasketez gain modulukako irakaskuntza-eskaintza zabaltzea unibertsitateetan, edozein adinetako ikasleen etengabeko prestakuntza erraztuko lukeena

bizitzako edozein unetan, eta askotariko premia eta interesak asetzeko egokiturik legokeena. Bigarrenik, dagoeneko beste toki batzuetan ezarritako ereduei jarraiki, on-line ikasketen eskaintza ziurtatzea. Modu horretan ere lanean ari diren adin guztietako pertsonei eman ahal izango litzaiekelako zerbitzua unibertsitatetan. Eta, azkenik, lanbide heziketaren eta unibertsitate irakaskuntzaren arteko lotura estuak edo, areago, igarobideak eraikitzea eta, horrekin batera, lanbide heziketako ereduak eramatea unibertsitatera, gaur egun gradu dualekin ireki den bidean sakonduta, esaterako.

> **Unibertsitateak desagertuko dira noizbait. Ez dira orain ezagutzen ditugun modukoak, hau da era fisiko eta egituratu batean. Teknologia berriek dakartzaten berrikuntzekin... (... gaur egun prestakuntza etengabekoa izan behar da, gauzak aldatzen direlako eta, horrez gain, momentu bakoitzen dituzun arazoetara bideratuta egon behar da [...] Berriro ere malgutasunaren eremura goaz (E-8, 13).**

On-line ikasketak eskaintzeko proposamenaren haritik, hainbatek aipatu dituzte gaur egun dagoeneko alferrik galdu diren aukerak, besteak beste, Euskal Herritik hurbil dauden beste unibertsitate batzuen eskaintzak euskal gazte tituludunak erakartzen ari direlako modu gero eta nabarmenagoan. Uste da gaur egun ezarrita dagoen unibertsitateen arteko lehia bizian malgutasuna izan behar dela bai premia berriak detektatzeko bai beharrezko eskaintza premia horietara ahalik eta arinen egokitzeko.

> **Aldaketa teknologikoak [...] posible egiten ditu gauza batzuk, orain arte pentsaezinak zirenak. Esate baterako, on-line ikasketak. Adibidez, CAP deritzon titulu hori [...] Nik nire inguruan sumatu dut jendea Errrioxako unibertsitatean eta Valentziakoan egin dutela, on-line eskaintzen dutelako. Eta uste dut hori kriston negozioa dela. Orduan hori lehia da, euskal unibertsitate sistemarentzat kriston lehia da hori [...] Suposatzen dut holako olatuak harrapatzeko malgua izan behar duzula [...] Gaur egun badago deslokalizazioa edozein alorretan, orduan, argi ez bazabiltza galtzen duzu [...] Europan mugikortasuna geroz eta errazagoa izango da, orduan, horren aurrean edo oso ondo kokatuta zaude eta oso azkarra zara, edo bestela ikasleak galtzeko aukera handia duzu (E-4, 11).**

Diskurtso honen logikaren ildotik, unibertsitate tituludun askoren gaur egungo gain-kualifikazioaren auzia ere unibertsitatearen prestakuntzaren egokitze premiari lotuta ulertu behar da. Hala, proposaturiko unibertsitate prestakuntza enpresei itsatsita egotean, lan merkatuko eskariaren eta langileen prestakuntzaren arteko doikuntza askoz ere handiagoa litzatekela pentsatzen da. Ildo beretik, uste da unibertsitate ikasketen esparru batzuk gehiegi hazita daudela, bereziki gizarte- eta giza-zientzietakoak. Eta iradokitzen da ikasketa horietara bideratzen diren ikasleei beste aukera bat eman beharko litzaiekela enplegagarritasuna bermaturik dauden esparruetan, eta horretarako ere, beharrezkoa litzatekela lanbide heziketari prestigioa ematea gizartean eta unibertsitate ikasketen parean jartzea. Ondorioz, modu esplizituan aipatzen ez bada ere, bai iradokitzen da unibertsitate ikasketak berrantolatzeko beharra, eta antolakuntza eraberritu horretan lehentasuna ematea ikasketa teknologikoei eta esperimentalei, gizarte zientzien eta humanitateen kaltetan.

> **[...] gure egitura ekonomikoa ezberdina delako, batez ere industriari begira. Baina, gure datuak deigarriak dira Europa osoan. Europako erregio industrialak hartuta, hemen dagoen aldea unibertsitatearen eta lanbide heziketaren artean oso nabaria da. Printzipioz arazoa ez da horrenbeste unibertsitatea eta lanbide heziketa, baizik**

> **eta unibertsitatearen baitan ere zer espezialitate ematen den. Printzipioz, industria zenbat eta aurreratuagoa izan, orduan eta ingeniari gehiago behar dira. Baina, arazoa da proportzio hori ez datorrela bat gure industriak duen teknologia mailarekin [...] Ikusi behar da zenbat jendek aukeratzen dituen espezialitate teknologikoak (E-7, 4).**

Diskurtsoaren barruan berebiziko garrantzia hartu du unibertsitatearen eta lanbide heziketaren arteko harremanean jarritako arretak. Izan ere, formula desberdinak aipatu arren, diskurtso ekonomikoa partekatzen duten aktore sozial guztiak etorri dira bat unibertsitate-ikasketak eta lanbide heziketako ikasketak modu batean edo bestean lotzeko beharra azpimarratzean. Den-denek adierazten dute beren ustetan desoreka nabarmena dakarren errealitatea, batetik, Euskal Herriak daukan oinarri ekonomiko produktiboa eta, bestetik, aldi berean Europako unibertsitate-tituludun gehien duen herrialde bihurtu izana. Hainbat arrazoi daude desoreka horren oinarrian. Urte askotan unibertsitate prestakuntza izan da goranzko higikortasun sozialaren eragile. Unibertsitateak prestigio bat irabazi du euskal gizartean eta gurasoek unibertsitatera bidali nahi dituzte seme-alabak. Unibertsitateak euskal gizartean daukan irudia beste modu batera landu beharko litzateke, iritzi ildo honen ustetan, eta kalitatezko lanbide hezkuntzaren aldeko lana egin. Izan ere, unibertsitate-tituludun askok zailtasunak dituzte gaur egun lan merkatuan integratzeko eta, sarritan, gain-kualifikatuta egonik, beren ikasketa mailari dagozkion baino maila apalagoko lanak eskuratzen dituzte. Argudioari jarraiki, auzi horrek badu zerikusirik goian aipatutako unibertsitate ikasketen berrantolakuntza premiarekin eta gizarte-zientziei eta humanitateei egotzitako gain-dimentsioarekin.

> **Hor gure herriaren berezitasunak hartu beharko lirateke kontuan [...] Ekonomikoki eskualde industrial bat gara, eta hori nabaritu beharko litzateke unibertsitateen espezialitateetan, nabarmenki alor teknikoari eta teknologikoari ematen zaien lehentasunengatik. Gure herriaren berezitasun horiek ekarriko nituzke unibertsitateetara. Humanitateetan badaude espezialitate batzuk aukeratzen direnak lanbide heziketa ez aukeratzeagatik. Orduan, lanbide heziketa eta unibertsitatearen arteko oreka hori lotuz gero irudiaren aldetik, jende asko humanitateetara joan beharrean lanbide heziketara joango litzateke [...] hor egon daiteke gain-dimentsio bat ziur aski (E-7, 9).**

> **Nik uste dut badagoela joera handi bat [...] prestigioagatik edo dena delakoagatik, unibertsitatera bideratzeko. Ez dakit, unibertsitatearen meritua den edo lanbide heziketaren demeritu bat. Kontua da lanbide heziketak ez daukala inondik inora unibertsitatearen prestigio bera. Baina, jende hori ez dakit zenbateraino joan den horra benetan nahi zuelako edo besterik ez zeukalako. Esan nahi dut, lan txertaketa errazagoa balitz eta formazio jarraia hobe ikusita balego, hau da, unibertsitatera joateko beti egon daiteke [...] Hor gauza asko elkartzen dira, lanbide heziketaren zera hori, eta gero enpresek ere formazio jarraia egiteko ohitura falta ere (E-4, 9).**

Horrenbestez, lanbide heziketa bera berregituratu eta gizartean prestigioa emateaz gain, unibertsitatearen eta lanbide heziketaren ikasketen arteko zubiak eraikitzea iradokitzen da.

### 2.5.2. Ikerkuntzaren arloan

Prestakuntzaren arloan ezinbestekotzat jotzen bada unibertsitatearen zeregina, etorkizunari begira ez da ikusten ikerketaren arloan oraintsu arte izan duen nagusitasuna mantendu ahal izango duenik unibertsitateak. Oro har, uste da Europako unibertsitatean egiten den ikerkuntzak aje nabarmenak erakutsi dituela

azken urteotako ekonomia globalaren testuinguruan, ez duelako mundu merkatuaren lehiakortasunak eskatzen duen behar besteko eraginik berrikuntzaren emaitzetan. Euskal Herrian dagoen egoera, beraz, ingurumaria horretan ulertu behar da.

> **Europa osoan dago arazo estruktural bat unibertsitatearen eta ikerkuntzaren artean. Europan esaten denean [...] Europa ez doala ondo alderatuta AEBekin, Japoniarekin edo Txinarekin berrikuntzaren efizientziari dagokionez, horren atzean dauden arrazoien artean beti unibertsitatea aipatzen da. Orduan, horregatik pentsatzen da Europan dagoela arazo estruktural bat unibertsitatearekin berrikuntzaren aldetik (E-7, 6).**

Ikusi dugunez, prestakuntzaren alorrean garrantzizkoa da ez zenbat gazte prestatzen duen unibertsitateak, ikasle gazte horiek zein espezialitatetakoak diren baizik. Gauza bera planteatzen da ikerkuntzan ere, ezberdindu egin behar baitira ikerketa-motak eta ikerketa-esparruak. Hala, unibertsitatearen dimentsio ekonomiko eta teknologiko hutsetik begiratuta, uste da bereizi egin beharko liratekeela oinarrizko ikerkuntza eta ikerkuntza aplikatua. Hain zuzen ere, unibertsitateari esleitzen zaion betebeharra oinarrizko ikerkuntzaren esparruan kokatuko litzateke, baina ez modu monopolistikoan. Aitzitik, unibertsitatean ez ezik zientzia, teknologia eta berrikuntzarako erakundeetan kokatzen da, gero eta gehiago, ikerkuntzaren zeregina. Eta, horrela, lan banaketa baten premia agertzen da. Baita lankidetzarena ere.

> **Nik uste dut bi esparru ezberdin egon daitezkeela. Batetik, ikerkuntza aplikatuan zaila da unibertsitateak lan inportantea egitea eta, bestetik dago oinarrizko ikerkuntza, orientatua esaten zaio. Gerta liteke unibertsitateko arlo batzuk prestatuta egotea horretarako eta beste batzuk ez egotea. Orduan, nire ustez abiapuntua izan beharko litzateke aurriritziak baztertzea, bai unibertsitatearen aldekoak eta kontrakoak. Eta igual egon behar dira gune batzuk ardura hori hartuko dutenak [...] Eta zentro horiek egon behar dira elkar lanean unibertsitatearekin. Zentro horiek aukera izan behar dute unibertsitatearekin lan egiteko edo beste batzuekin, hemengo eta kanpoko ikerlariekin. Orduan, nik uste dut hori izan daitekeela tresna egokiena aprobetxatzeko unibertsitateak dituen gaitasunak eta, aldi berean, ez hartzeko unibertsitatearekin agian hartu behar ez diren konpromiso batzuk. Hau da, konpromisoak ez dira hartu behar unibertsitateak «unibertsitate» hitza duelako, baizik eta dituen gaitasunengatik. Eta hori modu objektiboan baloratzeko, ziurrenik kanpotik egin behar da, unibertsitatetik kanpo dagoen instituzio baten aldetik, baina aurriritzirik gabe (E-7, 5).**

Ikerkuntza «teknologiko-industriala» eta gainerakoa bereizteaz gain, bigarren bereizketa baten beharra ere nabarmentzen da aktore ekonomikoen adierazpenetan. Hain zuzen ere bikaintasuna eskuratu duten unibertsitate publikoko ikerkuntza taldeen eta gainerako taldeen artekoa. Ildo horretan, egokitzat jotzen da UPV/EHU-k bikaintasunezko taldeak besteengandik banatzeko hartutako erabakia, modu horretan lehen talde horietara bideratu ahal direlako baliabideak. Hala, BERC deritzoten zentroak (*Basque Excellence Research Centers*) bereizirik agertzen dira unibertsitateko organigraman, eta aparteko kudeaketa burutzen dute. Hari beretik doa *Ikerbasque* programa ere, atzerriko ikertzaile prestigiotsuak erakartzeko sortua.

> **Los *BERCS* son centros de investigación básica y de excelencia, que se crearon desde la universidad un poco para potenciar ciertos grupos de excelencia. Este trabajo que se está haciendo ahora de separar lo que es excelencia y los grupos que no lo son me**

> **parece algo fundamental, porque eso sí que ayuda a tener mayor presencia internacional [...] Y todo lo que es la estrategia *Ikerbasque,* es decir, incorporar aquí investigadores internacionales ayuda a atraer externos. Otra cosa es cómo se integren esos investigadores en los grupos existentes, o si se enraízan aquí o no. Pero, bueno, creo que hay ámbito de mejora, se está trabajando pero todavía se puede mejorar (E-9, 7).**

Ikerkuntza guneak toki desberdinetan kokaturik egotean, beharrezko jotzen da unibertsitateen eta zientzia, teknologia eta berrikuntzaren euskal sareko beste erakunde batzuen arteko lankidetza estuagoa bultzatzea, lankidetza estrategikoa eta etengabea izan behar duena. Are gehiago, lankidetza horrek bildu beharko lituzke unibertsitateak, enpresak eta erakunde eta administrazio publikoak, denen arteko komunikazioa eta fluxuak bideratzeko moduko sare batean. Unibertsitatean ikertzaileak daude eta ikerketa egiten da, baina askotan ikerketaren emaitzak eraginkorrak izan daitezen jarduera horrek txertatuta egon behar du esparru ekonomikoaren dinamikan eta esparru ekonomikoaren unean uneko beharren testuinguruan.

> **Egitura horiek ez dute euren burua konprometitu behar egitura berarekin [unibertsitatearekin]. Izan behar dira beste guneak inplikatzeko gai, bai unibertsitatea, enpresak eta abar (E-7, 5).**

Erakundeen artean ez ezik, fluxu zirkulazioa eta likidotasuna aldarrikatzen dira unibertsitateen barneko beste entitateen arteko harremanetan ere, fakultateak, sailak eta diziplina esparruak tartean harturik, besteak beste. Adibidez, ezinbesteko jotzen da diziplinarteko ikerkuntza egitea eta diziplinarteko ezagutza sortzea, eta hori bideratzeko zailtasunak azpimarratzen dira.

> **Iruditzen zait unibertsitatearen eta beste aktoreen arteko lankidetza horrek askoz ere estrategikoagoa eta jarraituagoa izan behar duela [...] Enpresan dauden beharrak hain azkar ari dira aldatzen, ezen ez badaukagu malgutasuna gure sisteman egokitzapen horiek emateko izugarrizko hutsuneak sortuko baitira [...] Niretzat unibertsitatean dagoen erronka handi bat da likidotasun hori sortzea, bai barruan eta bai kanpoan, bai departamentuen eta fakultateen artean, baita enpresekin eta erakundeekin ere. Eduki beharko genituzke askoz ere espazio likidoagoak [...] Hobeto konektatze horrek ekarriko du planteatuko diren programak, prestakuntzak, ikerketak eta abarrekoak ere lotuago egotea errealitatearekin (E-11, 3, 10).**

Bai irakaskuntzan bai ikerkuntzan azaldutako birmoldaketaren ildotik, bestelako proposamenak ere agertzen dira diskurtso teknologiko-ekonomikoaren barruan. Iradokizun horietatik garrantzitsuenetakoak unibertsitate langileriaren soslaiak eta jarduerak berriz egituratzeko premia nabarmentzen du. Jakina denez, unibertsitate irakasleek irakaskuntza eta ikerkuntza lana egin ohi dute. Hain zuzen ere, kaltegarritzat jotzen da bikoiztasun hori, uste baita eginkizun desberdinak bete beharrak eraginkortasuna kentzen diela bi zereginei, eta bien artean ikerketa-lanari bereziki.

> **Guk pentsatzen dugu irakasle batek goizeko bederatzietatik hamaiketara bi klase eman behar dituela, gero ez dakit zenbat ordu pasa behar dituela laborategi batean, eta gero arratsaldean post-graduko beste klase batzuk eman... Horrela uste dugu erantzun eraginkorrak emango ditugula? Hori ezinezkoa da. Ez dut ezagutzen enpresa bat eskema horrekin funtzionatzen duenik, eta unibertsitatean hori bihurtu dugu**

> gure ADNa. Eta gero sortzen dira [...] ikerketa zentroak konponbide bezala. Baina, funtzionamendua da unibertsitateko jendeak eman behar diela jaten gutxienez hiru ildo horiei [irakaskuntza, ikerkuntza, transferentzia], eta hori enpresa-antolakuntzaren teorian eta praktikan desastre hutsa da (E-8, 5).

Horiek horrela, batzuen ustetan, bereizi egin behar dira gaur egun loturik dauden eginkizunak, alegia, irakaskuntza eta ikerkuntza. Unibertsitatean egon behar dute, batetik, irakaskuntzan zentraturik dauden irakasleak eta, bestetik, denbora osoz ikerkuntzan arituko diren ikertzaileak. Hala, bi funtzioak banatzea eta funtzio horiek betetzen dituzten ibilbide profesionalak aurrerantzean eginkizun bakar batera bideratzea proposatzen da unibertsitatearen eraginkortasuna areagotzeko bide moduan.

> Egon daitezke perfil batzuk non, igual pertsonen prestakuntzarako orientazioa askoz ere indartsuagoa den; beste batzuk egongo dira askoz ere zentratuago ikerketan, eta behar bada klaseren bat eman dezakete doktoretzan edo master batean... Orduan, iruditzen zait unibertsitateak pentsatu beharko lukeela non kokatu bakoitza norberaren [...] onena emateko. Askotan daude pertsonak berdinak denetik egiten, eta horrela ez dago fokalizatzerik (E-11, 3).

> Karrera profesionalak oso argi ezberdintzea..., baina argi utziz zeintzuk diren irakaskuntzaren eginkizunak eta zeintzuk diren ikerkuntzaren eginkizunak (E-7, 6).

### 2.5.3. Gobernantzaren arloan

Diskurtso honen argudio-ildoan kokaturiko aktore batzuek ezinbesteko jotzen dute unibertsitateen, eta bereziki unibertsitate publikoaren gobernantza ere aldatzea. Zientzia, teknologia eta berrikuntzako euskal sareko entitateetan kokaturiko aktoreak dira, eta gobernantza endogamikoa izatea egozten diote unibertsitate publikoari. Ondorioz, pentsatzen dute ezinezkoa dela unibertsitatea eraldaketarako tresna izatea haren gobernantza unibertsitate barneko pertsonen esku badago. Ildo horretan, ez dute unibertsitatearen autonomia defendatzen balio modura, analisi honetan identifikaturiko diskurtso akademiko-instituzionalak eta kritikoak egiten duten bezala. Aitzitik, gobernuaren eta erakunde ekonomiko pribatuen kontrolpean jarri beharreko erakundetzat hartzen dute unibertsitatea, gizartearen interesak botere publikoekin eta instituzio ekonomikoekin identifikatzen dituztelako. Horrela, uste dute benetan gizartearen zerbitzura egon nahi badu, unibertsitateek (eta UPV/EHU-k, bereziki) gizartearen eragileak eta interes taldeak izan behar dituztela gobernantzan integraturik. Horien artean aipatzen dira, bereziki, enpresak eta gobernuak.

> Creo que es muy endogámica la gobernanza, porque el hecho de que sea un grupo interno de la propia universidad el que gestiona internamente la universidad ¿Cómo pretendes ser un elemento de transformación si ni siquiera oyes al resto? Lo mismo que hacemos el resto: nuestros órganos de gobernanza están en empresas, en gobiernos y en otros agentes. Si realmente te crees que quieres ser algo al servicio de la sociedad tienes que tener los diferentes elementos de la sociedad integrados en tu gobernanza, es decir, los grupos de interés que representan a esa sociedad en ese modelo de gobernanza. Sé que está sujeta a la ley de universidades, pero aun así me parece caduca, es antigua (E-9, 7).

## 2.6. Nabarmendutako balioak

Balio ekonomikoak dira nagusi diskurtso tekniko-ekonomikoan: lehiakortasuna, garapena (lurralde garapena, garapen ekonomikoa), lankidetza, eraldaketa, berrikuntza teknologikoa (transferentzia enpresara), efikazia eta eraginkortasuna, estrategia (arrazionaltasun instrumentala), malgutasuna eta egokitzapena, jariakortasuna eta likidotasuna, inpaktu materiala (teknologikoa, ekonomikoa, enpresakoa), euskal industria, nazioartekotze ekonomikoa (lehia).

# 3. Diskurtso kritikoa

## 3.1. Elkarrizketatuen kokapena euskal unibertsitate esparruan

Diskurtso kritikoa deritzogun narratiba sortzen duten aktore sozialak askotarikoak dira bai prestakuntzari dagokionez bai egiten duten lan motari dagokionez ere. Gehienak giza eta gizarte zientzietako prestakuntza izan dute, baina badaude euren artean zientzia esperimentaletakoak ere. Gehienak irakasle-ikertzaile lanetan dihardute UPV/EHU gaur egun, baina badira MUko eta Deustuko Unibertsitateko kideak ere. Horien ondoan, zenbait unibertsitatez kanpoko lanetan aritzen da. Gehienak euskal hiztunak dira, baina badago elkarrizketatuen artean euskal hiztuna ez denik ere. Irakasle-ikertzaileez gain, kulturaren munduan, euskalgintzan, unibertsitate-sindikalgintzan eta ikasle-lanetan dabilenik ere badago. Diskurtso honetan lerratutakoen artean, zientziaren arloan genero berdintasunaren alde lan egiteagatik nabarmendu dira zenbait, euskarazko unibertsitatearen aldeko jardunean eta nazioarteko lankidetzan ardura instituzionalak izan dituzte beste zenbaitek.

Jarduera desberdinetako pertsonak izanda ere, ezaugarri inportanteak partekatzen dituzte. Lehendabizi, aktore gehienen ahotsak kokapen subordinatuetatik sortzen dira unibertsitate esparruan nahiz gizartean, lantzen dituzten gaiak, dauzkaten genero edo hizkuntza kokapenak, egin dituzten lan-ibilbide heterodoxoak edo ez-egonkorrak eta unibertsitatean nahiz gizartean aldarrikatzen dituzten balioak aintzat hartzen badira.

> **Yo he sacrificado dinero, prestigio, y me he tenido que pelear mucho para que no me echaran de muchos sitios, y me han echado de muchos, porque no era titular o no era funcionaria [...] Pero el objetivo de estar aquí no es «mi carrera», yo no lo entiendo así. Yo creo que tenemos una responsabilidad, estoy haciendo algo que me parece importante en el sentido de que creo que no soy solo profesora. Yo creo que nuestro papel es distinto. Entonces, sí que entiendo la universidad de una manera distinta que la mayoría de la gente que está aquí (E-20, 4).**

Bigarrenik, sozialki *mainstream* edo joera nagusi gisa ezagutzen den horretatik kanpo dauden diskurtso sozial kritiko eta eraldatzaileen bozeramaile dira. Ildo horretan, badauzkate, eduki, aurreko diskurtso emaileekin antzekotasunak. Izan ere, diskurtso akademiko-insituzionalean lerratutakoek ere adierazten dute gizarte garapenari buruzko kezka eta gizarte zerbitzurako bokazioa, ildo kritikokoek egiten duten bezala. Baina, diskurtso kritikoan kokaturiko elkarrizketatuek ez dute aktore akademiko-insituzionalek erakusten duten maila bereko identifikazioa unibertsitate instituzioarekin, eta hertsiki bereizten dituzte instituzioa eta haren barnean dihardute pertsonak eta taldeak. Zenbaitetan, beren lotura pertsonalak handiagoak dira gizarteko elkarteekin edo herri mugimenduekin unibertsitatearekin duten atxikimendu profesionala baino. Bestalde, berrikuntza soziala bilatzen dute. Baina, berrikuntza hori ez dator bat diskurtso tekniko-ekonomikoak kontzeptuari emandako zentzu teknologiko eta ekonomikoarekin. Aitzitik, indarrean dagoen eredu sozio-ekonomikoarekin kritiko agertzen dira aktore hauek eta, hartara, ez daude merkatu ekonomikoaren aginduetara bideratutako unibertsitate baten alde.

> **Uste dut unibertsitateak izan beharko lukeela ahots kritiko bat. Izan beharko luke elementu bat gizartearen analisia egingo duena ikuspegi kritiko batetik abiatuta (E-17, 7).**

## 3.2. Eraldaketa ulertzeko modua

Eraldaketa modu batean baino gehiagotan ulertzen den arren, diskurtso kritikoaren barruan biltzen diren aktore sozialek konpromiso pertsonala adierazten dute unibertsitatea nahiz gizarte eredua aldatzeko beharrarekin. Sentipen hori itsatsita dute beren bizi- nahiz lan-ibilbidean eta, hartara, modu eta neurri desberdinetan bada ere, osagai bereizi gisa txertaturik agertzen da *ethos* profesionalean.

Narratiba honetan bi testuingurutan ematen da eraldaketaren berri. Batetik, unibertsitatearen beraren barne eraldaketa aipatzen da. Bestetik, unibertsitateak kanpoan, hau da, gizartean eragin ditzakeen aldaketak azaltzen dira. Lehenengoari dagokionez, konpromiso pertsonala abiaburu duen ikuspegiari jarraiki, unibertsitateko egunerokotasunean ulertzen dute aktore horiek aldaketaren aldeko lana, askotan, pertsonek etengabe buruturiko ekintza xume eta, ustez, ikusiezinetan gauzatzen dena. Gehienetan, aldaketaren aldeko jarrera aktibista horrek kokapen subordinatuetan dauka abiapuntua.

> **Si consigues meter un gol de vez en cuando sabiéndote mover, pues bien [...] Yo prefiero ponerme del lado de la gente que reivindica, que es mi gente (E-20, 7).**

> **Nire ustez, garrantzitsua da saiatzea gure egunerokotasunean zenbait jarrera eraldatzaile izaten, bai ikasgelan, ikerketa egiten ari garenean, gure lankideekin ditugun harremanetan, eta abarretan [...]. Nik hartu dudan jarrera izan da saiatzearena gertu ditudan gauza horietan, ahal den neurrian, koherentziaz jokatzen (E-16, 7).**

Horrenbestez, pertsonen egunerokotasunean ere jartzen da eraldaketaren fokua, eta ez soilik egiturazko eraldaketetan edo goitik bultzatuta instituzioan abian jar litezkeen transformazioetan. Izan ere, bereizi egiten dira unibertsitate instituzioa bera eta haren barnean lan egiten duten era askotako pertsonak eta taldeak. Unibertsitate instituzioaz ari direlarik, uste nahiko hedatua dago eraldaketa sistemiko batek gauzatu ahal izateko eragozpen handiak dituela gaur egun, UPV/EHUn bereziki, haren tamaina eta konplexutasunaren ondorioz. Aldiz, azpimarratzen dute egon badaudela pertsona eta talde asko, batik bat unibertsitate publikoaren barruan, gauzak bestelakotzearen alde jardun dutenak eta dihardutenak gaur egun ere.

Ildo horretan, hainbatek pentsatzen dute orain arte unibertsitate publikoan bultzatutako ekimen eraldatzaile asko pertsona eta talde jakin batzuen luzaroko lanaren eta presioaren ondorioz burutu izan direla, eta ekimen horiek arrakastatsu izan direla arrazoi horregatik, hain zuzen ere. Besteak beste, unibertsitate publikoko irakaskuntzaren euskalduntze prozesuan eta genero berdintasunean egindako aurrerapenak aipatzen dira talde jakin batzuen lan horren adibide gisa.

Beraz, norabide desberdinetan tiraka egiten duten bi indar nabarmentzen dira. Alde batetik, instituzioak berak, instituzio (handi) gisa, inertziarako duen joera dago unibertsitate publikoari dagokionez. Beste alde batetik, transformazioaren alde lan egiten duten pertsonen eragina agertzen da. Hala ere, instituzioaren eta agentziaren arteko tentsio horretan (edo, nahiago bada, birsorkuntzaren eta eraldaketaren arteko oposizioan) bi joera horiek bat egiten dute norabide berean behin baino gehiagotan. Izan ere, instituzioak ildo eraldatzaileak bultzatzen dituenean, badaude horretara biltzen diren unibertsitate barneko aktore sozialak, eta aliantza horiek ahalbidetzen dute, hain justu, eraldaketa instituzionala gauzatu ahal izatea.

> **Nire sentsazioa da batzuetan unibertsitatea aldatzeko oso latza den instituzio bat dela. Eta igual ni momentu batean aurkakotasun posizio batean egon naiz. Adibi-**

> **dez, orain indarkeria matxistaren kontrako protokoloaren eraketa prozesuan nago, erabat instituzionala den gauza bat. Hor igual bai egin dut aldaketa bat. Eta egia da horrek momentu batzuetan nire buruarekin kontraesan batzuk sortzen dizkidala [...] Uste dut badaudela momentu batzuk eta aukera batzuk (E-16, 3, 7).**

Halaz ere, oro har, unibertsitate publikoa egitura zurrunez eta botere harremanez zeharkaturiko gune instituzionaltzat hartzen da. Botere harremanek eta harreman horiek ezarritako hierarkiek aldatzeko zailak diren posizio dominanteak eta subordinatuak sortzen dituzte, ezagutza arloen arteko desberdintasunak, irakasle eta ikasleen arteko harreman bertikalak, irakasle elebidunen eta elebakarren arteko diferentziak baita langile prekarioen eta egonkorren artekoak ere, besteak beste.

Baina, era berean, narratiba honetan kokaturiko elkarrizketatuek aitortzen duten bezala, unibertsitateak osatzen duen espazio instituzional horrek gune egoki bat ematen die hainbat pertsona kritikori beren pentsamendua eta ekintza garatzeko. Horrela, unibertsitatearen beraren nahiz gizartearen aldaketa helburu duten taldeek plataforma lagungarria izan dute unibertsitatean gizartera eragin handiagoz (edo baliabide eraginkorragoez) iritsi ahal izateko.

> **Batzuetan ez unibertsitateak nahi izan duelako. Iruditzen zait unibertsitateak egin duena izan dela ideia horien alde borrokatu diren pertsonei egoteko eta pentsatzeko leku bat ematea [...] Gehiago iruditzen zait barruan dauden pertsonek, agian *establishment* barruan dauden pertsona batzuek ere, sustatu dutela proiektu eraldatzaile asko; ekologiaren arloan [...] generoarekin, berdin [...] Azkenean, unibertsitatean badago pertsona dibergente asko gizartean konprometituak daudenak eta eurak dira palanka lana egin dutenak (E-5, 11).**

Unibertsitate publikoaren barruan hezurmamitutako aldaketa horien artean esanguratsu jotzen dute elkarrizketatuek irakaskuntzaren euskalduntze progresiboa. Euskalduntzearen adibideak erakusten du barneko eragileen eta instituzioaren politikaren bat egiteak izan duen indarra une jakin batzuetan. Kasu horretan ere, pertsona eta talde jakin batzuen hasierako bulkadaren eta eskakizunaren jarraipena izan ziren unibertsitateak ondoren abian jarritako plangintzak.

> **Euskalduntzea etorri zen unibertsitateko irakasle batzuek eskatu zutelako. Gerora, normalizazio plangintzak etorri ziren, 90eko hamarkadan. Aldez aurretik euskaraz ematen ziren ikasgaiak ematen ziren irakasle batzuk egiten ari zirelako lan hori aldatzeko unibertsitatearen barruan. Gero, normalizazio politika batzuk ezarri ziren, eta egin zutena inportantea eta biderkatzailea izan zen, baina unibertsitateak berak bere kabuz zaila du aldatzea bere barne egitura (E-5, 11).**

Unibertsitate gaztea izanik ere, bere ibilbidean UPV/EHUk ageriko hainbat barne aldaketa bizi izan duela berresten dute elkarrizketatuek. Ikuspegi historikotik begiratuta, gizartea eta unibertsitatea modu paraleloan aldatzen joan dira, eta gizartean gauzatzen diren dinamika sozial eta kultural berberak gorpuztu dira unibertsitatean ere. Trantsizio une batean dago unibertsitatea. Haren sorrera unean, frankismo osteko lehen urteetan, politizazio maila handia zegoen. Jendeak aldaketa gogoz jokatzen zuen, aldarrikapenak egunerokoak ziren gizartean ez ezik unibertsitatean ere. Euskal gizartea erakundetzen ari zen (erakunde politiko berriak sortzen ari ziren) eta unibertsitatea ere ia ezerezetik eraikitzen jardun zuten lehen urteetan bertaratu zirenek. Aldaketarekin konpromiso handia zegoen jende askoren aldetik, proiektu politiko,

sozial eta kultural berritzaileak aurkezten ziren. Ohikoagoa zen gizarte aldaketaren aldeko aktibismoa, eta beste inon baino argiago garatu zen aktibismo hori unibertsitatean.

Joera horiek, baina, bestelakotu egin dira. Eta belaun arteko ordezkatzea burutu da. Batzuen ustetan, Bigarren Modernitatean gauzatutako aldaketa kulturaletara jo behar da gaur egungo egoera ulertzeko. Gizartea, orokorrean, indibidualizatuago dago. Banakoaren proiektu pertsonalek kausa sozialek baino pisu handiagoa irabazi dute gazteen bizi proiektuetan. Bestalde, erlatibotasuna nagusitu da. Desideologizazioa eta lausotasuna handiagoak dira ideien eta balioen arloan. Eta txikiagoak, berriz, eraldaketaren aldeko asmoak eta ahaleginak. Euskal gizartea ere lehen baino kontserbadoreagoa da gaur egun. Ez dago presio handirik gauzak aldatzeko, jende asko nahiko eroso bizi delako. Baina, adierazitako aldaketa kultural horiekin batera, ez dira garrantzi gutxiagokoak gaur egungo gizarteetako egitura ekonomikoan gertatutako berrikuntzak, ezagutzan oinarritutako ekonomia globalaren testuinguruan. Zalantzarik ez, gaur egungo merkatu ekonomiko globalek unibertsitateei ezarritako eskariek ere eragina izan dute jaidura berrietan.

Hain zuzen ere, aipatu diren prozesu kultural eta ekonomikoek azaltzen dituzte unibertsitateko eragileetan (irakasle-ikertzaile eta ikasleetan) ikusten diren joerak. Hala, lehen garaiko ikasleek beren prestakuntza lortzeko ez ezik gizarte eredua auzitan jartzeko eta eztabaidatzeko gunetzat zuten unibertsitatea. Gaur egun, ordea, ikasleek titulua lortu nahi dute hainbat arinen, lan merkatuan ahalik eta baliabide handienekin integratu ahal izateko. Izan ere, lanaren munduan eta merkatu ekonomikoan azken hamarkadan jazotako birmoldaketek zaildu egin dute hezkuntza mundutik lanerako bidea.

Irakasleen aldetik ere nabarmentzen da trantsizio argi bat. Hasierako urteetako unibertsitate publikoan izugarrizko garrantzia hartu zuen irakaskuntzak, bereziki euskaraz abian jarritako ikasketen eskaintza berritzaileari aurre egin behar zitzaiolako. Eta, hain zuzen ere, irakas zereginetara bideratutako irakasle asko hasi ziren lanean UPV/EHUn, hura sortu ondorengo lehen hamarkadetan. Baina, urteekin, iruditeria akademikoan irakaskuntza bigarren mailako eginkizun izatera igaro da, ikerkuntzaren mesedetan. Arrazoia: unibertsitatea aktore lehiakorra da gaur egun mundu globalizatuan ezagutza produzitzen duten beste unibertsitate eta entitate askoren artean. Ondorioz, hasiera batean irakaskuntza lanetara bideratu ziren ahalegin asko ikerketa eginkizunetara joan dira gerora. Irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren arteko oreka berri horrek bestelako logikaren araberako irakasle-ikertzaileen birkokapena ekarri du. Irakasle-ikertzaile rolaren bilakaera tentsio handikoa izan da hainbat ikastetxe eta diziplina arlotan (unibertsitate eskola batzuetan, bereziki) eta zenbait adin taldetan. Produktibitatearen terminoetan neurtutako eta saritutako ikerketa lehiakorraren bultzada instituzionala jotzen da aldaketa horren eragiletzat.

Bestalde, arian-arian, irakasle-ikertzaile gazteak joan dira azken urteetan UPV/EHUn aitzindari izan zirenen tokia hartzen. Ibilbide akademiko gorabeheratsuak egitera beharturik, horietako asko egoera prekarioetan aritzen da lanean, egonkortasuna lortzeko lehian murgilduta. Hartara, elkarrizketatu batzuek argitzen dutenez, beren lan egoerak mugatu egiten ditu gazte horien aktibismorako eta aldaketa konpromisorako aukerak.

Diskurtso honetan azaltzen denez, ikasle eta irakasle-ikertzaileen zereginek jasotako mutazioak unibertsitateak berak instituzio gisa bizi izan duen berregituraketaren isla besterik ez dira. Izan ere, agintari akademikoen eta politiko askoren aldetik unibertsitatea gero eta gehiago ikusten da indarrean dagoen sistema produktiboaren lanabes gisa. Hala, merkatu ekonomiko globalaren eskakizunetara makurtu da azken urteotako unibertsitatea, eta joera horrek apaldu egin ditu unibertsitateak garai batean eraldaketa sozialaren alde izan zezakeen konpromisoa. Narratiba kritikoaren arabera, merkatuari buruzko makurtze hori adierazten da nazioartekoturiko unibertsitatean bai irakaskuntzak hartu duen norabidean (irakaskuntza egokitzaile eta erreproduzitzaile bat nagusitu da, ideia eta balioei dagokienez, ez eraldatzailea), bai iker-

kuntzak hartutako ildoetan (merkatu ekonomikoaren premiek ezartzen dituzten beharretara lerraturiko ikerkuntza saritzen da).

> **Orain askotan unibertsitatea ikusten da sistema produktiboaren a lanabes bezala, hau da, lehiakortasuna eta eraginkortasuna igotzeko tresna bat bezala. Hor badago joera ideologiko bat neoliberalismora, eta joera politiko burokratiko-normatibo bat ere. Baina, ez bakarrik Europar Batasunean, mundu mailan gertatzen ari da. AEBetako unibertsitateak, Australiakoak edo Txinakoak gero eta lehiakorragoak dira indize famatu horietan. Orduan, suposatzen dut Europar Batasunean planteatu dutela Europak leku bat izateko nazioartean bere unibertsitateak ere produktiboagoak izan behar direla eta abar. Eta nik uste dut unibertsitateek ekarpen bat egin behar diotela sistema produktiboari eta gizarteari, baina kontua da zer nolako gizartea imajinatzen den prozesu horretan. Unibertsitateek ere, segun ze ikuspegi daukaten, jorratuko dute gaia era batean edo bestean. Orduan, niretzat inportanteena da jakitea ze balore dagoen atzean (E-15, 8-9).**

Gaur egun nagusitu diren merkatu ekonomikoaren aldeko joerek eragina dute aldaketari buruz unibertsitatean ezartzen ari den ikuspegi hegemonikoan. Horrela, aldaketaren kontzeptua aldaketa teknologikoekin eta ekonomikoekin identifikatzen da, eta horrekin soilik, gero eta gehiagotan; ondorioz, unibertsitate eragina ildo horretan lortutako emaitzen arabera balioztatzen da. Era berean, berrikuntza ere, berrikuntza teknologikoekin parekatzen da, eta geroz eta gutxiago gizartean eragindako beste lorpen immaterial batzuekin. Narratiba kritikoak larritzat dauka jaidura hori, are gehiago unibertsitate publikoaren esparruan gero eta indar handiagoz ezartzen ari denean. Hain zuzen, UPV/EHU ere indar aldatze horretan murgildurik dago gaur egun. Gizartea eta kultura aldatzeko asmoak apaldu dira, eta bestelako aldaketa ekonomikoak lortzera bideratu dira ahalegin instituzionalak.

> **Ez dauka gizartea eraldatzeko gaitasunik [...] Ez dauka baldintzarik. Eremu teknologikoan agian bai, *NANOGUNE* dago, eta hori. Baina, gizartea bere horretan baloreen aldetik, eremu kulturalean, harremantzeko moduak eta bestelako ereduak bilatzeko ez da eraldatzailea, ez dauka gaitasunik horretarako (E-2, 5).**

Hartara, diskurtso kritikoan agertzen denez, gaur egun era desberdinetako gizarte eta unibertsitate proiektuak daude unibertsitate barruan. Jakina, proiektu horietan gizarte eraldaketa desberdinak irudikatzen dira. Baina, egitasmo guztiek ez dute indar berbera, ez unibertsitatean, ezta gizartean ere. Joera nagusiek ezarritako hierarkien arabera, unibertsitate barruko mundu akademikoa mailakaturik geratu da gaur egun. Hala, zientzia esperimentalek eta teknologiek unibertsitate gunea hartu dute apurka-apurka, eta zientzia sozialak eta giza zientziak espazio marjinaletan kokatu dira. Diskurtso kritikoari lotutako aktoreen ustez, azken diziplina horietan badago oraindik pentsamendu kritikoa garatzeko aukerarik. Baita eraldaketa, berrikuntza eta garapena beste era batera ulertzeko modurik ere. Horrela, giza garapenaz eta garapen sozialaz hitz egiten da narratiba honetan, baita berrikuntza sozialaz ere, eta beste esparru eta diskurtso batzuetan hitz horiek duten adiera ekonomikotik bereizten dituzte elkarrizketatuek.

> **Kontua de zer nolako eraldaketaz ari garen. Arlo zientifiko-teknologikoan eraldaketa egongo da enpresen kualifikazio teknologikoa handitzeko, eta abar. Baina, horrek, berez, ez du zertan aldatu behar sistema ekonomikoa [...] Arlo sozialean igual espazio gehiago daukagu pentsaera kritikoago bat plazaratzeko, baina hor ere ikuspegi**

> **desberdinak egongo dira, eta badaude [...] Adibidez, gure historian zutabe bat izandako kontzeptu bat da «giza garapena». Baina, ulertu dugu giza garapena ikuspegi liberalaren kontra edo Washingtongo kontsentsuaren kontra [...] eta *NBE*tik eta, batez ere, *PNUD*etik[13] sortu zen beste ikuspegi batetik: garapena ez da hazkunde ekonomikoa, bada pertsonen egunerokotasuna bultzatzea (E-15, 5).**

Hain zuzen ere, narratiba honen arabera, gizartearen eraldaketaren eta ongizatearen aldeko pentsamendu kritikoa eta alternatiboa garatzeak izan behar luke unibertsitatearen eginkizunen artean zeregin nagusia. Gizartearen beharrei erantzutera zuzendutako zeregin horretan gizarte zibileko eragileekin sortu beharko lituzkete aliantzak unibertsitateak, hala nola mugimendu sozialekin, gobernuz kanpoko erakundeekin eta bestelako entitateekin.

> **Nik uste dut izan beharko lukeela eta, behintzat, sortzen diren auziei erantzun batzuk emateko gai izan beharko lukeela. Eta elkarlana bilatu beharko lukeela gizarte zibilean antolatuta dauden hainbat mugimendurekin (E-17, 4).**

> **Nik uste dut unibertsitateari eskatu beharko litzaiokeela hori, nolabait hausnarketa kritikorako gune bat izatea, ez diot gune bakarra [...] arazo bat dela batzuetan oso isolatuta dagoela, eta batzuetan ere gainetik begiratzen diela gizarteko beste espazio batzuei edo beste eragile batzuei (E-16, 5).**

Ildo horretan, uste da unibertsitateak gizartera gerturatu behar duela eta, aldi berean, bere ateak ireki behar dizkiela hirugarren sektoreko eragileei. Horrenbestez, unibertsitatea gizarte zibileko eragileekin saretzea proposatzen da, batez ere ikerketa esparruaren barruan bien arteko lankidetza bultzatzeko.

> **Yo, por ejemplo, he tenido experiencias muy buenas en organizaciones de la sociedad civil como ONGs, que creo que están haciendo un trabajo de investigación muy importante [...] Yo creo que la universidad se tiene que emparejar con otro tipo de entidades sociales y tienen que dejar de pensar que las investigaciones tienen que tener el sello de la universidad. La universidad por supuesto que sigue aportando, [...] pero no exclusivamente [...] Crear redes sería algo positivo [...] Yo creo que, por un lado, tenemos que salir a la calle y, por el otro, también tienen que entrar, las dos cosas [...] Tener esos espacios de encuentro es bueno (E-24, 8, 9).**

Elkarrizketatuen artean, batik bat euskalgintzan kokatzen direnek ematen diote berebiziko garrantzia unibertsitate publikoak Euskal Herriko gizarteko mugimenduekin edo herri mugimenduekin egin beharreko lankidetza mota horri. Izan ere, aipatu aktoreek euskal gizartearen baliorik handienetakotzat hartzen dituzte euskara eta euskal kultura, eta uste dute hemengo unibertsitate publikoak balio horiek bereganatzeko eta lantzeko ahalegina egin behar duela euskararen normalizazioan diharduten beste eragile batzuekin batera. Hartara, kulturaren eta hizkuntzaren esparruan kokatzen dute aldaketaren fokua. Eta lankidetza hori bideratzeko ezinbesteko ikusten dute instituzio bereziak sortzea unibertsitate publikoaren barruan, katedrak, institutuak edo antzekoak, gizarteko eragileekin batera euskararen aldeko lanean berariaz jardungo dutenak eta eragile horien egintza ezagutzaz elikatuko dutenak.

---

13 *PNUD:* Programa de las Naciones Unidas para el Desarrollo.

> **Nik batzuetan pentsatzen dut *NANOGUNE* eta bestelako zentroak dauden bezala, nola ez dagoen gure jakintza eremu propioetako bat den hizkuntza ikerketa objektu moduan hartzen duen zentrorik. Nik uste dut hor zer ikasia daukagula. Adibidez, imajinatzen dut *NANOGUNE* zentro inportante bat izango dela, baina halako zentro bat munduko edozein tokitan egon daiteke, eta hemen egotea ona, interesgarria eta estrategikoa da. Ez diot ezetz. Baina, badira beste balio batzuk, hizkuntza adibidez, eta nolatan ez dago halako zentrorik hizkuntzaren normalizazioari dagokionez? (E-17, 4).**

Euskaraz eta euskal kulturaz harago, elkarrizketatu batzuek subiranotasunaren ideia itsasten diote aldaketa kontzeptuaren adierari. Hala, herrigintzaz hitz egiten dute eta herri eraikuntza horren barruan kokatzen dute ustezko euskal unibertsitatearen aldaketa ere. Izan ere, haien iritzitan, gaur egun dauden bezala, unibertsitateek ez dute ahalmenik aldarrikatzen duten sakoneko aldaketa soziala (herri eraikuntza) bultzatzeko. Hartara, unibertsitate proiektuak ere herrigintzaren baitan ulertzen dituzte, alegia, gizarte proiektu eraldatzaile jakin baten barnean kokaturik. Eta unibertsitatearen edozein eraldaketa prozesu ere ildo horretako transformazio sozio politiko baten testuinguru orokorrean txertatzen dute, gizarte ekimenari erabateko protagonismoa esleituta.

> **Gaur egun unibertsitatea antolatuta dagoen bezala, zaila da aldaketak egitea. Nik uste dut borondate handiko jendea dagoela, ideologikoki gertu sumatzen ditut, baina oso zaila daukate. Baina, aldaketa herriarena izan behar da [...] Alderdiek orain dela 30 urtetako eskemarekin jarraitzen dutela. Estruktura politikoak ikusten ditut oso kokatuta politika tradizionalean [...] Sindikatuak ere antzeko ikusten ditut. Orduan, nik gaur egun ez dudanez ikusten ez alderdietan ez sindikatuetan aldaketarako borondate handirik, uste dut herrigintzatik etorri beharko dela (E-18, 10-11).**

## 3.3. Unibertsitatearen diagnostikoa

### 3.3.1. Eraldatzen ari den unibertsitatea

Diskurtso kritikoan aldaketari buruz mamitzen den gogoeta estu-estuki loturik dago gaur egungo unibertsitateez eta, bereziki, unibertsitate publikoaz egiten den diagnostikoarekin. Horrela, diskurtso kritikoaren arabera, UPV/EHU-ren ekarpen inportanteenak ez dira soilik arlo teknologikoan edo ekonomiaren hobekuntzan kokatu behar; aitzitik, euskal unibertsitateek egindako ekarpenetako asko immaterialak dira, hau da, kulturaren eta gizarte ongizatearen esparruan gauzatzen dira. Arestian esan den bezala, ekarpen horiek herrigintzaren edo naziogintzaren ildoan kokatzen dira gehienetan, eta, haien logikaren arabera, herri baten iraupen kulturalaren testuinguruan ulertu behar da euskal unibertsitateen eginkizun sozial nagusia.

> **Saiatu beharko lirateke [unibertsitateek] Euskal Herriari bere existentziaren bermea ematen. Uste dut XXI. Mende honetan Euskal Herriaren inguruan biziraupen terminoetan pentsatu behar dugula. Bizi-desafio batean dagoen herri bat da gurea, batez ere kulturari eta hizkuntzari buruz ari naiz, [...] desafio existentzial horren ardatz bihurtu, nolabait. Eta gero, saiatu beharko lirateke [...] eredu eraldatzaile baterantz joaten sendo eta ahalik eta azkarren. Bestelako zibilizazio eredu bati begira jarriko den sistema unibertsitario bat beharko genuke (E-22, 8).**

Helburu nagusi horiek lortze aldera, zeintzuk dira ildo kritikoan kokaturiko elkarrizketatuek unibertsitate publikoari esleitzen dizkioten zeregin zehatzak?. Batzuen ustetan, hainbat dira eginkizun horiek. Zalantzarik gabe, lehenengoa, goi mailako formakuntza eskaintzea da. Euskal gizarte gero eta konplexuagoak behar dituen pertsona adituak sortzeko. Bigarren eginkizuna, ikerkuntza garatzea da. Unibertsitate publikoan egindako ikerkuntza ezin da beste erakunde batzuek egiten duten ikerkuntzaren pareko izan. Alegia, gaur egun, ezagutzaren produkzioaren eta interes ekonomiko pribatuen arteko loturak gero eta estuagoak diren garaiotan, unibertsitate publikoak bestelako logikarekin jokatu behar du. Eta interes publikoen alde jo behar du. Zeregin hori burutzea gero eta zailagoa dela onartzen da, ikerketa finantzatzen duten botere publikoek nahiz entitate pribatuek, tokikoek nahiz Europako Batasunekoek, adibidez, beren intereseko ikerketa-ildoak ezartzen dituztelako modu nabarmenean eta interes horien araberako diru iturriak erabiltzen dituztelako proiektu jakin batzuk bultzatzeko. Hartara, onartzen da gero eta zailtasun handiagoak daudela pentsamendu kritiko eta autonomo bat garatu ahal izateko. Hala ere, behin eta berriro adierazten da unibertsitate publikoak izan behar duela helburu horretarako gune egokia.

> **Gauza batzuei buruz ikertzen baduzu, aukera gehiago duzu. Bestela, baztertuta geratzen zara. Hori dena badakigu. Baina, printzipioz, unibertsitate publiko batean aukera gehiago daukagu pentsaera kritiko bat sartzeko, eta uste dut hori inportantea dela (E-15, 4).**

Arazo sozialei irtenbideak bilatze aldera gizarteari eta haren eragileei zuzenean aholkularitza eskaintzea da unibertsitateari diskurtso honetan esleitzen zaion hirugarren eginkizuna. Izan ere, goian adierazi bezala, gizartearen arazoak konpontzeko eta gizartearen zerbitzuan lanean dagoen instituzio moduan ulertzen da unibertsitate publikoa, interes pribatuen gainetik.

> **Unibertsitate batek aholkularitza egin dezake, hau da, gizarteari, gizarteko elkarteei edo erakunde publikoei txostenak eta ikerketak eginez arazoak aztertzeko, irtenbideak bilatzeko, paradigma berriak mahai gainean jartzeko, eta abar. Hori fundazio batek egin dezake, baina, normalean, fundazioek ere badaukate lotura hori interes pribatuekin (E-15, 4).**

Unibertsitatearen eginkizunen artean, badaude gizarteari begira unibertsitateak landu dituen osagai kulturalak, tokian tokikoak eta immaterialak direnak. Ildo horretan, unibertsitate publikoak euskal kulturan eta euskararen garapenean egindako guztia izango litzateke laugarren ekarpena, elkarrizketatuen adierazpen guztietan behin eta berriro azpimarratzen dena. Euskarazko materialak sortuz, terminologia teknikoa garatuz, ikasleen eta irakasleen euskarazko gaitasunak zabalduz eta, oro har, hizkuntza prestigioz eta ospe sozialez hornituz goi mailako irakaskuntzan zein ikerkuntzan, besteak beste, gauzatu da unibertsitate publikoaren ekarpen hori. Zalantzarik gabe, narratiba honetan euskara eta euskal kultura euskal gizartearen balio nagusitzat jotzen dira. Hartara, beste gai sozial eta kultural batzuekin batera, hemengo unibertsitateen bereizgarritzat hartzen dira, hemen bultzatu ezean munduko beste inongo unibertsitatetan landuko ez direnak. Halaz ere, euskararen garapenean egindako urratsak aitortzen diren arren, ildo kritikoan uste da euskara ez dela unibertsitate publikoaren ardatz. Eta hala izan beharko lukeela. Areago, behin baino gehiagotan, unibertsitatea euskal herrigintzaren edo nazio eraikuntzaren proiektuan kokatzen denez, euskararen garapena subiranotasun egitasmoetan txertaturik agertzen da. Iritzi hori oso zabalduta dago euskal hiztun diren elkarrizketatuen artean.

> **Niretzat hizkuntza bereizgarri inportante bat da. EAEn ikasleen %70 inguru ateratzen da D eredutik, eta unibertsitateak horri segida eman behar dio, euskaraz eta**

> **euskaratik. Euskararen etorkizunaren bermea da edozein gaitan bermatzea bere presentzia, eta prozesu horretan unibertsitateak kriston garrantzia dauka. Nire ustez, hemengo unibertsitateek bereizgarri bezala badute hizkuntza bat, lurralde bat, kultura bat […] Eta badago beste kontu bat, subirautzarena, bai alde edo kontra egoteko, baina badago […] Baina, bereziki esango nuke hemengo auzi propioak direla hizkuntza, kultura, lurraldea eta subirautza, alde edo kontra egiteko, baina propioa da, hau da, hori ez dago Madrilen edo Parisen […] Nik ez diot euskararen alorrean ekarpenik egin ez duenik, baizik eta ez dela ardatzeko elementu bat (E-17, 7).**

> **EHUk badu bereizgarri bat, niretzat oso inportantea dena: euskara. Ez da ingelesa. Euskara da. Ez dago beste unibertsitaterik une honetan, eta Mondragonek ere baditu fakultate euskaldun batzuk, baina ez dago beste unibertsitaterik irakaskuntza hizkuntza txiki batean […] Europan ez dago unibertsitaterik karrera ia guztiak ikasi ahal diren hizkuntza gutxitu batean, igual bai magisteritza, edo pedagogia, baina ez ingeniaritza eta beste arlo batzuk. Eta hori EHUn bakarrik dago, eta EHUn berezitasun bat da […] Nire ustez, EHUren berezitasun handiena euskara da, eta egin duen esperientzia eta ibilbide hori euskararekin. Hain zuzen ere, oso probintzianoa iruditzen zait orain dagoen ingelesaren aldeko diskurtso hori (E-5, 9-10).**

Irakaskuntza, ikerkuntza, transferentzia eta hizkuntza-kulturaren arloan egindako ekarpen horiekin guztiekin batera, euskal gizartearen kohesio sozialaren burutzapen garrantzitsua bermatu izana litzateke unibertsitate publikoaren lorpen handienetakoa diskurtso kritikoaren arabera. Iritzi horretan bat egiten du narratiba kritikoak arestian azaldutako diskurtso akademiko-insituzionalarekin. Horrela, ildo kritikoan nabarmentzen denez, askotan epe laburrean ikusi ezinezko emaitza den arren, goi mailako hezkuntzaren demokratizazioaren bitartez erdietsitako kohesio soziala errealitate bat izan da azken hamarkadetan. Bada, epe luzeko atzerako begirada batek uzten du ikusten zein funtzio garrantzitsu bete duen unibertsitate publikoak desberdintasun sozialak apaltzen eta aukera berdintasuna zabaltzen jatorri sozial guztietako gazteentzat.

> **Gaurko ikuspegitik esango nuke funtsezkoa dela ezagutza, eta unibertsitateak ezagutzan betetzen duen funtzioa ikaragarria da. Gizarteak behar du goi mailako formakuntzan aditua den jendea. Orain dela 30 urte uste dut holako esaldi ponposoak ez zirela egiten, eta uste dut unibertsitatea gehiago zela forma bat klaseen artean mugimendu bat egiteko, beti gora joateko, goi mailako ikasketak burutu eta gero. Orduko gurasoek uste zuten beraien seme-alabak unibertsitatera eramanda zerbait lortuko zutela, eta egia da lortzen zela (E-12, 2).**

Kohesio sozialaren alorrean euskal gizarteko klase sozial desberdinetako pertsonen integrazioa bideratzen lagundu duen bezala, narratiba kritikoan adierazten denez, unibertsitate publikoak funtzio esanguratsua izan du berdintasun aukera bultzatzen genero desberdintasunari dagokionez. Abian jarritako genero berdintasunaren aldeko unibertsitate politiken ondorioz, zenbait elkarrizketatuk gaur egungo feminismo instituzionalaren erreferentetzat jotzen dute UPV/EHU, eta arlo horretan egindako lana goraipatzen dute.

> **Nik uste dut feminismoan EHU momentu honetan badela erreferente bat (E-17, 8).**

Kezka sozialak abiaburu harturik, oro har, diskurtso kritikoan auzitan jartzen da unibertsitatean egiten den lanaren ustezko neutraltasuna. Gizartean bezala, unibertsitatean ere proiektu ideologiko eta sozial

desberdinek egiten dutela talka berresten da ildo kritikoan. Aipatu egitasmo horiek modu jakin batean ulertzen dute gizartearen eta unibertsitatearen arteko harremana, baita aldaketaren zentzua ere. Hala, proiektu batzuek aldaketa ekonomikoaren eta teknologikoen alde egiten dute, eta, hartara, indarrean dagoen eredu ekonomikoaren iraupenaren mesedetan dihardute. Beste proiektu batzuek, aldiz, dagoen eredu ekonomiko hegemonikoarekin bat ez datorren eraldaketa sozialaren alde egiten dute. Areago, gizarte aldaketa bultzatu nahi duen pentsamendu kritikoaren ildoa lehenesten dute. Azken esparru horretan kokatzen dute beren burua ildo kritikoko aktore sozialek. Horrenbestez, zentzu zabal batean hartuta, funtzio politikotzat hartzen dute iritzi kritikoan lerratutakoek unibertsitateak egin beharrekoa.

> **Fakultate honetan bertan badaude ikuspegi desberdinak. Beharbada, gizarte zientzietan orokorrean dagoen zatiketa famatu hori: *problems solving* eta *critical studies* ikuspegien artekoa. Batzuek hartzen dute, adibidez, Europar Batasuna dagoen moduan eta pentsatzen dute nola antolatu behar den, bina kuestionatu gabe hori legitimoa den edo neokoloniala den, hau da, ikuspegi kritikorik gabe. Eta beste ikuspegiaren arabera, kuestionatzen da zertarako egiten diren politika konkretu batzuk, nork egiten dituen, zer legitimitate daukan egiteko eta abar, hau da, pentsaera kritikoak planteatzen duena (E-15, 6).**

Pentsamendu kritikoa, ez soilik baina batez ere gizarte zientzietako esparruan kokatzen da elkarrizketatuen ustetan. Are gehiago, ildo kritikotik ikusten denez, une honetan tentsio isila dago, batetik, giza eta gizarte zientzien eta, bestetik, zientzia esperimental eta teknologikoen artean edo, nahiago bada, pentsaera teknikoaren eta pentsaera kritikoaren artean. Unibertsitate ereduen mailara daramate batzuek ildo bi horien artean bizi den teinkadura. Hala, elkarrizketatu batzuen iritzitan, unibertsitate eredu desberdinak daude gaur egun lehia bizian. Eredu horiek tipo ideal modura ulertu behar dira, hots, unibertsitate berean nahasturik agertzen diren funtzionamendu logikak adierazten dituzte. UPV/EHUn ere, hiru ereduak bizi dira elkarrekin, nahiz eta indarrari dagokionez, bakoitzaren pisu espezifikoa desberdina den. Zeintzuk dira, bada, aipatu diren ereduok?

Lehenengo eredua unibertsitate teknokrata litzateke. Eredu teknokrata liberala mundu korporatibista batentzat eginda legoke, eta haren zereginik inportanteena gaur egun dagoen errealitate hegemonikoaren erreprodukzioa izango litzateke, bai irakaskuntzaren bidez, bai ikerkuntzaren bidez, baita unibertsitatearen kudeaketaren bidez ere. Elkarrizketatuaren hitzetan, eredu honen helburuetako bat profesionalak prestatzea da, enpresen beharrei egokituriko langileak sortu ahal izateko. Diskurtso honetan azaltzen denez, gaur egun eredu teknokrata apurka-apurka gauzatzen ari da Euskal Herriko unibertsitate guztien praktikan.

> **Iruditzen zait eredu ideal hori aurkitzekotan mundu anglosaxoian aurkitzen dela, eta azken urteotan mundu asiatikoan ere. Euskal Herrian uste dut labaintzen ari dela unibertsitate mundua harantz (E-22, 3).**

Bigarren eredu bat unibertsitate liberal humanistikoa litzateke. Elkarrizketatu baten ustez, eredu horren helburua kultura eta balio humanistikoak transmititzea da, ez du era hertsi batean profesionalen sorrerari begira jarduten. Eredu humanistikoak europar tradizioan ditu sustraiak; azkeneko hamarkadetan asko ahultzen ari da, eta atzera egiten ari da lehenengo eredu teknokrataren mesedetan. Halaz ere, gizartearekiko erantzukizuna adierazten duten balio humanistak egon badaude, oraindik, batik bat unibertsitate publikoan. Eta diskurtso kritikoan kokaturiko elkarrizketatuek balio horien alde egiten dute, argiro.

> Para mí la universidad no es una fábrica de trabajadores para la empresa [...] Mi concepto universitario es un lugar donde se enseñan valores y contenidos [...] Sí que tengo un sentido de pertenencia a la UPV porque, a pesar de todo, creo que aquí hay valores que en otros sitios se han perdido por completo (E-20, 10).

> Baina, unibertsitatearen egitekoa ote da lan mundurako prestatzea pertsonak? Hau da, enpresa konkretu batek behar baldin badu formazio konkretu bat, eman diezaiola bere langilegoari. Baina, unibertsitatearen funtzioak gizartearentzat izan beharko luke, ez soilik formazio laboral konkretu bat eskaintzea, baizik eta eskaintzea formazio integralago bat eta osoago bat, nahiz eta ikasi ingeniaritza, medikuntza edo magisteritza. Eta horregatik esaten dut bere egiteko propioa dela pertsonak formatzea maila zabal batean, eta lortzea pertsona horiek izatea pertsona aktiboak gizartean, ez soilik langileak (E-5, 12).

> La universidad es necesaria como casa de construcción de conocimiento [...] la universidad como único paso para ser profesional [...] no lo veo. Sí que creo que se está perdiendo esos orígenes de la universidad como casa del saber, y ahora está más pensada hacia la productividad y la empresa (E-24, 5).

Azkenik, hirugarren eredua unibertsitate kontra-hegemoniko eta eraldatzailea litzateke. Unibertsitate mota horren logika da aparatu kontra-hegemoniko aktibo bat lortzeko eragile modura aritzea, gizarte eredu eta zibilizazio eredu berriak eratu ahal izateko. Ikuspegi horren arabera, ezagutza eta pentsamendu kritikoaren sorgune gisa, unibertsitateak ezarrita dauden botereen aurkako eragile aktibo behar luke izan. Ildo horretan, adiera politiko eraldatzaile argiak eransten zaizkie unibertsitateak burutzen dituen irakaskuntza- nahiz ikerkuntza-zereginei.

> [La universidad] me gustaría que fuera una herramienta contra-hegemónica, contra esta cosa de la productividad, y recuperar el pensamiento teórico, filosófico, político, o sea, la teoría desde una perspectiva de reflexión profunda [...] La universidad tiene que estar enfocada hacia la transformación social [...] hay que investigar desde la idea de que la investigación es una práctica política, la investigación y la docencia [...] Cuando estamos en la universidad también estamos haciendo política (E-24, 9).

Ereduok Euskal Herrira ekarrita, zein egoera daukagu elkarrizketatuaren ustetan? Unibertsitateak instituzio konplexuak dira, barnean era askotako osagaiak eta pertsonak dituztenak. UPV/EHUn hiru ereduetako logikak gauzatzen dira. MUn ere beste horrenbeste gertatzen da. Oro har, ikastetxeen, diziplinen eta taldeen arabera logika jakin batzuk nagusitzen dira eta beste batzuk apaltzen. Adibidez, tartean badaude master eta unibertsitate institutu batzuk gizarteko eragile eraldatzaileekin elkarlanean. Halaz ere, joera nagusiak aintzat hartzen badira, gaur egungo unibertsitatea bigarren eredutik lehen eredurako iraganbidean dagoela eta ikuspegi teknokratak gero eta indartsuagoak direla uste dute narratiba kritikoan lerratutakoek.

Trantsizio hori, maila batean edo bestean, euskal unibertsitate sistemako unibertsitate guztietan hezurmamitzen ari da. Ildo kritikoko adierazpenetan jasotzen den legez, Deustuko Unibertsitateak nabarmen egin du jauzi lehen eredurantz. DU historian zehar Espainiako enpresa eliteak eta elite politiko eta korpora-

tiboak prestatzeaz arduratu da, baina, modu formal batean behintzat, formazio humanistikoari garrantzi handia emanda beti ere. Haatik, errentagarriak ez direnez, dagoeneko ikasketa humanistikoak desagertzen eta bigarren lerroan kokatzen ari dira, eta enpresari lotutako ikasketak gailendu dira argiro. Bestalde, Mondragon Unibertsitateak balio humanistiko eta eraldatzaile handiak izan ditu bere sorrera unetik beretik, baina gaur egun Mondragon korporazioak errealitate korporatibo globalizatu moduan dituen erronkei erantzun behar die. Eta tentsioan daude bere eredu parte hartzaile demokratikoa eta globalizazioaren testuinguruak jarritako baldintzak. Izan ere, globalizazioak hasierako orekak aldatu ditu. Ondorioz, gero eta gatazkatsuagoa izaten ari da arrazionaltasun ekonomiko-enpresarialaren eta arrazionaltasun demokratiko-sozialaren arteko uztarketa. Hartara, indartu egin dira enpresa-ildo pragmatikoak MUn ere, beste ildo batzuen kaltetan, nahiz eta HUHEZIren gunea logika horretatik at geratu den. Azkenik, UPV/EHUn ere hiru ereduak daude tentsioan. Batzuen ustetan, eredu humanistikoan kokatzen direnen pisu erlatiboa oraindino esanguratsua da unibertsitate publikoan. Giza eta gizarte zientzietako diziplinetan kokatuta daude indar horiek, batik bat. Auzia da eredu horien pisu erlatiboa desberdina dela. Oro har, logika erreproduktiboak indartu egin dira hala hezkuntzaren arloan nola ikerkuntzan, globalizazio neoliberalak beren ikerkuntza agendak ezartzen dituelako indar handiz gobernuen nahiz Europako Batasunaren bitartez.

Ildo kritikoan lerratutako iritzietan, unibertsitateak eraldaketa soziala izan behar du helburu. Eta unibertsitatean badago eraldaketarako aukera baldin eta irakaskuntzako eta ikerkuntzako logika eraldatzaileak unibertsitatetik kanpo dagoen munduan loturak ezartzen badituzte.

> **[eraldaketarako aukera badago unibertsitatean] beti irakaskuntzako logika eraldatzaile horiek ekartzen baldin badute eragin erreal bat unibertsitate-kanpoko munduan. Esan nahi dut, adibidez, elikadura burujabetzarako post-gradu honek helburu nagusia zeukan prozesu eraldatzaile ukigarri zehatzak martxan jartzea euskal gizartean. Izan ere *Labore Denda*[14], Bilbon zabaldu berri dena, elikadura burujabetzaren oinarrietatik edo baloreetatik sortu zen. Ikasle batzuek martxan jarri dute, esperientzia erreal bat da [...] ez da bakarrik esatea irakaskuntzan txertatuko ditugula logika eraldatzaile teorikoak, ez. Pausuak eman behar dira, eta martxan jarri behar ditugu proiektu errealak gizartean (E-22, 6).**

Ikusi bezala, unibertsitatearen eta gizartearen arteko harremanek osatzen dute ildo kritikoan kokaturiko aktoreen kezka nagusietako bat. Euskal gizartean modu eraldatzailean eta proaktiboan eragitea eta gizartearekin lankidetzan aritzea baitira ildo honen helburu nagusiak. Elkarrizketatu batzuek uste dute gaur egun unibertsitatea nahiko isolaturik dagoela gizarteari dagokionez, edo ez duela gizarte zibileko beste elkarte, erakunde eta taldeekin behar besteko lotura. Zenbaitetan, uste da gizarteko eragileei gainetik begiratzen zaiela unibertsitatetik eta gutxietsi egiten dela haiekiko elkar lana.

> **Uste dut [unibertsitateak] egon beharko lukeela beste gune batzuekin kontaktuan. (E-16, 5).**

> **Hay gente que piensa que su trabajo es sólo dar clase e investigar, y se limita a eso. Pero yo creo que la universidad tiene que contaminar un poco el mundo que le rodea. Ahora la universidad está haciendo una cosa que está bien: tiene su lista de expertos y expertas, y cuando un medio necesita algo se mira en esa lista. Claro, ¿quién está**

---

14 *LABORE:* 2017an Bilbon eraturiko kontsumo elkartea.

> **en esa lista? Gente que tiene ese sentimiento de que hay que hacer algo más por la sociedad. Entonces, yo creo que hay gente que piensa que parte de nuestro trabajo es devolver a la sociedad lo que se hace aquí. Eso para mí es acercar la universidad a la sociedad, pero creo que hay que hacerlo con un mínimo de humildad [...] La universidad, o los universitarios, igual hemos sido un poco distantes o un poco prepotentes, y para mucha gente sigue siendo una élite de personas inaccesible (E-20, 13).**

Aipaturiko ikuspegi horrek badu ondoriorik unibertsitateko beste alderdi batzuk hautematean. Izan ere, gizarteari buruzko kezka ez da produkzioaren eta irabazte ekonomikoen terminoetan ulertzen diskurtso kritikoan. Hartara, unibertsitateak egiten duena ebaluatzeko eta balioztatzeko moduetan ere islatzen da begirada kritikoa. Gaur egun ohikoa da unibertsitate instituzioaren eta hartan dauden irakasle-ikertzaileen lanaren kalitatea produktibitate irizpideen arabera neurtzea. Baita, emaitza neurgarrien araberako ranking-ak osatzea ere unibertsitateen artean. Baina, ildo kritikoko aktoreek zalantzan jartzen dute unibertsitatearen emaitza guztiak termino ekonomikoetan neurtu behar direnik, bai emaitza orokorrei begira, bai ikertzaileen emaitzei begira. Aitzitik, tokiko gizartearekiko transferentzia neurgarrietan eta zenbakiz neurtu ezinezkoetan ere hezurmamitu behar da kalitatea, haien ustetan.

> **En este momento yo he abandonado la investigación, porque no tengo tiempo [...] El tema de la divulgación yo ya lo llevaba bastante fuerte. De cuatro años a esta parte ha cambiado mucho mi perfil, porque a la investigación no sé si volveré el algún momento. Ahora [...] es un trabajo diferente, porque tiene mucho contacto con la parte no universitaria de la sociedad (E-20, 6).**

> **La universidad cuando se define en cuestión de valores en todos los lugares a nivel teórico es una buena universidad, pero en la que tenemos hoy en día solo importan las Qs de calidad, es decir, parece que se compite para ver quién es el mejor en tal ranking. A mí los rankings no me interesan, porque no creo que así se mida la calidad [...] Yo creo más en esa universidad un poco más utópica. Yo participio ahora en el plan estratégico (E-20, 6).**

### 3.3.2. Gabeziak

Merkatu globalen hedakuntzak eta ondorengo unibertsitateen nazioartekotze prozesuek eragin handiak izan dituzte euskal unibertsitateen azken urteetako eraldaketan, eta ez beti onerako, narratiba kritikoan behin baino gehiagotan adierazten denaren arabera. Nazioartekotze eredu desberdinak daudela adierazten dute elkarrizketatu batzuek. Ildo horretan, interesgarri jotzen dute nazioarteko sareak sortzea eta euskal unibertsitateak horietan integratzea, baina ez halabeharrez Europako edo mundu garatuko ehunak lehenetsiz. Baina, ikuspegi horretatik aldenduz, gaur egun nagusitzen ari den unibertsitateen nazioartekotze eredua beste ildo batzuetatik doala irizten diote. Zein norabide hartu du unibertsitateen nazioartekotzeak ildo kritikoa partekatzen duten aktore sozialen ustez? Unibertsitateen nazioartekotzea merkatu ekonomikoaren ezarpen gisa ikusten dute eta haren aldarrikapena diskurtso teknokratikoaren barruan kokatzen dute. Hartara, unibertsitatearen eginkizuna merkatuaren premiei erantzutea eta merkatua giza baliabide prestatuez nahiz baliabide teknologikoz hornitzea dela uste dute. Jakina, ildo kritikoko ahotsak ez datoz bat gero eta indartsuagoa den joera horrekin. Ildo kritikoko aktore sozialek pentsatzen dute, gainera, Eusko Jaurlaritzak, beren politiken bitartez, bereganatu eta indartu egin duela merkatuari lotutako nazioartekotzearen ideia, eta merkatu joerekiko autonomia eza erakutsi duela.

> **Nazioartekotze hori oso lotuta dago diskurtso teknokratikoarekin, hau da, pentsatzearekin unibertsitateak demostratu behar duela zerbaitetarako balio duela, eta, antza, hori demostratzeko daukan bide bakarra da merkatuaren diskurtsoa [...] Nazioartekotze hori beti dago lerratuta *mainstream* den nazioartekotze eredu batekin, ze ez da nazioartekotze bat ez dakit zein herrialderekin bat egiteko ildo konkretu batean; bada, hain zuzen ere, unibertsitate erreproduktore bat gero eta gehiago bilakatzeko bide bat (E-5, 10).**

Joera horren ondorioak hainbat arlotan nabarmendu dira. Horietako bat da ikerkuntza. Ikerkuntzaren merkantilizazio gero eta handiagoa gertatu da, ildo kritikoaren arabera. Merkantilizazio horren hainbat ondorio aipatzen dituzte elkarrizketatuek. Lehenik, Europatik eta gobernuetatik ikerketarako bultzatzen eta finantzatzen diren gai zerrendak ezartzen joan dira unibertsitateetan. Gai jakin batzuk, batzuetan tokiko gizartearen berrikuntza eta ongizate sozialari loturik daudenak, agenda horietatik at gelditzen dira. Kasurik onenean, kanpoan gelditze horrek aitortza ukatzen dio egin daitekeen bestelako ikerkuntzari, eta, txarrenean, eragotzi egiten du «merkatu agenda» eta merkatu interesetatik kanpora geratzen diren esparruetako ikerketa. Bestalde, oinarrizko ikerkuntzaren eta ikerkuntza aplikatuaren arteko aldeak areagotu dira. Oinarrizko ikerkuntzak ez du epe motzeko emaitzarik ematen eta merkatu interesetatik kanpo geratzen da sarritan. Baina, aldi berean, oinarrizko ikerkuntzarik gabe ezin da ikerkuntza aplikaturik egin. Hala, gaizki finantzatutako unibertsitate publikoen esku geratu da oinarrizko ikerkuntzaren ardura. Nola finantzatu behar da ikerkuntza mota hori? Horixe da ildo kritikoko aktore sozialek azaltzen duten kezketako bat.

> **Ikerkuntzaren ildo nagusiak geroz eta gehiago markatzen ari dira merkatuaren aldetik eta ez estatuen aldetik. Eta, klaro, horrela izanda, zuk nahi baduzu ikerkuntza egin eskatu behar duzu finantziazioa Europan. Europan markatzen dira ildoak, eta handik kanpo geratzen den ikerkuntza oso bigarren mailakoa da eta ez dauka errekonozimendurik (E-12, 7).**

Enpresara eta berrikuntza teknologikora bideratutako ezagutzaren produkzioaren testuinguruan, nazioarteko lehiari aurre egiteko ikerketa gero eta gehiago unibertsitate publikotik kanpo kokatzeko estrategia burutu du Eusko Jaurlaritzak. Horretarako, beste ikerkuntza erakunde batzuk sortu ditu. Bestalde, ikerkuntzak hartu duen garrantziaren eraginez, unibertsitatean gero eta presio handiagoa ezarri da akademikoen gainean ikerketaren alde lan handiagoa egin dezaten, irakaskuntzaren balioaren kaltetan. Hala, akademikoen artean egonezin handia sortu da ikerkuntzaren eta irakaskuntzaren eskakizun kontraesankorren arteko tentsioen ondorioz. Ildo horretan, bi eratako iritziak plazaratu dituzte ildo kritikoko elkarrizketatuek. Batetik, irakaskuntza balioztatzeko beharra azpimarratu dute. Bestetik, ikerkuntza eta irakaskuntza pertsona desberdinek egitearen inguruko eztabaidari hasiera eman beharko zaiola noiz edo noiz iradokitzen dute.

> **Momentu batzuetan irakaskuntzan egiten duguna oso gutxi baloratzen da [...] Iruditzen zait badagoela holako inbertsio bat formakuntzan, baina gero ez dakit zein punturaino baloratzen den irakaskuntzan egiten duguna. Eta gauza batzuk ondo egitea oso zaila da [...] orduan iruditzen zait alde batetik esaten digutela irakaskuntza lehena dela, baina gero egiten duguna oso gutxi baloratzen da. Eta uste dut gehiago zaindu beharko genukeela irakaskuntza, ezin da izan borondatezko zerbait [...] Beste kontu bat da ea zer ikerketei ematen zaien balioa, eta zenbat denbora izaten dugun ikertzeko. Uste dut egoera arriskutsuan gaudela, gauza askotan egon behar dugulako, eta, gainera, segun zein arlotan mugitzen zaren, baduzu zenbait ideia argitaratzeko aukera edo ez, eta horrek bultzatu edo oztopatu ahal du zure karrera (E-16, 6).**

> **Benetan Euskal Herriak behar du leku guztietan ikerkuntza bera eta maila berekoa? Edo hasi behar gara bereizten? Eta, klaro, horrek sortzen du beste arazo bat: lehen eta bigarren mailako irakaskuntza sortzea (E-12, 6).**

Arestian esan bezala, nazioarteko ikerkuntzan eta nazioarteko agenda ofizialetako gaietan jarritako lehentasunak, baztertu egin ditu ikertzaileen ikerketa interesetatik nazioartean salgarriak ez diren gaiak, narratiba kritikoaren ustetan. Gai eta ezagutza horietako asko, tokiko gizarteari, alegia, euskal gizartearen interesi lotutakoak dira. Era berean, alboratuta geratzeko arriskuan daude euskaraz egindako argitalpenak, ingelesak komunikazio zientifikoan hartu duen monopolioaren aurrean, eta horrek ondorio kaltegarriak izan ditzake euskal kulturaren garapenarentzat.

> **Euskaraz egiten duzun guztia da zuk pentsatzen duzulako bueltatu behar diozula herriari, baina bestela lasaiago zaude hori egin gabe, ze ez diozu etekin unibertsitariorik ateratzen horri, nahiz eta ordu pila bat sartu (E-17, 5).**

Azkenik, adierazten dute ildo kritikoko elkarrizketatuek, nazioarteko argitalpenek ingeniaritza eta natur zientzietako formatuetan argitaratzera behartzen dituzte diziplina guztietako ikertzaileak, baina, jakintza arlo desberdinetako ezagutzak formatu desberdinak eskatzen dituzte, haien iritziz. Esaterako, liburu monografikoa artikulu laburra baino egokiagoa izan liteke gizarte zientzietan. Kezka bizia agertzen dute elkarrizketatuek gaur egun instituzionalki bultzatzen diren prozesu horien aurrean. Izan ere, aipatu prozesuek (ikerkuntza agenda estandarrak, ingeles hutsezko argitalpenak nazioarteko aldizkarietan, eta paradigma teknikoaren arabera antolaturiko argitalpenak) urrundu egiten dute unibertsitate publikoa euskal gizartearen sektore askoren interesetatik, eta zaildu egiten dute euskal gizartearen zerbitzura dagoen unibertsitatearen garapena, ikerkuntzaren arloan behinik behin. Era berean, neurri berberekin neurtzen dituzte diziplina guztietako emaitzak, eta murriztu egiten dute ikerketaren inpaktua ulertzeko modua.

> **[Europara egindako] egokitzapen horren parte dira baita ere orain guztiok bizi dugun estresa eta neura horiek argitaratzeko inpaktudun aldizkarietan. Eta horrek eraman gaitu beharbada, desatenditzera euskal perspektibatik inportanteak izan daitezkeen mila kontu: gure hizkuntzan argitaratzea, gure publikoarentzat argitaratzea, eta gure euskal gizartearen zerbitzura egongo den jakintza eta ikerketa bat egiten saiatzea. Guztiok jarri gara beste norabide batean (E-22, 10).**

> **Badago joera unibertsala Mendebaldeko herrialdeetan, hau da, gure lana eraginkorra eta lehiakorra izan behar da eta, nola neurtzen da hori? Ba, gehien bat JCR irizpidearen arabera, eta horrek suposatzen du gehien bat argitaratzea nazioarteko aldizkari anglo-saxoietan [...] Batzuetan daukadan pertzepzioa da errektoretzan dauden gehienak ingeniaritzatik eta natur zientzietatik datozela, eta horrek beraien ikuspegia moldatzen duela [...] Ingeniaritzan, adibidez, oso gutxitan argitaratzen dute liburu bat, beraiek batez ere nazioarteko aldizkarietan argitaratzen dute. Eta gizarte zientzietan hori ez da normalena. Agian, gure ezagutza testuingurukoagoa delako gertatzen da hori. Orduan, Euskal Herriari buruzko ikerketa bat egiten baduzu AEBetako aldizkari batean argitara daiteke, baina zailagoa izango da. Eta hori ez da gertatzen ingeniaritzan edo matematikan. Nik uste dut berezitasun horiek askotan ez dituztela kontuan hartzen. Adibidez, gure arloan patente gutxi ateratzen dira, baina gizarte zibilean badauka bere eragina gure ikerketak, eta hori ekarpen kualitatibo bat da (E-15, 8).**

> **Nik adibidez nahiko argitaratu dut, hasieran ia dena *Hegoan*, gero, jakin nuen zer zen seiurtekoen kontua, eta gertatu zena izan zen Hegoan argitaratutako gauzak ez zituztela kontuan hartzen seiurtekoentzat. Orduan, horretarako argitalpen guzti horiek ez zuten balio ia-ia. Eta, klaro, horrek frustrazio handia sorrarazten du inguruko ikerlariengan, ni barne. Orduan, orain egokitzen ari gara gure produkzioaren zati bat irizpide horietara (E-15, 7-8).**

Oro har, irakaskuntzan zein ikerkuntzan ezarritako kalitate estandarrek eta giza baliabideen kontrolerako kudeaketa gerentzialistek areagotu egin dute mundu akademikoan bizi den presio produktibista. Gero eta gehiago ikertu eta argitaratu behar da nazioarteko aldizkari indexatuetan, horrek bermatzen duelako, hein handi batean, karrera akademikoa. Eta gero eta irizpide eta neurgarri zorrotzagoak ezarri dira egindako guztia neurtu eta egiaztatu ahal izateko. Hala, elkarrizketatuak kexu dira kalitate neurriek ezartzen duten gehiegizko kontrolagatik, etengabeko ebaluazio eta akreditazioen bitartez. Horrekin batera, hazi egin da irakaskuntzari eta, bereziki, ikerkuntzari lotutako lan burokratikoa ere, hainbesteraino hazi ere, non, unibertsitateko irakasle-ikertzaileen zama handienetako bat bilakatu den eguneroko lanean.

> **Orain dela gutxi amaitu dugu europar ikerketa hori, eta ikerketaren barruan prozedura burokratikoak hartzen duen pisua hain handia da, nolabait, batzuetan gogoa kentzen dizuna beste gauza batzuk egiteko [...] Orduan, ikerketa gustatzen zait, gustura egiten dut ikerketa [...] Eta gustatzen ez zaidana da burokraziarekin zerikusia duen guztia (E-16, 4).**

> **Gero eta zama burokratiko handiagoa daukagu unibertsitatean [...] Lehen pertsona batzuek egiten zuten lana orin irakasleok egiten dugu: kalitatezko inkestak, txostenak... Ni kokoteraino nago hainbeste gauzekin, hori niretzat txarrena da. Gero, kalitatearen kontrola. Geroz eta kontrol gehiago dago: osagarriak, akreditazioak... (E-15, 7).**

## 3.4. Euskal unibertsitate sistema (EUS)

Diskurtso kritikoaren ildoan kokatu diren aktore sozialen artean nazio-pertenentziaren banaketa-ardatzak edo *cleavageak* aldeak ezarri ditu euskal unibertsitate sistema ulertzerakoan. Elkarrizketatu batek dioenez, berak ez du bereizketarik ikusten euskal unibertsitate sistemaren eta gainerako unibertsitate sistemen artean. Eta arazorik gabe sartzen ditu MU, Deustuko Unibertsitatea eta UPV/EHU sistema horren barruan. Elkarrizketatu gehienek, ordea, problematizatu egiten dute sistema bera, herri- (edo, adiera batzuetan, nazio-) proiektu baten barnean kokatzen dutelako unibertsitatea. Auzia bi alderditan planteatzen da. Batetik, sisteman parte hartzen duten unibertsitateei (eta, hartara, lurraldeei) dagokienez. Bestetik, sistemaren funtzionamenduari berari dagokionez.

Lehenengo auziaren barruan, diskurtso honetan kokaturiko aktore gehien gehienek bereizi egiten dituzte gaur egun euskal unibertsitate sistemaren barruan ofizialki parte hartzen duten unibertsitateak, eta balizko euskal unibertsitate sistema batean parte hartu beharko luketenak. Izan ere, elkarrizketatuetako batek adierazten duen bezala, Autonomi Erkidegoan indarrean dagoen legeaz harago, gaur egun egiteke dagoen errealitate batez hitz egin beharko genuke euskal unibertsitate sistema aipatzen dugunean. Sistema hori proiektu batean txertatzen du berak. Hain zuzen ere, 70 eta 80ko hamarkadetan euskal uni-

bertsitatea sortzeko asmoetan zegoen ideia hartzen du abiaburutzat balizko euskal sistema irudikatzeko, onartuta ere, geroztik ez zela babes politiko eta sozial nahikoa egon proiektu hori gauzatzeko.

> **Nire ustez, euskal unibertsitate sistemaz hitz egiten denean egiten da egiteke dagoen gauza batez. Uste dut euskal unibertsitatea identifikatu genuela oso garbi gauza berri bat izan behar zela [...] Identifikatu genuen euskal unibertsitatea sortu behar zela, ze Deustu ez zen euskal unibertsitatea, MU ez zen euskal unibertsitatea, eta EHU ez zen euskal unibertsitatea, beste gauza bat sortu behar zen [...] Eta denborarekin konturatu gara euskal unibertsitatea sortzea zela proiektu bat oso baliabide handiak behar zituena, eta babes sozial eta politiko handia behar zuena [...] Orduan geratu gara [...] sistema bezala elkarte autonomoaren hezkuntza sistemaren baitan integratuta (E-12, 8).**

Halaz ere, sistemaren kontzeptua bera interesgarri jotzen da. Izan ere, batzuen ustetan, ondo dago herri ikuspegitik integrazio termino horietan pentsatzea Euskal Herriko unibertsitateak. Baina, gaur egun indarrean dagoen legeak Autonomi Erkidegoko lurraldeetako unibertsitateak hartzen ditu barnean. Ez ditu Euskal Herriko gainerako lurraldeetako unibertsitateak aintzat hartzen. Horiek horrela, erantzun desberdinak egon dira euskal unibertsitate sisteman parte hartzen duten unibertsitate kopuruari dagokionez. Dena den, elkarrizketatu gehienek legeak aintzat hartzen dituen hiru unibertsitateak aipatu dituzte sistemaren partaide gisa (UPV/EHU, Deustu eta MU), eta baten batek UEU ere sartu du multzoan.

Bestalde, ildo kritikoan lerratutako hainbat aktore sozialek pentsatzen dute, Autonomi Erkidegoko legeak arautzen dituen arloez harago, Euskal Herrian dauden unibertsitateak *de facto* espainiar (edo frantziar) unibertsitate sistemaren barruan daudela, eta horrenbestez, EAEko legeak autonomia esparru estua ireki duela EAEko unibertsitateen jardunarentzat. Iritzi hori partekatzen dutenen arabera, oinarrizko gauzak estatuaren esparruan erabakitzen dira eta estatu legeek ezartzen dute hemengo unibertsitateen funtzionamenduaren marko orokorra. Nagusitasun horrek eguneroko kudeaketan ez ezik irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren jardunean ere eragina dauka eta, hartara, irakasle-ikertzaileen ibilbidean eta promozioan, bereziki ikerkuntza euskaraz burutu nahi denean.

> **Uste dut unibertsitate sisteman, espainolean behintzat, dena kanpoan erabakitzen dela, eta ikerketa lerro batzuk promozionatzen direla eta beste batzuek ez dutela tutik balio. Hizkuntza batzuek asko balio dute eta beste batzuek ez dute ezer balio (E-17, 4-5).**

> **Euskal unibertsitate sistema askok esango dute EAEko unibertsitateena dela. Eta hori gezurra da. EAEk ez dauka autonomiarik, daukaguna da unibertsitate sistema espainola eta frantsesa. Eta punto. Uste dut horretaz kontziente izan behar garela (E-2, 7).**

Arestian aipatu denez, diskurtso kritikoan detektaturiko bigarren auzia sistemaren funtzionamenduari buruzko gogoetan azaldu da. EAEko unibertsitateen esparrua hartuta ere, osatzen al dute erkidegoko unibertsitateek sistema bat beren funtzionamendu praktikoan? Elkarrizketatuek aho batez adierazi dutenaren arabera, ez. Bada, sistema batek ezinbesteko du osagai guztiak biltzen dituen egitura bat, harreman instituzionalez eta harreman ez formalez osaturikoa. Eta, adiera hori hertsiki hartuta, euskal unibertsitate sistemarik ez dagoela berresten da diskurtso kritikoan lerratzen direnen aldetik.

> **Sistema berez da egitura bat, hezkuntza sistema da egitura bat. Baina egun ez dago Euskal Herriko unibertsitate guztiak batzen dituen egiturarik [...] Harreman informalak ere oso urriak dira (E-2, 7).**

Ildo horretan, diskurtso kritikoan kokaturiko aktoreek uste dute euskal unibertsitate sistemaren aitortza juridikoa Eusko Jaurlaritzak unibertsitate finantziazioa bideratzeko erabilitako tresna izan dela. Hain zuzen ere, tresna horrek ahalbidetzen du, gaur gaurkoz, EAEko hiru unibertsitateen arteko diru banaketa. Baina, sistema gisa, hortik aurrera egin beharreko urrats gutxi gauzatu direla pentsatzen dute legean jasota dagoena errealitate bihurtzeko. Aitzitik, elkarren arteko lehiak (ikasleen matrikulak eta baliabideak erakartzeko) eragotzi egin du sor litezkeen askotariko harremanak garatzeko aukera. Hiru unibertsitateen izaera desberdinak ere ez du errazten, batzuen iritzitan, sistemaren egituraketa. Izan ere, jatorri eta kultura desberdinetako unibertsitateak ditugu MU, Deustu eta UPV/EHU. Eta merezi duten tratamendu publikoak eta politikoak ere errealitate desberdin horien araberakoa izan beharko luke. Besteak beste, aintzat hartu beharko litzateke unibertsitate publikoaren garrantzia, publikotasunagatik beragatik eta tamainagatik.

> **Gertatzen dena da sistema horretan oso errealitate unibertsitario ezberdin dauzkagula: daukagu publiko handiena, daukagu pribatu kristau-katoliko klasikoa, eta daukagu pribatu-kooperatibo bat. Eta [...] oso kultura desberdinak dira, eta bakoitzaren barnean ere oso errealitate eta kultura ezberdinak topa daitezke [...] Eta agian bakoitzak merezi duen tratamendu publikoa eta politikoa ezberdina izan beharko litzateke. Esan nahi dut, egia da kontzeptu horretan diluitzen dela euskal unibertsitate publikoak beharko lukeen lekua eta protagonismoa, bakarrik neurriz handiena delako askogatik. Eta, orduan, ikuspegi horretatik diluitze hori injustua izan daiteke. Eta, bestalde ere publikoa delako (E-22, 7).**

Benetako sistema osatze aldera profitatu ez diren aukeren artean aipatzen da unibertsitateen arteko lankidetza ikerkuntzaren arloan. Ildo horretan, nabarmentzen da ez dagoela araututa arlo horretako elkarlana bultzatzeko biderik EAEko unibertsitateen artean eta oso ahulak direla banakoen artean sortzen diren ikerketa-erlazioak.

> **Sistema bezala ez dut uste funtzionatzen duenik [...] Sistema bakar batean gaude, beraz, taldeak izan daitezke EHUkoak, Deustukoak eta MUkoak. Baina, nik dakidala ez da bultzatzen talde mistoen eraketa [...] Nik esango nuke Eusko Jaurlaritzak nominalki planteatu duen kontzeptu bat dela, azken finean, dirua banatu behar duelako hiru unibertsitateen artean, eta besterik ez (E-15, 9-10).**

> **Harreman informalak ere oso urriak dira [...] ez dago harremanik, ez dago unibertsitateen arteko harremanik baldin ez bada hitzalditxo bat ematen duela ez dakit nork (E-2, 7).**

Unibertsitateen arteko sinergiak sortzeko zailtasunaren adibideak mahai gaineratzen dituzte elkarrizketatu batzuek, oraintsuko gertakariak gogoan hartuta. Horietako bat da Udako Euskal Unibertsitatearen ekimenez UPV/EHUrekin lankidetzan bultzatu nahi izan den on-line eskaintzaren aukera galdua. Beste gertakari esanguratsu bat da bai Nafarroako Unibertsitate Publikoan bai Deustuko Unibertsitatean dauden proiektuak medikuntza fakultate berriak sortzeko. Adibide horietan guztietan ikusten dituzte unibertsitateen korporatibismoaren zantzuak eta elkarrekin proiektu partekatuak bideratzeko dauzkaten trabak eta mesfidantzak. Baita ikuspegi estrategiko baten premia ere.

> **Nik uste dut UEUren aldetik mugimenduak ematen ari direla fokua jartzeko ez hainbeste euskal unibertsitatean, baizik eta goi mailako ikasketa osotasunean euskaraz egin ahal izatean [...] [Kepa Sarasolak] esaten du on-line eskaintzen den formakuntza ez dela konpetentziarako, baizik eta aukera bezala planteatzen dutela [...] Gainera, oso bitxia da eztabaida horietan gauden artean, ikusten dugula Gasteiz hirian Baskoniaren ildotik ekarri nahi direla Kataluniako bi institutu unibertsitario eskola pribatu moduan eta, gainera, eskola pribatu horiek Bartzelonako Unibertsitateari atxikita egongo liratekeela. Eta hemen ez gara gai gure proiektuak egiteko, diseinu malguago bat sortzeko. Eta beti gaude begiratzen gure arteko lehia. Eta, nire ustez, gai izan bagara *EUSKAMPUS* edo *TECNALIA* bezalako proiektuak aurrera eramateko, zergatik ez sortu beste sinergia batzuk? (E-12, 8-9).**

## 3.5. Etorkizuneko desafioak eta proposamenak

Narratiba kritikoan nabarmentzen denez, unibertsitate publikoaren kalitatea kanpo irizpideen arabera ez ezik bertoko (hau da, euskal gizarteko) irizpideak ere aintzat hartuta neurtu beharko litzateke. Hartara, une honetan nazioarteko kalitate irizpideekin eta ranking-ekin dagoen itsumena gainditu beharko litzateke, unibertsitateari buruzko gogoeta sakon bat egiteko. Sortu nahi den gizarte ereduaren inguruko gogoetak izan beharko luke abiapuntua, horren araberako unibertsitatea definitzeko ondoren. Elkarrizketatuen ustetan, euskal gizartearen premiei erantzuteko sustatu beharreko balioak eta printzipioak zehaztu behar dira lehendabizi, eta horietara bideratutako unibertsitate eredua eraikitzen hasi gaur egungo ereduaren kritikatik abiatuta. Unibertsitate horrek, jakina, publikoa behar luke izan, publikotasunaren balioa aldarrikatzen delako narratiba kritikoa partekatzen dutenen artean.

> **[Nahi nuke] ez egotea hain baldintzatuta nazioarteko ranking-ekin, baizik eta pentsatzea gure baloreak eta gure ranking-ak nolakoak izanbehar diren gure errealitateari erantzuteko (E-12, 11).**

> **Zer nolako mundua nahi dugu? Ba horren araberako unibertsitate bat beharko dugu. Eta hori egin behar da herriarekin batera (E-18, 14-15).**

Ildo beretik, adierazten da unibertsitate publikoak lidergo intelektuala eta akademikoa berreskuratu behar dituela gizartean. Horrek esan nahi du proiektu eta ideia berritzaileak aurkeztu behar dizkiola gizarteari (on-line irakaskuntza aipatzen da behin baino gehiagotan) eta, etekin ekonomikoak sortuko dituzten egitasmoak gauzatzeaz gain, ongizate eta berrikuntza soziala bermatuko dituztenak ere hezurmamitu behar dituela. Lidergoa bereganatzeak eskatzen du sinergiak eta aliantzak bilatzea mundu zientifiko-akademikoko nahiz gizarte zibileko beste entitate batzuekin, gizarteko eremu berrietara ailegatzeko eta jendearen bizitzetan eragina eduki ahal izateko. Izan ere, lidergoak barnean hartzen du beste eragile batzuekin lankidetza sustatzea. Batetik, proiektu partekatuak landu behar dira unibertsitateen artean, eta haien arteko harremanak saretu, euskal unibertsitate sistema egituratu bat osatu ahal izateko. Bestetik, euskal gizarteko bestelako eragileekin eta mugimendu sozialekin harremanetan egon behar du unibertsitateak. Hitz batean, elkartruke intelektuala eta elkartruke soziala uztartu behar dira unibertsitatean. Planteamendu horrek guztiak, jakina, gaur egun ez EAEko gobernuan ezta unibertsitatean ere ikusten ez den ikuspegi estrategikoa lantzeko beharra uzten du agerian, epe motzean jokatu gabe. Gauza bera esaten da finantziazioari dagokionez. Ezin da unean uneko bulkada politikoen arabera jokatu, edo kontrol politiko nahiaren arabera.

> **Nik uste dut unibertsitateak berreskuratu beharko lukeela bere lidergo intelektuala eta akademikoa gizartean (..) edukietan eta gizartearentzako proiektu eta ideia berritzaileak (E-5, 12).**

> **Bilatu behar dira sinergia berriak erakunde berriekin eremu berrietara ailegatzeko, eta presentzia handiagoa edukitzeko lidergo batekin. Eta horretarako uste dut behar dela ikuspegi estrategiko bat (E-12, 11).**

> **Niretzat, hasi behar dugu proiektu partekatuak egiten eta elkar harremantzen eta saretzen bestelako sinergia batzuk sortzeko, gure artekoak, hemengo unibertsitateen arteko sinergia batzuk sortu [euskal unibertsitate] sistema hori egituratu ahal izateko (E-2, 18).**

Lankidetzarekin batera, garrantzitsu jotzen da gizarteari itzultzea unibertsitatean sortutako ezagutza. Unibertsitatea ezin da izan gizarteak urrun eta arrotz ikusten duen erakundea. Horrenbestez, gizartearekiko harremanetan dauden komunikazio hutsuneak gainditu behar dira. Ildo horretan, unibertsitate publikoak bere lanaren proiekzio soziala hobetzeko ahalegina egin behar du. Ez da nahikoa ikerkuntza egitea eta jakintza sortzea; hori guztia, gero, gizarteari transmititzen jakin behar da. Era berean, unibertsitateak euskal gizartean gaur egun gori gorian dauden erronka sozialei ere erantzun behar die, euskal gizartearen berezko auziak direlako (horien artean aipatzen dira elkarrizketetan euskara, lurraldea, subiranotasuna eta memoria). Gainera, uste da euskal gizarteak euskaltasunean ardaztutako unibertsitatea nahi duela, eta horretara bideratu behar duela unibertsitate publikoak bere esfortzua.

> **Nik esango nuke gure auziak eta indarguneak baliatuz, ikerketa eta jakintza egiten asmatzea, eta gero hori gizarteari transmititzen jakitea. Eta lehen aipatu dut, horretan uste dut klabe bat dela hizkuntzan ardaztea. Zer egingo dugu euskararekin unibertsitatean? Zer egingo dugu lurraldearekin? Zer egingo dugu subirautzarekin? Zer egingo dugu azken 60 urteetako memoriaren errelatoarekin? Uste dut badaudela gai kandente batzuk, eta ez dut esaten unibertsitatea ez dagoenik hor, ze uste dut badagoela. Baina, uste dut gehiago egon beharko lukeela. Oro har, gizartean sortzen diren gaiak, baina, bereziki, gureak direnak. Gai asko unibertsalak dira, baina ikasi beharko genuke mundua guretik pentsatzen, nahiz eta elikatuko garen munduko jakintsuenetatik. Uste dut hori unibertsitatearen lana ere badela (E-17, 8).**

> **Unibertsitatean egiten den ikerketa lana uste dut ez dela ondo proiektatzen gizartean, komunikabideetan, foro publikoetan eta abarretan. Badago dirua jardunaldiak eta horrelakoak antolatzeko, baina oso diru gutxi ematen dute horretarako. Eta, gainera, argi dago Bizkaiko gizarte zibila ez dela etorriko hona eguerdiko hamabietan. Hor, behar bada, gauza gehiago egin litezke gure lana gizartean proiektatzeko (E-15, 11).**

Unibertsitatearen barne funtzionamenduari begira ere egin dituzte iradokizunak elkarrizketatuek, irakaskuntza nahiz ikerkuntza aztergai hartuta. Irakaskuntza gehiago baloratu behar da akademikoen lanean. Bestalde, graduetan zein graduetatik at, irakaskuntza eskaintza malgutu beharra adierazi dute batzuek, gaur egun euskal gizartean egon daitezkeen askotariko prestakuntza beharrei egokitzeko (besteak, bes-

te, etengabeko prestakuntza beharrei). Arestian aipatu den bezala, on-line ikasketak eskaintzeko premia ikusten da. Horrekin batera, irakasleen eta ikasleen arteko harremanak sendotzea eta unibertsitate bizitza harreman horizontalen bitartez egituratzea proposatzen da. Ikerkuntzari dagokionez, premiazkoa ikusten da nazioarteko sareetan integratzeko laguntza eta bikaintasunezko taldeei ez ezik gainerakoei ere lan duina egin ahal izateko finantziazioa bermatzea. Izan ere, kezkaz hartu dira ikerketa taldeen jardunarentzat finantzaketaren murrizketak ekarri dituen ondorio kaltegarriak. Azkenik, oro har, deitoratu egiten da irakaskuntza nahiz ikerkuntza lanen inguruan sortutako burokrazia eta lan administratiboa, eta eskolak emateko eta ikertzeko eragozpen handitzat jotzen da burokratizazioa akademikoen lan bizitzan.

> **Nik laguntza administratibo gehiago eskatuko nuke [...] Laguntza administratibo gutxi daukagu, eta horrek kentzen digu denbora ikertzeko eta gure klaseak prestatzeko. Lan zama hori gero eta handiagoa da: burokrazia, proiektuen justifikazioak, seiurtekoak lortzeko zure meritu guztiak justifikatu behar dituzu ziurtagiriekin... Horrek kriston lana suposatzen du. Uste dut lan burokratiko hori oztopo bat dela. Gero, nazioarteko sareetan parte hartu nahi baldin baduzu, proaktiboa izan behar duzu, baina izugarrizko lana da (E-15, 10).**

> **Ikerketa arloan nik uste dut nabaria dela talde asko kanpoan geratu direla orain dela bi urteko deialdian [...] Eusko Jaurlaritzako proiektuen deialdiaz [ari naiz] [...] Finantziazioa kontzentratu zen puntu gehien eskuratu zituzten taldeetan, eta beste asko finantziazio barik geratu ziren. Orduan, ia bakarrik eszelentziazko taldeek eskuratu zuten finantziazioa. Nireak ere lortu zuen [...], baina beste batzuek ez, eta talde onak dira, eta ibilbide luzekoak dira, baina ez zuten dirurik lortu. Orduan, uste dut aukera zabaldu behar dela, bestela, unibertsitatearen zati inportante bat kanpoan geratzen da. Eta beraiek ere ikertzen dute (E-15, 11).**

Orokorki, unibertsitate publikoak eredu eraldatzailea eta euskal gizartearekin konprometitua garatu behar du, euskal gizarteak etorkizunari begira dituen erronkei modu berritzailean erantzun ahal izateko: gizartearen ongizatea eta berrikuntza, trantsizio energetikoa eta ekologikoa, gizarte euskaldundua... Desafio horiei aurre egiteko pentsamendu kritikorako gune gisa eratu behar da unibertsitatea. Are gehiago, batzuen ustetan, gune sozial eredugarri izan behar du unibertsitateak berak. Horiek horrela, dena ezin da homologagarri eta zenbakarri izan bertan, dena ezin da modu ekonomikoan neurgarri bihurtu, ildo kritikoan kokatzen direnen iritzitan. Unibertsitate lehiakorra izateaz gain lankidetzan oinarrituriko unibertsitate ere izan behar du unibertsitate publikoak, euskal gizartetik sortua eta euskal gizartearen zerbitzura dagoena.

> **Para mí sería maravilloso que la universidad fuera un modelo social y que no estuviera tan preocupada en cumplir esos objetivos y esos rankings. Hay cosas que no son computables, y a mí me gustaría que las cosas se dejaran de computar de esta manera, y que se viera a la universidad como un ámbito social que es un modelo y un colectivo de personas que está al servicio de la sociedad (E-20, 14).**

## 3.6. Nabarmendutako balioak

Honako hauek dira diskurtso kritikoan nabarmendutako balioetako batzuk: askatasuna, kritikotasuna, pentsamendua, euskara eta euskal kultura, berdintasuna (genero berdintasuna, klase berdintasuna), ha-

rreman horizontalak, publikotasuna, giza garapena, emantzipazio indibiduala, nazioartekotze solidarioa, kooperazioa, inpaktua giza ongizatean eta ongizate sozialean, mugimendu sozialekin lankidetza, berrikuntza eta aldaketa soziala, herri eraikuntza, lurraldea, subiranotasuna

# 4. Hiru diskurtsoetan partekatu diren euskal unibertsitateari buruzko ideiak

Orain arte aipatutako hiru diskurtsoen arteko desberdintasunak nabariak dira, eragileek adierazitako kokapenetan, euskal unibertsitateari buruz eskaintzen duten irudian eta diagnostikoan, bai eta hartu beharreko neurrietan ere. Hala eta guztiz, diskurtso ezberdinetan –akademiko-insituzionalean, tekniko-ekonomikoan zein kritikoan- hainbat ideia komun ere ageri dira. Partekatutako ideia horiek nabarmendu ditugu atal honetan.

## 4.1. «Gizarte» kontzeptuaren zentralitatea diskurtsoetan

Aipatutako hiru diskurtsoetan «gizarte» kontzeptuak ardazten du kontakizuna. Horrela, elkarrizketatutako eragileen artean adostasuna dago honako ideiarekin: «gizarte batek, zehatzago, euskal gizarteak, unibertsitatea behar du». Are gehiago, unibertsitatearen lanak eta lan horretan gauzatzen diren produktuek gizarteari, euskal gizarteari, begiratu behar diotela onartzen da. Elkarrizketa guztietan nabarmentzen da unibertsitateak gizartearekiko izan behar duen jarrera arduratsua. Horrek esan nahi du hiru diskurtsoak erreflexiboak direla: unibertsitatean lantzen diren produktu akademikoak gizarte jakin batean kokatzen dira eta ezagutza itzuli behar diote gizarte horri. Ez da onartzen gizartea eta bertan gertatzen diren prozesuak barneratzen ez dituen unibertsitaterik; hain zuzen ere, hiru diskurtsoen ikuspegi partekatua da hori. Horrela adierazten du elkarrizketatu batek unibertsitatearen eta gizartearen arteko lotura hori. Haren hitzetan ikusten denez, esparru akademikoak berezko dituen bereizketek (osasun zientziak, giza zientziak, gizarte zientziak, e.a.) errealitate sozialarekin harreman dialogikoan eraikitzen dira akademian baino gehiago, hau da, gizarteek aldi berean eta etengabeko elkarrizketan behar dituzte diziplina guztien ekarpenak:

> **Unibertsitatea da gizartea eta teknologia, eta unibertsitatean dagoen jakinduria erabili behar da gure gizartean, eta horrek ez du kentzen jakinduria unibertsala denik. Nik tesiak irakurtzen ditut, eta gaiak ikusten ditut gizartearekin lotutakoak. [...] Gai batzuk unibertsalak dira eta beste batzuk lokalak, baina denak egon behar dira gizartearekin lotuta (E-13).**

Maiz, gizartearen ideia komunitateari buruzko ardurarekin lotuta agertu da diskurtsoetan. Gizartea aipatzen denean, komunitatearen ideia agertzen da behin eta berriro. Komunitate horren heziketa prozesua bideratzeko ezinbesteko tresnatzat hartzen da unibertsitatea, hurrengo elkarrizketatuak adierazten duen bezala:

> **Gero gaude oihan batean. Orduan, ulertzen baldin badugu pertsona bat haziz eta heziz doala jaiotzen denetik hiltzen denera arte, gure ikas komunitateak behar du unibertsitate bat, guk behar ditugu haur eskolak, eskolak eta unibertsitateak, ze pertsona bat 18 urterekin oraindik formatzen ari da (E-18).**

Esandakoa kontuan hartuta ere, bi ñabardura egin ahal dira adostasun horren inguruan. Alde batetik, diskurtsoetan partekaturiko adierazle gisa agertzen bada ere, «gizartearen» kontzeptua ez da beti adiera berdinarekin azaltzen. Izan ere, gizartearen esanahia aldatu egiten da diskurtso batetik bestera. Aztertutako diskurtsoak aintzat hartuta, aldaketa horiek zerikusia dute ondoren aipatuko ditugun hiru ideiekin.

Lehenik eta behin, *gizartearen osaketaren ideiarekin* lotuta daude gizartearen adiera desberdinak. Izatez, gizartea nortzuek osatzen duten dago auzitan. Zenbait ikuspegik, bereziki aurretik aipatutako diskurtso tekniko-ekonomikoarekin bat egiten dutenek, adibidez, gizarteaz hitz egitean agente ekonomikoen presentzia azpimarratzen dute hirugarren sektorearen gainetik. Hau da, Gizartearen eta Unibertsitatearen arteko harremanaz berba egiten dutenean, eragile ekonomikoen protagonismoa azpimarratzen dute beste eragile batzuen aurretik. Horrela, berebiziko pisua daukate agente ekonomikoek (enpresek eta fundazioek, besteak beste) bestelako aktore sozialen aldean. Ondorioz, oso gutxitan aipatzen dira gainerako eragile sozialak, edo ez dira aipatu ere egiten. Ildo horretan, azpimarratzekoa da diskurtso tekniko-ekonomikoak gizartearen eta enpresaren artean egiten duen lotura, eta, hartara, unibertsitatearen eta enpresen arteko harremanari ematen dion garrantzia (egindako diagnostikoan, ikusten diren arazoetan, e.a.). Horren adibidea hurrengo aipuan aurkitzen dugu. Elkarrizketatuak unibertsitatearen eta enpresaren arteko harremanen garapena defendatzen du, gizartearen ongizatearen izenean. Horrekin batera, unibertsitatearen egunerokotasunaren kudeaketari aurre egiteko eta bere harremanak beste agenteekin garatu ahal izateko, unibertsitateak eremu ekonomikoan edo enpresa munduan arreta jartzea proposatzen du, malgutasuna lantze aldera. Ikuspuntu honen arabera, gizartera begiratzen duen unibertsitateak eraginkorra izan behar du eta, efikaziaren mesedetan, eremu pribatutik transferitu daitezkeen ereduak bilatu behar ditu. Enpresa, beraz, unibertsitatearen agente aliatu gisa agertzen da, eta antolaketa ereduak pisu nabarmena hartzen du diskurtso honetan:

> **Ni enpresa mundutik nator, eta enpresa munduan geroz eta garrantzitsuagoa den elementu bat da malgutasuna. Mundua aldatzen ari da, gure bezeroak aldatzen ari dira, eskakizunak aldatzen ari dira, eta orduan gu ezin gara esklerotizatuta egon, ez antolakuntzan edo planteamenduetan, malguak izan behar dugu, egokitu egin behar dugu, gainera geroz eta azkarrago (E-8).**

Beste aktore batzuek, aldiz, modu desberdinean ulertzen dute unibertsitatearen eta gizartearen arteko harreman hori. Hain zuzen ere, hirugarren sektore moduan ezagutzen diren eragileak -gobernuz kanpoko erakundeak, elkarteak, fundazioak, gizarte mugimenduak, eta bestelako eragile sozialak (komunitarioak, oro har)- azpimarratzen dituzte unibertsitatearen eta gizartearen arteko harremana ezaugarritzean. Zehazki, elkarrizketa batzuetan aipatu da unibertsitatearen ezagutzaren transferentzia gizarteari buruzko ardurari lotuta dagoela eta unibertsitatearen dimentsio sozialetik bereizezina dela:

> **Nik uste dut egon beharko liratekeela mekanismo batzuk harreman hori automatizatzeko edo sistematizatzeko, ezin da beti utzi boluntarismoan, hori egituratu behar da eta sistematizatu behar da. Ez diot instituzionalizatu behar denik, alegia, gizartea unibertsitatearen egituren barruan sartzea, baizik eta bide argi batzuk markatu behar dira hori egiteko, adibide bat […]: graduetarako lana, gaur egun karrera guztiak amaitzen direnean dago gradu amaierako lana, eta oso zaila da askotan gaia bilatzea errepikakorra ez dena, eta egon beharko litzateke diziplina bakoitzean lanean dabilen jendea, herri mugimenduak eta abarrekoak emateko elkarlanerako esparru bat zentzu horretan (E-2) .**

Bigarrenik, *gizartearen «rolaren» ideian* agertzen dira diskurtsoen arteko desadostasunak puntu amankomun honetan. Behin onartuta «gizarte-unibertsitate» banaketa lanerako egokia dela tresna analitiko gisa, esango genuke diskurtso ildo batzuek (bereziki tekniko-ekonomikoak eta akademiko-insituzionalak) hartzaile moduan ikusten dutela gizartea. Horrela, unibertsitatearen ezagutza gizartera begira sortu behar dela eta gizarteak bueltan jasoko duela bermatzeko premia azpimarratzen da puntu honetan. Gizartearen eta unibertsitatearen arteko zubia, beraz, ezagutzaren transferentzian ardazten da. Baina, ez da aurreikusten eragile sozialen integrazioa ezagutzaren produkzio prozesuan, eredu ideal moduan ez bada:

> **Por lo tanto, por una parte generamos conocimiento y eso es imprescindible para que la sociedad vaya hacia adelante, por otra parte, necesitamos formar buenos profesionales que tomen el relevo de los que ahora estamos aquí generando ese conocimiento, y esos buenos profesionales tienen que tener ética, conocimiento, autocrítica, esfuerzo etc. Y luego, estoy convencida de que debemos devolver a la sociedad ese conocimiento, no sólo en forma de profesionales competentes, sino en forma de conocimiento digerido adecuadamente para que la sociedad no sólo comprenda, sino que aprenda y haga suyo ese conocimiento. Por eso creo que otra de las cosas que empieza a ser importante pero todavía no está suficientemente valorada es la divulgación de ese conocimiento que generamos aquí. Es un poco lo que comentábamos antes: cuando alguien hace un informe muy técnico es normal que no lo lea mucha gente, porque no se entiende, porque se va a malinterpretar y porque hay que digerirlo. Yo me muevo en el ámbito de la ciencia pero me imagino que en las humanidades será igual. Ese conocimiento tan profundo que generamos necesitamos digerirlo para darlo a la sociedad y que esta lo tome como suyo y lo utilice a la hora de tomar decisiones, de reclamar qué se hace con sus impuestos, de decidir qué hace ante un problema determinado etc. Yo no concibo una sociedad sin universidad (E-14).**

Diskurtso kritikoan kokatu diren ahotsak, ordea, ezagutza prozesuaren parte aktibo gisa irudikatzen dute gizartea. Hain zuzen ere, unibertsitatea gizartearen partetzat jotzen dutelako, eta gizartea eta unibertsitatea ez dituztelako bereizten erabat. Hala, ildo honetako diskurtsoa garatu dutenek egoki ikusten dute komunitatea osatzen duten eragile sozialak eta gizarte sektore zabalak (gazteak, emakumeak, besteak beste) ezagutzaren produkzio prozesuaren sorreran bertan kokatzea:

> **Ez dakit ze paper jokatzen duen, baina uste dut unibertsitateak izan beharko lukeela ahots kritiko bat. Izan beharko luke elementu bat gizartearen analisia egingo duena ikuspegi kritiko batetik abiatuta. Ederra litzateke unibertsitateak ikasleei gaitasuna ematea bizi garen herria eta komunitatean txertatzeko. Uste dut leku interesgarria dela hori egiteko, jende asko dago eta lan interesgarria egin daiteke unibertsitatean horretarako. Azken finean herri hau eraikiko duten edo aurrera eramango duten belaunaldiak dira (E-17).**

> **Por ejemplo, la investigación que hicimos con CEAR sobre mujeres que transitan desde África a Europa tuvo un impacto muy importante. Yo creo que la universidad se tiene que emparejar con otro tipo de entidades sociales y tiene que dejar de pensar que las investigaciones tienen que tener el sello de la universidad. La universidad por supuesto que sigue aportando, y yo creo que tiene que seguir siendo la casa del**

> **pensamiento que comentaba antes, pero no exclusivamente. Y creo que crear redes sería algo positivo (E-24).**

Hirugarrenik, *gizartearen eta unibertsitatearen arteko zubiak lantzeko eta egonkortzeko erabili beharreko tresnen* irudian ere bereizten dira hiru diskurtsoak. Gizartearen eta unibertsitatearen arteko zubia eraiki behar dela iritzi adostua bada ere, lan hori nola egin da hurrengo galdera. Eta puntu horretan sortzen dira berriz desadostasunak. Diskurtso tekniko-ekonomikoan kokatutako eragileek agente ekonomikoekin kontratuak garatzeko aukeran ikusten dute zubiak eraikitzeko modua. Horrela, kontratuzko eredua proposatzen dute. Baina, ikuspegi horren aurrean, beste batzuek komunitateko sektore sozial desberdinen eta unibertsitatearen arteko harremanak espazio dialogikoen bitartez lantzeko aukeran ikusten dute bidea:

> **Nik uste dut gizartearen aldetik dagoen paradigma dela unibertsitatek jendea prestatzen duela lan munduan sartzeko. Edo unibertsitatean daudela ikertzaile batzuk batzuetan azterketak ateratzen dituztenak, oso ondo ulertzen ez direnak. Nik aipatu dudan paradigma berri honek eskatzen duena da unibertsitatearekin lan egiteko prest egotea, orduan, beste aktoreengandik ere eskatzen du dedikazio gehiago unibertsitatearekin batera lan egiteko (E-11).**

Horrela, elkarlanerako bide kontraktualista eta bide dialogikoa bereizten dira azterketan.

«Gizarte» ideiaren inguruan dauden interpretazio desberdinak subjektibitate eta kokapen sozial desberdinen existentziarekin azaltzen dira. Hala, kokapen horiek diskurtsoen ezaugarritzean azaleratzen dira. Gizartearen inguruko erretorika desberdin horiek frogatzen dute bizitza proiektuak ulertzeko modu anitzak daudela elkarrizketatuen artean. Elkarbizitzak ez du esan nahi eztabaida baketsua gauzatzen denik euren artean. Aitzitik, ideien munduan lehian dauden bizitza ikuspuntuak islatzen dira elkarrizketetan, eta ikuspegi bakoitzaren pisu sinbolikoa eragileek boterearen esparruan duten kokapenak baldintzatzen du.

Hala eta guztiz ere, erretorika desberdin horien artean beste elkargune bat ere badago gizartearen eta unibertsitatearen arteko harremanari dagokionez. Orain arte gizarteak esparru akademikoaren motorra izan behar duela adierazi badute eragileek, honekin batera, kezka adierazi dute ideal normatiboaren eta errealitatearen artean dagoen haustura dela eta. Unibertsitateak gizarteari begiratu beharko lioke, bai, baina haren kezketatik urrun dago. Auzi honetan ere, unibertsitateak gizartearekin duen deskonexioa modu desberdinean ulertzen da abiapuntu hartutako gizartearen definizioaren arabera. Diskurtso tekniko-ekonomikoan kokatzen direnek, esaterako, unibertsitateek enpresetan duten presentziarik ezean kokatzen dute deskonexio horren arrazoia, baita unibertsitateen izaera endogamikoan, lan baliabideen erreklutamendua antolatzean:

> **Egia da hemen teknologiak eraiki ditugula, eta haiek hartu dutela esparru hori, baina unibertsitateak enpresarekiko daukan misioa batez ere formakuntzan dago, baina ez berrikuntzan, hori argi daukat. Gobernuarekiko, esaten den moduan, *the science for policy* egiteko, ba kasu batzuetan badago, baina normalean oso urrun egoten da. Adibidez, nire esperientzian oso urrun ikusi dut hori. Nik uste dut guztiz endogamikoa dela transformakuntza egiteko. Transformakuntzarako zuk egon behar duzu lekuetan zuk duzun jakintza ere transformaziorako elementu bat izateko, eta horretarako irakasle batek egon beharko luke momentu berean bai unibertsitatean eta bai enpresan edo Gobernuan, eta endogamia horrek uste dut zailtasun handiak jartzen dituela (E-9).**

Diskurtso kritikoan kokatutakoek ere unibertsitateen zurruntasuna azpimarratzen dute, eta jarrera endogamikoek dakarten ondorioetako bat dela diote gizartearen eta unibertsitatearen arteko urruntzea. Halaz ere, izan beharko lukeenaren eta benetan denaren arteko distantzia hori azaltzeko beste faktore batzuei ere erreparatzen diete. Hala, unibertsitateetako baldintza materialek, unibertsitate bizitzaren gehiegizko burokratizazioak eta irakasle eta ikertzailearen figurak azken hamar urteetan jaso duten kudeaketarako joerek azalduko lukete, hein handi batean, komunitatearen perspektibaren galera hori unibertsitatean:

> **[gizartea eta unibertsitatea] ikuspegi instituzional batetik ikusten ditut oso urrun, ikusten dudalako oro har unibertsitateak dauzkala dinamika oso endogenoak, bere zilborrari begiratzen diotenak, eta oso opakoak eta itxiak direnak. Beti dago bere zilborrari begira, beretzat lan egiten eta bere ziklo horretan, gainera askotan igual kanpotik egiten zaizkion kritika edo ekarpenak oso begi txarrez ikusten ditu. Gero bai egia da maila apalago batean edo pertsonalago batean, izan ikerketa talde batzuk, irakasle batzuk edo ikasle batzuen aldetik sortzen dela beste sinergia batzuk gizartearekin eta gizarte eragileekin egiten diren dinamika batzuekin, baina ikusten ditut oso boluntaristak, ez delako benetan unibertsitateak bultzatzen duen politika bat, baizik eta badela gehiago zenbait jendek borondate onez edo ia militantziaz egiten dituen ahaleginak, eta hori ikusten da, proiektu batzuk, ikasleen ekimen batzuk eta irakasle mailan ere (E-2.).**

Horrela, nahiz eta modu erretorikoan gizartearen zentralitatea nabarmena den diskurtsoetan, unibertsitatearen norabideaz dihardutenean, gizartea eta unibertsitatea praktikan elkarrengandik urrun daudela azpimarratzen dute elkarrizketatuek. Horren ondorio logikoa da hiru diskurtsoetako eragileek adierazitakoa, hau da, ez dagoela kezka sozial orokorturik ez unibertsitateek jasaten duten lan antolaketaren aldaketaz ezta haien aurrekontuek izandako izozteaz ere. 65. Soziometroak (2018)[15] datu adierazgarriak eskaintzen ditu gai horien inguruan. Horrela, zientzialarien eta irakasleen balorazioa egitean, lehenengoek 4,4/5etik eta bigarrenek 4,3/5etik jaso dute balorazioan. Bi lanbideak 2006tik 2017ra bitartean progresiboki geroz eta hobeto baloratutako jarduerak izan dira euskal gizartean[16]. Espainiaren batezbestekoarekin konparatuta, bi lanbideek balorazio hobea dute Euskadiko Autonomi Erkidegoan (0,1eko gehiago, hurrenez hurren)[17]. Halaber, inkesta berean galdetutako pertsonek onartzen dute aitortza eskasa eta lan baldintza ez-egokiak dituen lanbidea dela ikertzailearena[18] . Oro har, errespetatzen den lanbidea da, baina aitortza gutxi duena eta lan baldintza ez egokiak dituena. Diagnostiko sinoptiko horretan, aipaturiko inkestak beste ideia inportante bat ematen du gure analisirako. Izan ere, zientzia eta teknologiarekin lotutako interes orokorreko gaiak adituen eskuetan uztea hoberena den edo ez galdetu denean, baiezko erantzunak argiak izan dira: %45a «nahikoa ados» agertu da ideia horrekin[19]. Baina, esparru akademikoaren behar soziala azpimarratuta ere, alor horrek isolatuta dagoen gune baten irudi soziala dauka. Izan ere, jakintza adituaren eta profanoaren arteko banaketak eragiten du irudi horretan. Ondorioz, akademiaren arazoak gizartearen arazoak ez balira bezala identifikatzen dira, eta arazo horiek ikusgarritasuna galtzen

15 Prospekzio soziologikoen gabinetea. 2017. 65. Soziometroa. Zientzia eta teknologiaren gizarte pertzepzioa. Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco: Gasteiz. http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/sociometro_vasco_65/es_def/adjuntos/17sv65.pdf Kontsulta: 19.06.2018

16 *Ibid.*, 20-21 or.

17 *Ibid.*, 23 or.

18 *Ibid.*, 24 or.

19 *Ibid.*, 29 or.

dute eragile sozialen agenda politikoetan. Elkarrizketatu batek honela azaldu du unibertsitatearen eta gizartearen arteko urruntzearen ondorioa:

> **Baina puntu kritikoa segur aski hor dago: gizarteak ez du ikusten kolektiboki suizidio bat dela unibertsitatean ez egotea eskakizun maila handiagoa, eta erakundeak ere desinflatuta daude unibertsitatearekiko; ez dute ikusten unibertsitatean egin beharreko inbertsio handiago baten beharrik, hau da, politika kontrazikliko bat aplikatzeko beharra, ikerketan inbertitzeko beharra, eta beste maila bateko apustuak egiten dituzte industriari begira esate baterako. Orduan, nire ustez egoera arriskutsu batean gaude, denbora hau oso preziatua zen, eta galtzen ari gara (E-19).**

## 4.2. UPV/EHUren erreferentzialtasuna

Gizartearen zentralitatearekin batera, UPV/EHUk daukan erreferentzialtasuna izango litzateke nabarmendu beharreko diskurtsoen arteko bigarren ideia komuna. Izan ere, hiru diskurtsoetan kokaturiko elkarrizketatuek partekatzen dute unibertsitate publikoari esleitutako nagusitasunaren ikuspegia unibertsitate sistemaren barruan. Erabateko aitortza horrek adierazten du euskal gizartearen iruditerian ere gune sinboliko garrantzitsua betetzen duela UPV/EHUk.

Azterketa honen oinarri diren elkarrizketetan ikusi ahal izan denez, euskal unibertsitate sistemaz edo euskal unibertsitateez galdetuta ere, UPV/EHU-k hartu du haien tokia erantzun askotan, eta mintzagai nagusi bilakatu da behin baino gehiagotan hala UPV/EHU-ko bertako eragileen nola gainerako unibertsitatekoen solasaldietan. Hartaraino non, maiz, unibertsitate publikoa euskal unibertsitateekin nahasi den elkarrizketatuen narratiban.

Nagusitasun-pertzepzio horren arrazoiak askotarikoak izan litezke. Honako hauek dira elkarrizketetan atzemandako batzuk. UPV/EHU-ren publikotasuna eta, hartara, haren irekitasun soziala eta tamaina handia, berbarako, unibertsitate horrek euskal gizartean eragin dituen eraldaketa nabarmenen atzean daude. Eraldaketa batzuk oso ikusgarriak izan dira eta kontzientzia sozialean ainguraturik geratu dira. Horietako bat da unibertsitate publikoak hiru hamarkadetan sortutako itzelezko giza kapitala, gainerako euskal unibertsitateen eraginarekin parerik ez duena. Hainbestekoa izan da eraldaketa hori non, EAEko unibertsitate tituludunen ehunekoa populazioari dagokionez OCDEko garaienetakoa den gaur egun.

Publikotasunari lotuta agertzen dira beste alderdi batzuk ere. Unibertsitate publikoaren barruko irakasle eta ikertzaileek ez ezik gizarteko eragileek euskaltasunarekin lotzen dute UPV/EHU. Eta horietako askorentzat Trantsizioaren hastapenetan sortu zen euskal unibertsitatearen proiektuaren ondorio litzateke, hein handi batean, gaur egungo unibertsitate publikoa. Alegia, hasierako proiektura gehien hurbildu den unibertsitatea da, hainbaten aburuz. Haren izaera elebiduna, denborarekin metaturiko baliabideak, gaur egun dauzkan ahalmenak eta lortutako babes soziala eta politikoa egongo lirateke pertzepzio horren oinarrian. Unibertsitatez kanpoko eragile baten hitzetan:

> **Identifikatu genuen euskal unibertsitatea sortu behar zela. Ze Deustu ez zen euskal unibertsitatea, MU ez zen euskal unibertsitatea, eta EHU ez zen euskal unibertsitatea, beste gauza bat sortu behar zen […] Eta denborarekin konturatu gara euskal unibertsitatea sortzea zela proiektu bat oso baliabide handiak behar zituena eta babes sozial eta politiko handia behar zuena. Orduan geratu gara euskal unibertsitatearen diseinu fisikorik gabe, sistema bezala elkarte autonomoaren hezkuntza sistemaren**

> **baitan integratuta. Eta euskal unibertsitatea gero eta gehiago identifikatzen da jende askoren aldetik EHUrekin [...] bereziki EHUrekin (E-12).**

Eta UPV/EHU barneko eragile baten ikuspegian:

> **EHUk badu bereizgarri bat, niretzat oso inportantea dena: euskara. Ez da ingelesa. Euskara da. Ez dago beste unibertsitaterik une honetan, eta Mondragonek ere baditu fakultate euskaldun batzuk, baina ez dago beste unibertsitaterik irakaskuntza hizkuntza txiki batean [...] Europan ez dago unibertsitaterik karrera ia guztiak ikasi ahal diren hizkuntza gutxitu batean [...]Eta hori EHUn bakarrik dago, eta EHUn berezitasun bat da [...] Nire ustez, EHUren berezitasun handiena euskara da, eta egin duen esperientzia eta ibilbide hori euskararekin (E-5).**

Publikotasuna bestelako ezaugarriekin ere identifikatzen da, unibertsitate pribatuetako eragileen ustetan: ikerketaren kalitatea, katedra askatasuna eta pentsamendu kritikoaren gune izatea esleitzen zaio, besteak beste, unibertsitate publikoari. Honako hau adierazten dute, hurrenez hurren, Deustuko Unibertsitateko eta UPV/EHU-ko bi eragilek:

> **La UPV no la conozco mucho porque no he estudiado allí, pero diría que es la universidad del País Vasco, me parece que esa es la universidad, y que las otras son un poco más pseudouniversidades. Creo que es un lugar que representa lo que es la universidad. El otro día dieron un premio a una mujer que está investigando en medicina. Yo creo que la UPV tiene a gente muy buena. Sí que es verdad que ha entrado en el tema neoliberal de las universidades, pero bueno. Y creo que en la UPV hay más libertad no sólo de cátedra, sino que tenéis más movimiento para poder hacer cosas (E-24).**

> **Printzipioz, unibertsitate publiko batean aukera gehiago daukagu pentsaera kritiko bat sartzeko, eta uste dut hori inportantea dela (E-15, 4).**

Beste ikuspegi batetik, publikotasunari itsatsita UPV/EHU-ri esleitzen zaion beste ezaugarri bat sendotasuna da. Hau da, gizarteari begira gutxieneko eskaintza batzuk (bereziki irakaskuntzan) bermatu behar dituen instituzio egonkortzat jotzen da, ziklo ekonomiko eta sozialetara derrigorrez makurturik egon gabe. Beste unibertsitateak ez daude eskaintza horretara behartuta, merkatuaren joerek laguntzen ez badituzte. Gainera, esparru sozial mugatuetara zuzendurik daude azken horiek irakaskuntzari dagokionez, eta ez gizarte orokorrera, unibertsitate publikoa bezala. Honela adierazten du unibertsitatez kanpoko eragile batek:

> **EHU-k dirua lortu behar du Eusko Jaurlaritzatik, eta eskaini behar ditu ikasketa batzuk nahiz eta ez egon ikaslerik. Aldiz, Deustu pribatua da, eta eskainiko ditu ikasketa batzuk baldin eta eskaera dagoen. MU dago kooperatiben munduari lotuta, beraz, ulertzen dut eskainiko diola bere mundu horri erantzun bat eduki ditzaketen arazoentzat (E-10).**

UPV/EHUk izan duen zentralitatea diskurtsoetan bi zentzutan gauzatu da. Bada, aitortzak bezala kritikarik zorrotzenak ere unibertsitate publikoari zuzendu zaizkio. Izan ere, hein handi batean, hiru diskur-

tsoak aginduzkoak izan dira beren formulazioetan. Hala, unibertsitateak «izan beharko lukeenari» begira edo unibertsitatean aldatu beharrezko aspektuez jardun dutenean, hiru diskurtsoetako elkarrizketatuek UPV/EHU hartu dute beren solasaren jomuga, gehienetan. Unibertsitate publikoaren erreferentzialtasun negatiboa bereziki nabarmena izan da diskurtso tekniko ekonomikoan. Honela diote, hurrenez hurren, Mondragon Unibertsitateko eta unibertsitatez kanpoko bi eragilek:

> **Publikoak hasteko izugarrizko tamaina dauka; tamaina zenbat eta handiagoa eduki, orduan eta urrunago tokian tokiko beharretara (E-10).**

> **Egiten diren azterketetan gure unibertsitateak, eta batez ere EHU, ez dira oso ondo geratzen, nazioarteko azterketetan eta Espainia mailako azterketetan (E-7).**

## 4.3. Euskal unibertsitateek gaur egungo euskal gizartea eraikitzeko baliabideak eman dituzte

«Unibertsitatea da esparru kritikoa, inoiz zerbait aldatu behar bada hortik hasi beharko da. Unibertsitatea ez da bakarrik ikerketa eta klase batzuk ematea, askoz gehiago da, komunitate bat da, belaunaldi ezberdinak batzen dira pentsatzeko» (E-13). Halaxe dio elkarrizketatu batek. Aipu honetan adierazten den mezua partekatu egiten da eragile desberdinen artean. Hainbat ñabardurekin bada ere, zenbait elkarrizketatu bat datoz esatean unibertsitateak pentsatzeko tresnaz hornitzen dituela pertsonak; mundua ulertzeko eta gizabanakoaren bizi esperientziari zentzua emateko tresnak eskaintzen ditu unibertsitateak eta hori, jakina, adin eta belaunaldi desberdinetako subjektibitateak elkartuz ahalbidetzen du. Nahiz eta finantza krisiak eta bazterketa soziala arau bihurtzen duten botere-harremanak dauden, eta nahiz eta azken horiek pertsonen bizitza banatzen duten (dibertsitate funtzionala, generoa, arraza eta klase sozialaren arabera, besteak beste), unibertsitateetara heltzen diren pertsonen profilak XXI. mende honen hasieratik aurrera geroz eta askotarikoagoak direla azaldu da aurretik. Horrela, unibertsitateak berdinen eta desberdinen arteko esparru gisa egituratu dira. Hain zuzen ere, aniztasun horren ondorioz espero da haien barnean norbanakoaren espiritu kritikoa eta arrazoitzeko gaitasuna haztea eta munduarekiko jarrera arduratsua garatzea. Modu honetan adierazten du ideia hori elkarrizketatu batek:

> **Nik uste dut unibertsitatearen balioa dela pertsonari aukera ematea burua mugimenduan edukitzeko eta ideia berriak sortzeko, ez da bakarrik ikasketa batzuk betetzea, ikasketa horiek ematen dizuten aberastasuna da garatzen dutela pertsona modura gai izatea zure pentsamendu propioa eta zure ideiak izan ahal izateko. Eta hori edozein arlotan, esan nahi dut tradizioz igual letrekin lotzen dugula hori, baina ez dauka zertan horrela izan behar, nik uste dut zientzietakoak berdin aritu behar direla. Unibertsitateak bilatu behar duena da pertsonen burua beti martxan egotea (E-3).**

Adierazpen honetan aipatzen den «pentsamendu propioa» garatzeko gaitasuna modu desberdinetan adierazi da hiru diskurtsoetan (autonomia, askatasuna, aukera askatasuna, arrazoizkotasuna, e.a. aipatu dira, besteak beste), hala ere, puntu komuntzat jo dugu. Lehen ekarpen horrek gizakien berezko ontologiarekin du zerikusia. Puntu komun horretan diskurtsoen arteko banaketak baino azpi-esparru akademikoaren banaketak eragin du gehiago diskurtsoa egituratzeko unean. Horrela, Natur eta Teknologia Zientzien eta Gizarte eta Giza Zientzien arteko banaketa nagusitu da ekarpenen aspektu hori azaltzeko unean. Lehenengo taldeak zientzia bera natur- eta teknologia-zientziekin identifikatzen du, eta horiekin

soilik, eta axiomatzat hartzen du identifikazio hori. Hala, ideien antolaketa humanistikoan baino teknikoan jartzen du arreta. Bigarren taldeak, aldiz, gizartea eta humanitatea jartzen ditu zentroan, eta modu holistikoan planteatzen ditu autonomia, askatasuna eta arduraren ideiak. Modu argian esan daiteke bai esparru akademikoaren ohiko banaketak bai esparru bakoitzeko kideen diskurtsoak egituratzen dituztela, eta unibertsitatetik at kokatzen diren agenteenak ere.

Norbanakoaren eta gizartearen pentsamenduaren egituraketan unibertsitatea eragile erabakigarria dela diote elkarrizketatuek, lehenengo eta behin, modu orokor batean. Halaber, euskal unibertsitateek euskal gizarteko hainbat esparru zehatzetan egin dituztela ekarpenak onartzen dute hiru diskurtsoek. Ekarpen horiek modu desberdinetan irakurri dira, kokapenaren arabera. Baina, badira elementu batzuk non bat datozen hiru diskurtsoetako eragileak. Elkarrizketatu batek ondo irudikatzen du ideia honako hau esaten duenean:

> **Nik sinesten dut zientziaren bitartez arazo asko konpondu daitezkeela, eta hori ez dut uste inor ukatzeko moduan dagoenik. Egon liteke, agian batzuek galdetuko dute ea zertarako behar dugun unibertsitatea, baina nire ustez gauzak ondo eginda, hau da, jakintza zientifiko sendoan oinarrituta, hainbat arazo konpondu ditugu natur zientzietan, medikuntza alorrean eta abarretan (E-23).**

Hainbat ikerketek adierazi dute unibertsitateek rol desberdinak eta kontraesankorrak betetzen dituztela gizarteetan unean uneko egoeraren arabera (Stranberg, 2017; Brennan, 2004)[20]. Horrela, erreprodukzio sozialera bideratutako ekintzak eraldaketara bideratutako ekintzekin gurutzatzen dira behin baino gehiagotan. Aurkezten den ikerketa honetako diskurtsoek ere bat egiten dute uztartze horretan, gizarteak aurrera pausuak emateko munduaren ezagutzan eta ulerkeran behar diren baldintza materialak eta sinbolikoak jartzeko unibertsitatea agente zentrala dela berresten dutenean. Zehazki, lau gaitan ikusi da adostasun hori unibertsitatearen ekarpenei dagokienez.

Lehenik eta behin, unibertsitateek, bereziki euren abiapuntuan, euskal elite politiko baten sorreran eta egituraketan lagundu dute. Euskal sistema politikoa martxan jartzeko beharrezkoak ziren eliteak hezitzeko eta trebatzeko leku moduan irudikatu da unibertsitatea. Sistema politiko horretan eragileak, kontzeptuak, kategorizazioak, antolaketa ereduak, errealitatea irakurtzeko tresnak, asmakizun sozio- politikoak, esperientziak eta iritziak, besteak beste, transferitu dizkio unibertsitateak gizarteari. Ibilbide horretan gizarte baten osasun demokratikoaren bermea ikusi da unibertsitatean:

> **Aldi berean, unibertsitateak zuzeneko transferentzia egiten dio gizarteari ikasleen bitartez edo dibulgazioaren bitartez. Dibulgazioa maila askotan egin daiteke: izan daiteke goi mailako dibulgazioa aldizkarien bitartez, egunkarien bitartez, komunikabideetan gure iritzia galdetzen digutenean... Orduan, unibertsitate sendo batek laguntzen du gizartea ere sendo egoten (E-23).**

Ekarpen hori bereziki lotuta dago unibertsitatearen funtzio hezigarriarekin. Elkarrizketatuek bat datoz unibertsitateak betetzen duen rol hezigarrian, eta ekarpen gisa irudikatzen dute. Hala, euskal unibertsi-

20 Brennan, John et al. (2004). The role of university in the transformation of societies. London: Cheri, ACU.. Strandberg, Coro (2017). Maximizing the Capacities of Advanced Education Institutions to Build Social Infrastructure for Canadian Communities. Simon Fraser University. Canada. https://mcconnellfoundation.ca/wp-content/uploads/2017/08/Maximizing-Capacities-of-Advanced-Education-Institutions-to-Build-Social-Infrastructure.pdf Kontsulta: 19.06.2018.

tateek 1960-70eko *baby-boom*ak eskatu zuen gizartearen prestakuntza beharrizanari erantzun zioten. Ondorioz, gaur egun euskal elite politiko, ekonomiko eta sozialaren kide diren askok euren lan esparrua eratu eta mantendu ahal izateko beharrezkoa den kapital kultural instituzionalizatua euskal unibertsitateari esker lortu dute, hein handi batean. Horrek ahalbidetu du sistema politiko propio baten existentzia eta inguruko eragile politiko eta ekonomikoekin harremanak garatzean, «euskal produktuak» aurkeztea (politikoak, ekonomikoak, erlazionalak). Produktu horiek alor desberdinetatik datoz, «euskal eredu kooperatiboa», «euskal partaidetza- eredua», «euskal turismo eredua» edo «euskal eredu linguistikoa», besteak beste, eta horien sorreran esparru akademikoko eragileak egon izanak produktuen legitimaziorako eta nazioarteko «salmentarako» aukerak bermatu ditu.

Bigarrenik, euskal unibertsitateek, eta bereziki euskal unibertsitate publikoak, euskararen normalizazio prozesuan lagundu dute. Elkarrizketetan azpimarratu da euskal unibertsitate publikoak izandako protagonismoa euskararen aurrerapenean, alor zehatzetako terminologia sortzen (estatistika, zuzenbidea, e.a.), eta, oro har, gizartearen euskalduntze prozesua azkartzen.

> **Unibertsitate honek egin duen ekarpenak euskararen normalizazioan eta euskara bihurtuz goi mailako unibertsitateko hizkuntza ez dauka preziorik. Bestela, euskarak galduko zuen goi mailako hizkuntza izateko aukera (E-1).**

Unibertsitatearen barne euskalduntzeak ekarri du ezagutzaren produkzio-prozesu osoa euskaraz egin ahal izatea eta aurretik aipatutako produktu propioak bertako hizkuntzan sortzea. Halaber, horrek guztiak ahalbidetu du ikasleak, hau da, etorkizuneko eragile instituzional eta politikoak, euskaldunak izatea. Horrez gain, unibertsitatean tresnak sortu dira beste instituzio publiko batzuentzat (hiztegi teknikoak, eskuliburuak, estilo liburuak, ikus-entzunezko materialak, e.a.) eta unibertsitatearen lanaren bitartez hizkuntzaren normalizazioan eragiteko ahalmena areagotu da gizartean.

Hirugarrenik, emakumeen eta gizonen arteko eskubide berdintasuna bultzatu du unibertsitateak. Oro har, berdintasunari eta integrazioari lotutako balio sozialak indartzeko eta hezurmamitzeko agente gisa hautematen da unibertsitatea diskurtsoetan:

> **Gizartearen aurrera egite horrek askotan unibertsitateak berak bultzatu du; generoaren kontuan esate baterako, dudarik gabe, unibertsitateak ireki dizkio ateak belaunaldi berri bati, eta nire ustez aurrerapen ikaragarriak egin direla emakumeen lan munduratzean unibertsitatearen ikuspegitik (E-19).**

Zehazki, emakumeek unibertsitatean duten presentzia gero eta handiagoa eredutzat ikusi da diskurtsoetan. Beraz, aukera berdintasunari ekarpena egin dio unibertsitateak, espazio publikoan egoteko ohiko ereduaz bereizitako beste patroi batzuk garatu direlako bertan emakumeentzat. Ildo berean, unibertsitateak askatasuna ekarri die belaunaldi desberdinetako emakumeei. Hain zuzen ere, unibertsitate-ikasketek askatasuna eman zieten 1960an sortutako belaunaldiko emakumeei, etxetik kanpo ateratzeko lehen aukeratzat ikusi zutelako, baita pentsamendu autonomoa garatzeko, eta gizarteak esleitutako funtzio erreproduktibo hutsetik aldentzeko ere:

> **Nik askotan entzun diet nire gurasoei esaten unibertsitateak askatasuna ematen duela, eta egia esan nik horrela bizi izan nuen ere bai. Niri zentzu askotan unibertsitateak askatasuna eman zidan: mutilarekin ibiltzeko aukera, kanpora irteteko lagunekin... ez dakit, bizitzan harremanak zabaltzeko aukera eman zidan. Beharbada momentu**

> horretan gutxiena izan zen ikasketa bera. Bueno, nahiko ona izan naiz ikasten, orduan igual zailtasun gehiago izan banu denbora gehiago emango nion ikasteari eta gutxiago harremanak egiteari, baina nire kasuan harremanak oso inportanteak izan ziren. Baina bueno, askatasunarena nik beti eduki dut buruan, askatasuna zen: ez zara biziko inoren menpe, biziko zara nahi duzunarekin nahi duzulako, ez behar duzulako, eta hori uste dut oso ideia inportantea dela (E-3).

2000. hamarkadetako emakume gazteagoei ere askatasuna eman die unibertsitateak. Kasu honetan, bizitzan egoteko erabilgarriak diren ereduak topatzearekin lotuta dago askatasunaren kontzeptua. Espazio publikoa beste era batera eraikitzeko esperimentazio esparrua da unibertsitatea, emakume batzuen hitzetan:

> El tema del empoderamiento de la mujer creo que cuando llegamos a la universidad y nos encontramos con chicas que están interesadas en lo mismo en lo que estamos nosotras y podemos hablar y debatir sobre temas sobre los que tenemos dudas o en los que nos sentimos incomprendidas, creo que la universidad te da como un empoderamiento para decir «¡hasta aquí!». Igual si no hubiéramos venido a la universidad y hubiéramos estado en casa esperando a que nuestro novio, nuestro marido o quien fuera nos trajese la comida no nos hubiéramos empoderado y no hubiéramos dicho «¡hasta aquí!». Entonces, para mí un nivel de formación es básico para que una mujer sea independiente, y en mi opinión, la universidad nos ha dado ese poder de decir que no dependemos de nadie (E-21).

Aurreko ideiarekin lotuta, eta haren garapen logiko gisa, adostasuna dago esatean unibertsitatea euskal gizartearen kohesio soziala garatzeko tresna izan dela, heziketa dela medio:

> Orduan, hiru gauza horiek azpimarratuko nituzke eraginaren ikuspuntutik: euskarak lortu duela unibertsitate mailako hizkuntza izatea, ikasteko aukera dagoela guztiontzat eta gaudela Euskal Herriko edozein bazterretan, gure ikasgeletatik pasatu den baten bat topatuko duzu edozein tokitan, eta hori uste dut kriston meritua dela, denon meritua da, alde batetik irakasleok daukagun meritua argi dago, baina gizarteak ere badauka bere meritua; gu hemen bizirik gaude gizarteari esker, ez politikoei esker, politikoek ez dute hemen ezer egiten, egiten duten gauza bakarra da kudeatzea (E-1).

Unibertsitatearen instituzioak kohesioan egindako ekarpena azpimarratzean, sentipen partekatua nabaritzen da elkarrizketatuen artean. Nahiz eta onartzen den desberdintasunen erreprodukzio soziala existitzen dela, euskal gizarteari dagokionez gailendu egiten da diskurtsoetan honako ideia hau: unibertsitateak batu egin du euskal gizartea eta ez banatu. Bereziki ikusgarria da kohesio funtzio hori UPV/EHUren kasuan, bere izaera publikoa dela eta ahalbidetu egin baitu prestakuntza espezializatua klase sozial desberdinetako kideei irekitzea; horrek, jakina, ez ditu oinarrizko egitura sozialak desagerrarazi (klase sozialen mugak, besteak beste), baina bai mugatu ditu:

> Beste ekarpen inportante bat unibertsitate honek egin duena da kohesio soziala; unibertsitate honi esker edozein pertsonak, maila akademikoa daukanak, aukera dauka ikasteko, hau da, dirua ez da problema, [...] Eta horrek zer ekartzen du? Edozein pertsonak eduki dezakeela unibertsitate mailako formakuntza, eta horrek ekartzen duena da kohesio sozial bat (E-1).

## 4.4. Goi mailako irakaskuntza espezializatuaren monopolio instituzionalizatua du unibertsitateak

Diskurtso guztiak bat datoz honako ideia honetan: unibertsitatearen ekarpenen garraiolaria heziketa izan da historian zehar, eta hala da gaur egun ere. Zehazki, unibertsitateak ez du eskaini edozein motatako prestakuntza, goi mailako heziketa espezializatua baizik. Hartara, kapital kultural instituzionalizatua metatzeko leku pribilegiatu gisa ikusten da gaur egun unibertsitatea. Nahiz eta «unibertsitatea batxilergoaren ostean egiten den pausu ia naturalizatu» moduan hautematen hasia den zenbait belaunalditako gazteen artean, unibertsitateak mantendu egiten du gaur egun bere prestigio soziala prestakuntzara bideratutako agente legitimo gisa.

> **Gizarteak behar du goi mailako formakuntzan aditua den jendea. Orain dela 30 urte uste dut holako esaldi ponposoak ez zirela egiten, eta uste dut unibertsitatea gehiago zela forma bat klaseen artean mugimendu bat egiteko, beti gora joateko goi mailako ikasketak burutu eta gero. Orduko gurasoek uste zuten beraien seme-alabak unibertsitatera eramanda zerbait lortuko zutela, eta egia da lortzen zela. Orain ziurrenik ez du funtzio hori betetzen, hain garbiki behintzat, baina sozialki errekonozituta dago ezagutzak balio duela egoera ekonomikoa eta soziala hobetzeko (E-12).**

> **Nik esango nuke kalean jendeak asko baloratzen duela unibertsitatea eta asko baloratzen dituela unibertsitate tituluak, gehiegi agian, ze askotan hori ez dator bat objektiboki adibidez gizartearen beharrekin eta abar (E-7).**

Irakaskuntza eta jakintza espezializatu horren monopolioaren legitimazioa euskal sistema administratiboaren funtzionamendurako beharrezkoak diren tresnen eraikuntzan nabaritzen da, besteak beste. Hala, euskal unibertsitateetako kide direnek (irakasle eta ikertzaileek), esate baterako, lehiaketa publikoetan (oposaketetan) edota bestelako administrazioetara bideratutako prestakuntzan parte hartzen dute sarritan. Horrela, arian-arian, funtzio publikoaren egituraketa ahalbidetu da unibertsitatearen prestakuntzaren funtzioari esker. Gainera, bestelako administrazioek jakintza espezializatuaren legitimazioa behar dutenean sistema administratiboa eta politikoa sustengatzeko, eragile unibertsitarioekin harremana bilatzen dute. Esaterako, unibertsitateei funtzio publikoaren ekintzaren ebaluazioak eta proposamenak gauzatzea eskatzen zaie eskuarki (*Strategic Policy* Planning and *Evaluation*). Instituzioen arteko kolaborazio horietan, jakina, prestakuntza espezializatuaren monopolioa hobesten da.

Edonola ere, duela hiru hamarkadako formakuntza tresnak aldaketa sozialetara eta gaur egungo konplexutasunera egokitu behar direla partekatzen da hiru diskurtsoetan. Izan ere, XXI. mende honen bigarren hamarkadan unibertsitateak bete behar dituen heziketa erronkak ez dira 1980eko hamarkadan bete behar zituenak. Beraz, unibertsitatea goi mailako prestakuntzarekin lotzen badute ere, unibertsitatea heziketaren esparruan eguneratu eta egokitu egin behar dela diote elkarrizketatuek.

## 4.5. Unibertsitateak eraldaketa instituzional eta sozialerako behar dituen baliabideak eztabaidagai

Arestian aipatutako egokitzapenei erantzuna eman beharra bereziki lotuta dago bosgarren ideia honekin: gizartearen konplexutasunak dakartzan erronkei erantzuteko, alde batetik, unibertsitateak baliabide berriak behar ditu eta, bestetik, gaur egun daudenak moldatu behar ditu. Horrela, bestelako irakaskuntza tresnen beharra azpimarratu da diskurtsoetan.

Irakaskuntza tresna horien gogoetan jarduteko, hiru estrategia azaldu dira. Estrategia bakoitzak beharrizan espezifiko bati erantzuten dio. Estrategia guztiak ez dira eragile ororen diskurtsoetan azaldu, hau da, elkarrizketatu guztiek ez dituzte hirurak aipatu, baina, modu batean edo bestean, erreferentzia egin diote horietakoren bati.

Aipatu den lehenengo moldaketak etengabeko irakaskuntzaren bultzadarekin du zerikusia, alegia, unibertsitateak eskainitako prestakuntzaren dibertsifikazio beharrari lotzen zaio. Izan ere, kezka dago era guztietako pertsonei -hau da, adin, arraza eta kokapen sozial desberdinetako pertsonei- helduko ote zaien prestakuntza hori. Nabarmena da kezka hori arestian aipaturiko unibertsitatearen eta gizartearen arteko urruntzearekin lotuta dagoela. Ildo horretan, elkarrizketatuek beharrezkoa ikusten dute bestelako hezkuntza eragileekin harremanak sendotzea. Etengabeko hezkuntzaren ideia hori argitzeko, lanbide heziketaren eta unibertsitatearen arteko harremana estutzeko ideia jasotzen duen aipu bat da hurrengoa:

> **Gure proposamena da lanbide heziketaren eta unibertsitatearen arteko uztarketak sendoagoa izan behar duela, eta uztarketa horretan, irudiaren aldetik, hitzak oso inportanteak dira. Igual pentsatu behar da zein puntutaraino adin batetik aurrera denari deitu behar zaion unibertsitatea edo alderantziz, eta jendeak aukera egitea espezialitateen arabera edo praktikotasunaren arabera, eta ez «unibertsitatea» eta «lanbide heziketa» hitzen arabera, ze horrela ez dugu arazoa konponduko (E-2).**

Nabari denez, prestakuntza hedatzearen ideia dago proposamen horren atzean. Ohikoak izan diren prestakuntzaren aroak eta bideak (gazte aroa eta hezkuntza instituzioak) malgutzea planteatzen da. Era berean, bizitzako une orotan ikasteko aukera eta eragile eta jakintza desberdinen arteko eztabaidan ikasteko beharra azpimarratzen da. Horrela adierazten du elkarrizketatu batek:

> **Lan txertaketa errazagoa balitz edo formazio jarraia hobe ikusita balego, hau da, unibertsitatera joateko denbora beti egon daiteke, baina badago nire ustez jende gazte asko sartzen dena unibertsitatera modu nahiko automatikoan, agian beste alternatiba erakargarririk ezean. Gero, edozein lanpostu «arruntetarako» diplomatuak edo eskatzen dira edo graduak eskatzen dira, eta askotan igual gain-kalifikazio bat dago hor, eta ikusten duzu berez unibertsitate mailako ikasketak behar ez dituzten hainbat lanpostutan eskaintza dagoenez unibertsitarioak sartzen direla. Hori tamalgarria da, baina ez da unibertsitatearen errua, hor gauza asko elkartzen dira: lanbide heziketaren zera hori, eta gero enpresek ere formazio jarraia egiteko ohitura falta ere. Ematen du formakuntza dela gaztetan egiten duzun gauza bat eta gero eten egiten dena (E-4).**

Irakaskuntza zabaldu beharraz adostasuna dago diskurtsoen artean. Baina, desadostasuna agertzen da prestakuntza horren eragileak nortzuek izan beharko luketen eztabaidatzen denean. Diskurtso tekniko-ekonomikoan kokatzen diren eragileek enpresen funtzio formatzailea azpimarratzen dute; diskurtso akademiko-insituzionaleko eragileek bestelako eragile publikoen zeregina nabarmentzen dute (hezkuntza sistemako beste mailetakoak); diskurtso kritikoko eragileek, berriz, objektibitatearen eta metodo zientifikoaren izenean baztertutako jakintzak sortzen dituzten eragileak aipatzen dituzte.

Bigarren moldaketak prestakuntza-tresna espezifiko bati egiten dio erreferentzia: informazio eta komunikazio tresnei (IKT), hain zuzen ere. Irakaskuntza eskaria zabaltzeaz gainera, eskariaren formak dibertsifikatu beharraz jardun dute elkarrizketatuek. Horrela, online ikasteko aukerak zabaldu behar direla dio batek baino gehiagok. Munduan egoteko erak aldatzen dira IKTekin, baita ikasteko eta irakasteko erak ere.

Horrela, teknologia berriak hezkuntzan aplikatzearen alde agertzen den diskurtsoak online ikasketak instituzionalizatzeko proposamena jasotzen du. Tekno-optimismoan oinarritutako diskurtsorik ez da egon, baina online prestakuntza hezkuntzan sortzen diren beharrizan berriei erantzuteko proiektutzat jotzen da. Modu orokorrago batean, online ikasketak unibertsitate-gizarte harremana lantzeko bide gisa hartu dira hurrengo elkarrizketatuak adierazten duen moduan:

> **Orain arte unibertsitatea izan dela adin bateko ikasleei zuzenduta zegoen gauza bat, baina orain ikasteko epea luzatzen ari da, eta horrek eskatzen ditu aldaketa batzuk, eta hor dago online unibertsitatearen ideia. Online unibertsitate horretarako saiakera ezberdinak egon dira, baina uste dut oraindik ere beharrezkoa dela sistemaren online sare bat (E-13).**

Hirugarren moldaketa ildoak ikerketaren transferentziarako baliabideen hobekuntzarekin du zerikusia. Elkarrizketatuak bat datoz transferentziaren garrantzian. Unibertsitateek hezitu, ikertu eta transferitu egin behar dute. Dena den, transferentziak hartu beharreko norabidea aldatu egiten da diskurtsoaren arabera. Horrela, diskurtso akademiko-insituzionalak eta kritikoak beste instituzioetan eta gizartean jartzen dute indarra. Eta diskurtso tekniko-ekonomikoak enpresa munduari begiratzen dio. Baina, den denek nabarmentzen dute transferentziaren garrantzia.

> **Nik uste dut formakuntza eta ikerkuntza bat etorri behar direla, hori argi daukat. Eta transferentzia oso inportantea da, transferentzia gizarteari eta enpresei ere. Nik argi ikusten ditut hiru helburu horiek: formakuntza, ikerkuntza eta transferentzia. Transferentzia izan daiteke bai dibulgazio mailan, bai enpresei jakintza transferitzeko edo baita Gobernu bati aholkuak egiteko (E-9).**

Halaz ere, transferentzia egiteko mugak ere detektatu dira. Beraz, onartzen da esparru honetan aldaketak egin behar direla hobetu ahal izateko. Elkarrizketatu batek honela laburtzen du ikerketaren transferentzia egiteko arazoa non dagoen:

> **Gero, unibertsitatean badago sektore bat argi daukana bere lanak proiekzio sozial bat eduki behar duela, baina hala ere, beharbada ez daude tresna egonkorrak eta eraginkorrak lan hori gizarteari itzultzeko (E-15).**

> **Hobetu behar da gure transferentzia sistema. Errepaso bat egin behar dugu dauzkagun egiturena eta egin ditugun apustuena, eta transferentzia sistema hori benetan egokitu behar da, baina hori egituratze arazo bat da (E-19).**

Orokorrean, transferentzia egiteko baliabideen eskasia azpimarratu da. Alde batetik, gizartearen eta unibertsitatearen artean egonkorrak diren kanalak ez direla nahikoa diote elkarrizketatuek (komunikabideak edo foro publikoak horretarako nahiko mugaturik ikusi dira). Beste alde batetik, transferentzia hori egiteko ez dira aski dauden baliabide materialak (denbora, plataformak, e.a). Dena den, hemen ere hiru diskurtsoek beren diagnostiko bereziak egituratu dituzte. Transferentzia egiteko dauden arazoak aipatzean, adostasuna dago baliabideak moldatu beharraz. Baina, diskurtso tekniko- ekonomikoan kokatzen diren eragileek unibertsitateen barne antolaketari esleitu diote erantzukizuna; besteak beste, hitzarmenak egiteko edota harremanak egiteko zailtasun burokratikoak, malgutasuna falta, edota alor akademikoak

berezkoak dituen arauak aipatu dira (prestigioaren eta curriculumaren kudeaketa, esaterako). Bestelako diskurtsoek «malgutasunaren» ideia neoliberalarekin baino, jarduera akademikoaren transformazio eta burokratizazioarekin lotzen dituzte transferentziarako zailtasunak, baita instituzioen arteko harremanak estutzeko foroen gabeziarekin ere.

## 4.6. Unibertsitatea ikerketa eragile moduan irudikatzen da

Unibertsitatea ikerketarako gune gisa identifikatzen da, hau da, unibertsitatearen rola ez da bakarrik prestakuntza; horrekin batera, haren eginkizunak ikerketa egitea eta horren transferentzia kudeatzea ere badira. Datu kuantitatiboek ere horrela adierazten dute. Euskadiko produkzio zientifikoaren 2007- 2016 olatuko datuak kontuan hartzen, badira, hauxe ikusten da:

> **En conjunto, [...] Euskadi ha publicado 37.966 documentos durante el período 2007-2016. Si se analiza el peso relativo de cada sector de actividad, hay que destacar que el Sector Universitario contribuye en total un 59,79% a la producción científica del sistema, el Sector Bio-sanitario lo hace en un 19,27%, el Sector BERCs contribuye en un 12,27%, el Sector Tecnológico, por su parte en un 12,14% y el Sector CICs en un 6,09%. (Ikerbasque, 2017: 40).**[21]

Horrekin batera, onartzen da unibertsitatean egindako ikerketak hainbat bereizgarri dituela. Alde batetik, unibertsitatean sortzen dira ikerketaren produktu akademiko klasikoak, doktore tesiak, hain zuzen, bestelako guneetan sortzeko aukera gutxiago daukatenak. Izan ere, unibertsitateek espezializazio eta jakintza maila oso bereizia dute ikerketaren ekosisteman zentrala den gai honetan. Ildo berean, diskurtsoetan onartzen da ikerketa mota desberdinak sustatu behar direla unibertsitatearen barnean eta, oro har, ikerketaren funtzioan unibertsitatea agente zentrala dela, produktu batzuen produkzioan dagoeneko metaturik daukan jakintzagatik (ezagutza normatiboa, tesiak, e.a.):

> **Entonces, uno de los ámbitos de los indicadores que trabajamos son la colaboración con el resto de agentes de la red vasca, y la colaboración se mide en colaboración en publicaciones, en patentes y en co-tesis doctorales. En las de co-tesis, efectivamente, la universidad tiene mucho que decir (E-9).**

> **Es verdad que los centros de investigación también cumplen un papel formativo importante si miramos al colectivo de alumnos y alumnas que están haciendo la tesis doctoral, pero no nos olvidemos que esos alumnos y esas alumnas que hacen sus tesis doctorales en centros de investigación, que puedo nombrar muchos porque afortunadamente tenemos muchos en el entorno, siempre tienen que recurrir a la universidad y a un departamento universitario para defender su tesis doctoral, donde hay alguien que es un tutor que es quien avala que esa tesis cumple con los criterios de calidad para que ese sea un trabajo original, serio etc. (E-14).**

Beste alde batetik, Unibertsitateak badu beste bereizgarri bat ikerketari dagokionez: ikerketaren funtzioa irakaskuntzaren eta kudeaketaren funtzioekin batera gauzatzen da haren barnean. Hiru eginkizun horien

---

21 Ikerbasque, 2017. Informe sobre la ciencia en Euskadi. GV-EJ: Gasteiz. http://www.ikerbasque.net/sites/default/files/files/inf2017.pdf Kontsulta: 19.06.2018

uztarketa arazotzat jo da diskurtso batzuetan; ildo horretan, azpimarratu da errekurtso materialek (denborak eta finantziazioak, bereziki) ez dituztela lan guztiak uztartzeko baldintza egokiak bermatzen. Baina, aldi berean, nabarmendu da unibertsitatearen bertutea litzatekela ikerketa eta irakaskuntza batera egitea. Izan ere, unibertsitatean egindako ikerketa-lanaren emaitzak eta ezagutzak transferentzia zuzena izan ohi dute heziketan eta gizartean. Hartara, beste ikerketa agentzia eta zentroekin alderatuta, unibertsitateak *ethos* ikertzaile partikularra du bere sortze-baldintzengatik.

## 4.7. Nazioartekotzea

Hiru diskurtsoetan agertzen dira unibertsitatearen nazioartekotzeari eginiko aipamenak, eta elkarrizketatu gehienek atera dute, nola edo hala, gaia. Oro har, nazioartekotzeari buruzko bi ideia nagusi agertzen dira diskurtso guztietan partekatuak. Lehena, ekidinezineko fenomeno gisa hartzen da nazioartekotzea: honez gero gure errealitatean dagoen datu bat litzateke. Bigarrena, onurak dakartzan edo ekar ditzakeen fenomeno gisa hartzen da. Bi ideia hauek zeharkakoak dira identifikatu ditugun hiru narratibetan.

Adostasun hau ondo ulertzeko ordea ñabardurei erreparatu beharra dago. Izan ere diskurtso guztietan ez baitira berdin ulertzen nazioartekotzearen xedeak, ez eta hortik atera daitezkeen onurak.

Diskurtso akademiko-insituzionalean maila akademiko zein zientifikoko nazioartekotzea azpimarratzen da. Unibertsitateak, diskurtso honen arabera, berez behar du munduari irekia: ezagutza mundu osoaren esku uzteko bokazioa du unibertsitateak, edo eduki beharko luke. Bestalde beste toki batzuetan egiten dena ikasiz eta bertan egiten dena erakutsiz, bai eta beste tokietako eragileekin lehiatuz, aberastu egiten da unibertsitateen ikerketa lana.

> **Gaur egun unibertsitate bat bazara eta ez bazaude munduan… hau da, zure irakasleak ezagunak izan behar dira, zure irakasleek parte hartu behar dute nazioarteko proiektuetan, zure irakasleek gonbidapena lortu behar dute hitzaldiak emateko Txinan, Hego Ameriketan… ezaguna izan behar zara. Baina hori ez da gauza berria; joan zaitez Europako unibertsitateen historiara eta ikusiko duzu mugitzen ziren bakarrak zirela unibertsitateko irakasleak, zergatik? Ba latina menperatzen zutelako eta kapazak ziren hitz egiteko toki ezberdinetan. Eta mugimendua bazegoen unibertsitateen artean. Unibertsitatearen kontzeptuarekin bat dator nazioartekotze prozesuetan parte hartzea, unibertsitatea munduan egon behar da, eta egiten dugun ekarpena ezagutza sortzen dugunean, ekarpen hori nire ustez denon eskuetan ipini behar dugu […]. Inportanteena da niretzat ezagutza ona izatea, mundu mailan aurkeztu ahal izateko maila daukan ezagutza izatea, beraz, unibertsitatearen nazioarteko presentzia gakoa da (E-1).**

Bestetik irakaskuntzaren kalitatean nazioartekotzeak dakartzan onurei ere begiratzen zaie diskurtso akademiko-insituzionaletik:

> **Por otra parte, el discurso de la excelencia hay que depurarlo en mi opinión. La internacionalización nos lleva a la excelencia, sin ninguna duda, por una razón: en el momento en que te internacionalizas te vas a comparar con otras universidades […] en la investigación ya venía de antes, pero a nivel docente esta internacionalización sin duda nos lleva a la excelencia, porque si nosotros queremos que venga una estudiante checa o iraní a nuestra universidad tenemos que darles, primero, asignaturas**

> **en inglés, eso es internacionalización pura y dura, pero además tenemos que darles calidad, porque si pueden elegir entre una universidad que les ofrece calidad y otra que no se la ofrece, se van a ir a la que les da calidad. La excelencia viene provocada por la internacionalización. Qué es excelencia es otra cuestión… (E-14).**

Diskurtso honetan, jakina, Europako Goi Mailako Hezkuntza Espazioaren garapena aipatzen da, bestalde, azken urteetako nazioartekotze joeren bultzatzaileen artean.

Diskurtso tekniko-ekonomikoan aldiz, eta horren azpian agertzen den gizartea ulertzeko moduari loturik, ekonomiaren mundializazioa aipatzen da nazioartekotze joeren bultzatzaileen artean. Merkatuak, gaur egun, mundu mailakoak dira, eta merkatuari ekarpen handia egin beharko liokeen unibertsitate batek horri erreparatu beharko lioke. Elkarrizketaturen batek eginkizun eta ardura oso zuzenak egozten dizkio unibertsitateari ildo honetan:

> **Europa osoan dago arazo estruktural bat unibertsitatearen eta ikerkuntzaren artean. Europan esaten denean, modu nahiko erlatiboan, Europa ez doala ondo alderatuta AEBekin, Japoniarekin edo Txinarekin berrikuntzaren efizientziari dagokionez, horren atzean dauden arrazoien artean beti unibertsitatea aipatzen da. Orduan, horregatik pentsatzen da Europan dagoela arazo estruktural bat unibertsitatearekin berrikuntzaren aldetik (E-7).**

Bestalde, eta hemen diskurtso akademiko-instituzionalarekiko lerro berean, nazioartekotzea unibertsitatea irekitzeko modu bat dela azpimarratzen da: bere horretan autozentratua ez gelditzeko, eta berrikuntza bere baitan aplikatzeko. Unibertsitatearen bi jarduera arlo nagusietan aplikatzeko moduko ideia litzateke: ikerkuntzan zein formakuntzan. Horretarako kanpoko irakasleak zein ikasleak erakartzea eta bertako irakasle zein ikasleak kanpora bidaltzea proposatzen da.[22]

Azkenik, diskurtso kritikoan azpimarratzen den nazioartekotzea, nolabait laburbiltzeko, nazioartekotze solidarioa litzateke: munduan dauden arazo sozialei aurre egiteko nazioarteko elkarlanak egin lezakeen ekarpenari begiratzen diona alegia. Hortaz, diskurtso tekniko-ekonomikotik aldarrikatzen den nazioartekotze eredua zalantzan jartzen da:

> **Unibertsitatea nazioartekotze giroan sartuta dago, oso inportantea delako hori. Baina norentzat da inportantea? Merkatuarentzat? Irakasleriarentzat? Ikasleriarentzat? (E-5).**

Hortaz, diskurtso honetan gehiago azpimarratzen dira, neurri batean diskurtso akademiko-insituzionalean bezala, nazioartekotze prozesuek irakaskuntzari eta gizarte osoari begiratuko dion ikerkuntzari ekar liezazkiokeen onurak. Hortik proposatzen da nazioarteko sareak sortzea eta euskal unibertsitateak horietan integratzea, mundu garatuko herrialdeetara mugatu barik bestelako espazioetara ere zabalduz.

Bestalde, nazioartekotzeak dakartzan arriskuen artean, beste honako hau nabarmentzen da diskurtso kritikoan –bai eta akademiko-instituzionalean ere-: unibertsitateko lanaren kalitatea ebaluatzeko irizpideak

22 Ikasleen mugikortasunari dagokionez datuen ezagutza txikia ote dagoen pentsa liteke. Izan ere elkarrizketa batzuetan ikasleen mugkortasunarekiko kezka agertzen da nazioartekotzeaz hitz egitean, baina Erasmus programako datuek erakusten dutenez kezka honek ñabardurak beharko lituzke (ikus eranskinak).

beste testuinguru batzuetatik datozen irizpideen arabera modu akritikoan aplikatzea. Honek eragin zuzena izango luke, besteak beste, euskararen erabileran, bereziki ikerkuntzaren arloan.

Puntu hau amaitzeko, nazioartekotzeaz hitz egitean diskurtso ezberdinetan koka litezkeen elkarrizketa batzuetan aipatutako dimentsio kulturala ere ekarri behar da hona. Izan ere gizarte bakoitzak bere kultura du, eta kultura horretan besteekiko harremanak ere jite ezberdina izan dezake. Hau ikus daiteke, adibidez, ondoko adierazpenetan:

> Nik uste dut zailtasunak daudela euskal unibertsitateak nazioartera ateratzeko. Iruditzen zait zailtasunak ez daudela hainbeste unibertsitateak egin ditzakeen gauzetan, hau da, lortu dezake ikasleak erakartzea, lortu dezake elkartrukeak egitea Erasmusen bidez edo beste bide batzuetatik... Baina uste dut inguruan dagoenak asko lagundu dezakeela edo kontrakoa egin, eta uste dut [euskal] gizarteak gauza on asko dauzkala, baina itxia dela ikusten dut ere (E-10).

> Gizarte guztiak ezberdinak dira, orduan, gizarte batean funtzionatzen duenak agian ez du beste baten funtzionatzen. Adibidez, Londresen daukaten nazioarteko kultura horrek jendea ere aldatzen duela uste dut (E-10).

> Egia da herri txiki bat garela, eta gure errealitatearen nahiko ezagutza daukagula. Beste hainbat tokitan unibertsitateak beharbada internazionalizatuago daude, baina beraien errealitate konkretua ez dute hainbeste bizitzen. Orduan, uste dut gertukotasun hori daukagula. Kanpora joaten naizenean ikusten dut batzuk harritzen direla adibidez biltzarretan pluralean hitz egiten dudanean, baina gu... eta esaten didate: «baina nortzuk zarete zuek?», ba euskaldunok, ezta? Hau da, kolektiboaren zentzu hori gehiago daukagu beste leku askotan baino. Beste lekuetan gehiago daukate munduko identitate hori (E-11).

Puntuaren hasieran bezala, azken ideia hauek ere ez dute nazioartekotzea kolokan jartzen. Baina dimentsio propio bat ezartzen diote prozesuari.

## 4.8. Euskal Unibertsitate Sistema zalantzan

Otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, honela dio bere zioen adierazpenean:

> Legeak oinarrian duen printzipioa da unibertsitateak unibertsitate-sistema bateratu gisa ikusi behar direla, Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten unibertsitate guztien artean osatutako unibertsitate-sistema bateratu gisa, alegia.

> Unibertsitate publikoen eta unibertsitate ez publikoen araubide juridikoen artean dauden ezberdintasunak legedi organikotik datoz eta funtsezkoak dira alderdi asko eta askotan, baina ez dira eragozpen horiek guztiak adierazi dugun era horretan ikusteko. Guztiek ematen diete zerbitzua euskal gizarteari eta pertsonei, prestakuntza, jakintza eta gizarte-ongizatea gehitzearen alde eginez, eta guztiei onartu behar zaie aniztasunetik betetzen ari diren betebehar soziala.

Autonomi Erkidegoko unibertsitateen arteko harremanak eta transferentziak arautzean eta normalizatzean, lege honek unibertsitate sistemaren (US) kontzeptua instituzionalizatzen du, maila substantibo batean. Legearen zioen adierazpenean bertan azaltzen da euskal unibertsitate sistemaren helmuga euskal gizartea dela. Baina, maila operatiboan garatzean, tresna juridiko horrek eragina dauka, batetik, gizarteari buruzko ideia desberdinetan (cf. atal honetako lehenengo ideia komuna) eta bestetik, eragina dauka esparru akademikoan, ekonomikoan, politikoan eta oro har boterearen arloan unibertsitate bakoitzak daukan kokapenean eta, areago, unibertsitate bakoitzaren barruan dauden agente indibidualen kokapenean.

Elkarrizketatuei galdetuta, batzuek adierazi dute ez dutela unibertsitate sistemaren berri; unibertsitate esparruan badago, beraz, legearekiko ezagutza eza, neurri batean. Bestalde, legearen ezagutza instituzio akademikoetan karguren bat edo arduraren bat izanari lotuta dago. Labur esanda, legearen nondik norakoak ezagutzen dituzten eragile gehienek kudeaketa ardurak izan dituzte unibertsitateetan.

Elkarrizketatuak legea bera ezagutzen ez duenean ere, unibertsitate sistema kontzeptuaren adiera interpretatzean errez aurkitu dira honelako erantzunak, legearen zioaren aspektu zentralenak jasotzen dituztenak:

> **Me imagino que es una política universitaria que quiere desarrollar el Gobierno Vasco como una política de intentar crear un sistema propio, dentro de las reducidas competencias que tiene, y supongo que el Gobierno Vasco querrá que muchas de las investigaciones se realicen en el País Vasco y con el nombre oficial del País Vasco. Se querrán crear unas convocatorias propias para grupos de investigación para fomentar su proyección internacional (E-24).**

Nabarmentzekoa da elkarrizketetan sistema eratzen duten unibertsitateen zerrenda osatzea eskatu denean UPV/EHU, MU eta DU aipatu direla kasu gehienetan. UNED behin aipatu da eta Iparraldeko eta Nafarroako unibertsitateen aipamenak sei elkarrizketaturen diskurtsoan agertu dira. Euskarari eta euskal kulturari lotutako elkarrizketatu batzuek Udako Euskal Unibertsitatea ere aipatu dute euskal unibertsitate sistemako eragile moduan. Ikuspegi desberdin horiek erakusten dute norainoko pertzepzio desberdinak dauden kontzeptuaren inguruan.

«Euskal Unibertsitate Sistemaren» kontzeptua ezagutu den elkarrizketetan, «unibertsitate sistemaren» ideiarekin ados, eroso eta bultzatzaile agertu diren arren, ezkortasuna agertu dute elkarrizketatuek egungo unibertsitateen sistema saretzeko aukeraren inguruan. Elkarrizketatuen ustetan, unibertsitateen arteko lehia dago gaur egun kooperazioa baino gehiago.

> **Nire ustez euskal unibertsitate sistema ez da existitzen, euskal unibertsitatea ez da existitzen eta unibertsitate ereduak oso ezberdinak dira (E-2).**

> **Lehia asko dago. [...]. Eta sistema ez da lehia, sistema da herri bezala indar gehiago edukitzea (E-13).**

Sistemaren idearen lanketa egin denean, EUSren eragileen arteko harremana lehia gisa ezaugarritu da, baliabideen banaketak sortutako desadostasunen ondorioz. Hori onartuta, sistemek berez eskatzen duten harreman saretua eta giltzatua sustatzeko tresna gisa badirudi legeak ez duela emaitza egokirik eman, elkarrizketatuen ikuspegian.

Aurreko guztiak ez du esan nahi unibertsitateen arteko harremana garatzeko gunerik behar ez denik, elkarrizketatuen iritziz, kontrakoa baizik. Behin eta berriro aipatzen den helburu egokia da unibertsitateen arteko harremanak sakontzeko guneak sortzea. Horrela adierazten dute bi elkarrizketatuk:

> **Pero no sé si hay mucha colaboración, a mí me encantaría que hubiera más, pero creo que se siente más como competitividad que colaboración (E-24).**

> **Orduan, oso interesgarria izango zen hiru unibertsitate hauen arteko lankidetza transferentzia eta ikerketa mailan, zeren eta oso osagarriak baitira. Paperaren gainean oso erraza da programa transbertsalak aurrera ateratzea. Nire ustez gehiago gertatzen ez bada da proiektu falta dagoelako, eta hori erakundeari egotzi behar zaio, Eusko Jaurlaritzari konkretuki, eta elkarren artean errekurtsoen ikaragarrizko lehia daukatelako, eta sentitzen dutelako beste unibertsitate bati ematen bazaio berari kendutakoa dela. Hori ez da erraza konpontzeko (E-19).**

Adierazitakoak ez du esan nahi unibertsitateen artean harremanik ez dagoenik edo dauden harreman guztiak lehiakorrak baino ez direnik. Izan ere, diskurtsoen analisia eginda eta aitortuta ere lehia egon badagoela, elkarrizketatuek beren egunerokotasun akademikoan egiten dituzten jarduerak aipatzen dituztenean (mintegiak, ikerketak, e.a.) ikusten da jarduera horietan beste unibertsitateekiko harremanak agertzen direla modu naturalizatu batean. Adibidez, irakasle eta ikertzaileen transferentziak gauzatzen dira unibertsitateen artean, aldi berean unibertsitate batean formatu eta bestean lan egin duten elkarrizketatu asko daude, edota unibertsitate batean lan egin eta beste bateko prestakuntza programa batean parte hartu dutenak. Ikerketetan ere hezurmamitzen dira kolaborazio batzuk. Beraz, unibertsitate sistemaren instituzionalizazioa baino xumeagoak diren eguneroko praktika partikularrak daude. Halaz ere, errealitate horrek ez du aldarazten hiru unibertsitateei buruzko irudiek duten eragin soziala.

## 4.9. Euskal unibertsitateen irudiak

Elkarrizketatuei galdetu zaie Euskal Unibertsitate Sistemako kide diren hiru unibertsitateei buruz, hau da, UPV/EHU, MU eta DUri buruz duten irudia hitz gakoetan aipatzea. Erantzun horietatik unibertsitate bakoitzari buruz ateratzen diren multzo semantikoak ez daude hiru diskurtsoen arabera egituratuta, norbanakoaren posizioaren eta esperientziaren arabera baizik. Hala eta guztiz ere, esan dezakegu unibertsitateen harremanak eraikitzerako momentuan funtzionatzen duen eskema orokor bat partekatzen dela, bai unibertsitateen artean, bai bestelako eragile ekonomiko eta instituzionalen artean. Irudi horren sorreran aipatzen diren lehen elementuak publiko/pribatu banaketarekin lotuta daude. Horrela, lotura horren arabera honako identifikazio hauek egiten dira: UPV/EHU = Publikoa, MU = Kooperatiboa eta DU = Pribatua. Lotura horiek ez dute, berez, balio heuristikorik, problematizatzen ez badira, behinik behin. Interesatzen dena da jakitea nola eragiten duten irudiek erabakiak hartzerako momentuan. Horretarako ikerketa espezifikoa egin beharko litzateke, izan ere azterketa honetan ez dago aldagai desberdinen arteko harremanak egiteko aukerarik.

Banaketarako lehen irizpideak antolatze-ereduarekin eta jabetza-motarekin lotuta badaude, bigarren elementuek baloraziorako konotazio handiagoa izan dute, eta ahalbidetzen dute unibertsitate bakoitzari esleitutako esanahiak, ezaugarriak eta leloak zeintzuk diren ezagutzea, elkarrizketatuen iritziz. Adibidez, UPV/EHU-ri maiz lotu zaio «burokratiko» hitza; eta ezaugarri horrekin batera aipatu dira ondorioak, besteak beste, ikerketak behar dituen denborak ez datozela bat burokraziek kudeatzen dituzten denbora

administratiboekin. Horrela, UPV/EHU erreferente nagusia bada euskal unibertsitateaz hitz egitean (batzuetan euskal unibertsitatea UPV/EHUrekin identifikatzen da elkarrizketetan, besterik gabe), segituan unibertsitate horrekin harremanak izateko arazoak agertzen dira diskurtsoan, haren izaera burokratikoaren ondorioz. Aldiz, MU, gaztetasuna, malgutasuna eta berritzeko aukerak dituen instituzioa dela diote elkarrizketatu batzuek. Horrela, unibertsitate publikoak bestelako eragileak mobilizatzeko ez duen dinamismoa esleitzen zaio MUri. Azkenik, DU tradizioa, eliza eta eliteen prestakuntzaren ideiekin lotu da diskurtsoetan. Horrela laburbildu daiteke partekatutako irudi horien kartografia:

> **MU ez dakit, batzuetan entzun dut malgutasuna daukatela adibidez master berriak osatzeko; merkatu esparru bat ikusten badute berehala muntatzen dute master bat, eta guk ez daukagu malgutasun hori, EHU askoz ere geldoagoa da horretarako. Adibidez, EHUk ez dauka nazio harremanetako gradurik, baina Deustuk osatu du, eta uste dut hauxe dela laugarren urtea, eta oso arrakastatsua izaten ari da. Eta nondik atera dituzte baliabideak? Ez zeukaten baliabiderik, baina Madriletik ekarri dituzte irakasleak hori egiteko. Deusturen inguruan uste dut irudia dela kalitatezko unibertsitatea dela, ospea dauka, baina nire ustez hori dago irudiaren munduan… (E-15).**

Azpimarratu behar da irudi horiek ez dutela berezko baliorik, sortzen dituzten ondorioak eta euren existentziaren inguruko kausak zeintzuk diren ezagutu gabe. Momentuz, harremanetan jokoan dauden irudi gisa aurkezten ditugu hemen, baina azterketa sakonago bat behar duen puntua litzateke.

## 4.10. Antolaketa ereduari buruzko kezka

Zortzigarren puntuan aipatu da unibertsitate sistemaren sorreran eragiten duen arazo baten dimentsio abstraktua (unibertsitateen arteko harremanak nola sortu eta egituratu), eta arazo horri egiten dio erreferentzia hamargarren ideia honek. Alegia, batetik, elkarrizketatuen artean kezka partekatua dago unibertsitateek euren artean  izan beharreko harremanez, eta, bestetik, kezka dago unibertsitateen barne harremanen inguruan eta unibertsitateek nazioarteko agenteekin izan beharreko harremanen inguruan ere. Izan ere, elkarrizketetan unibertsitate harremanen barneko dimentsioa eta kanpoko edo nazioarteko dimentsioak agertzen dira. Testuinguru horretan bi kontzeptu agertzen dira maiz, gobernantza eta autonomiarena, aipatutako arazoei erantzuna emateko.

Esan behar da kontzeptu biak aurkezten direla unibertsitatearen burokratizazioaren arazoari aurre egiteko proposamen gisa. Bederatzigarren puntuan adierazi bada UPV/EHU dela partekatutako irudíteriaren arabera unibertsitaterik burokratikoena, beste bi unibertsitateei dagokienez ere burokratizazioaren aldeko joerari buruzko kezka azaldu da elkarrizketetan. Modu batez edo bestez, unibertsitate ezberdinetako kideek eta horiekin harremanak dituzten agentzietako pertsonek azpimarratu dute gehiegizko burokraziak eraginkortasun eza dakarrela unibertsitateen funtzioetara:

> **Gero eta zama burokratiko handiagoa daukagu unibertsitatean. Agian nire pertzepzioa dator azken urteotan ardura gehiago hartzetik, baina uste dut pertzepzio orokorra dela. […] Lan zama hori gero eta handiagoa da: burokrazia, proiektuen justifikazioak, seiurtekoak lortzeko zure meritu guztiak justifikatu behar dituzu ziurtagiriekin… horrek kriston lana suposatzen du. Uste dut lan burokratiko hori oztopo bat dela. Gero, nazioarteko sareetan parte hartu nahi baldin baduzu proaktiboa izan behar duzu, baina izugarrizko lana da. Onartu behar da badaudela hitzaldiak Europar Batasuneko programei buruzkoak, eta azaltzen dute nola aurkeztu behar diren**

**proiektuak eta nola presta daitezkeen, baina prestaketa bera izugarrizko lana da, eta uste dut jende asko ez dela animatzen horregatik (E-15).**

**Esango nuke gainera gai administratiboetan eta burokratikoetan bai nabaritzen dela arazo bat dagoela; paperak egiteko eta ibilbide burokratiko osoa egiteko beti topatzen dugu ikasle pila bat arazo asko dituena, adibidez, konbalidazioak lortzeko edo informazioa jasotzeko (E-6).**

Testuinguru horretan unibertsitateen barne gobernantza berriz pentsatu beharra azaldu eta partekatu da, bereziki UPV/EHUren kasuan. Ez dira partekatu, ostera, gobernantza hori eratzeko moduak:

**Gobernantza aldatzen ez den bitartean zaila da unibertsitate eredu propio horretara aurrera egitea. Baina uste dut hori dela gure helburua. Orain daukagun unibertsitate sistema napoleoniko honek balio du hezkuntza sisteman ziurtagiriak emateko, baina beste maila batean ez du emaitza onik ematen. Uste dut unibertsitateak aurrera egiteko eta gizarte arrakala hori eragiteko behar duela autonomia bat izan (E-19)**

Harremanezko gobernu edo gobernantza horretan partaide izango liratekeen agenteen inguruko eztabaidak atal honetan garatutako lehen puntura garamatza. Zer ulertzen da gizartetzat? Zer adiera ematen zaio gizarte kontzeptuari diskurtso desberdinetan? Izan ere, gizartearen zer kontzepzio azaltzen den, haren araberako proposamenak zirriborratzen dira gobernantzan egon beharko luketen partaideei buruz: batzuetan eragile ekonomikoak, beste batzuetan eragile komunitarioak, eta beste batzuetan, bietatik.

Bukatzeko, eta burokratizazioak dakarren ondorioetako batzuk mugatze aldera, autonomiaren balioa ikuspegi desberdinetatik aldarrikatu da. Adibidez, unibertsitateek euren barne funtzionamendua hobetzeko printzipio arduratsu gisa aipatu da autonomia, baina baita ikasleen eta irakasleen arteko lan harremanak kudeatzeko momentuan aldarrikatu beharreko printzipio gisa ere. Modu honetan adierazten du honako elkarrizketatuak lehenengo aspektua:

**Uste dut unibertsitateak aurrera egiteko eta gizarte arrakala hori eragiteko behar duela autonomia bat izan. Baina hori baldintza batzuekin; nik ez dut uste gaur egun diru pakete bat emanez gero unibertsitateari berak diru horrekin nahi duena egin dezan emaitza ona izango genukeenik, egiturak ez daudelako prest erabaki onak hartzeko (E-19).**

Bigarren aspektuari dagokionez, ikasleen autonomia lantzearen ideia maiz agertu da lotuta elkarrizketatuek buruan dituzten beste unibertsitate ereduekin. Ia kasu guztietan, elkarrizketa batean izan ezik, eredu horiek «munduko iparralde» moduan ezagutzen den gune horretan jarri dute arreta (AEB, Holanda, Alemania, Finlandia, Frantzia, e.a.). Horrek, jakina, «ipar-hegoa» banaketak unibertsitate politikan ardatz egituratzaile gisa duen eragina erakusten du. Horrela dio elkarrizketatu batek:

**Holanda... eta egia da beste unibertsitate biziago batzuk eta malguagoak daudela, eta egian esan, ez ditut ezagutzen baina sortzen zait jakin-mina ezagutzeko, ikusi dudalako badituztela ikerketa eta proiektu aplikatu pila bat eskolekin batera praktika horretatik abiatuta, graduak pentsatzeko orduan askoz ere irekiagoak dira, presentzialitatea askoz txikiagoa da, ikasle sorkuntzarako autonomia askoz handiagoa da... (E-2).**

Laburbilduz, gizarte eraldaketan euskal unibertsitate sistemak duen eragina aztertzeko unean argi geratu da hiru diskurtsoek unibertsitatearen ontologia desberdinak dituztela. Desberdintasun horietan bat egiteak aurkitu dira eta horiexek aipatu dira txostenaren atal honetan. Nabaritu denez, «adostasun-puntu» bakoitzak xehetasun berriak ireki ditu, eta horrek gaiaren konplexutasunaren zenbaterainokoa erakusten du.

# 5. Bibliografia

**AIZPURU, M. X. (2003)**. *Udako euskal unibertsitatea euskal kulturgintzan: Hasierako urteak, 1973-1984*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

**ALTBACH, P. G., REISBERG, L., & RUMBLEY, L. E. (2009).** *Trends in global higher education: Tracking an academic revolution.* (No. 246). Paris: UNESCO.

**ALTBACH, P. G. (2004).** Globalisation and the university: Myths and realities in an unequal world. *Tertiary Education and Management*, *10*(1), 3-25.

**ANDREW, C., & KLEIN, J. (2010).** *Social innovation: What is it and why is it important to understand it better*. Montreal: Cahiers du CRISES.

**AZKARRAGA, J. (2010).** *Hezkuntza, gizartea eta eraldaketa kooperatiboa: Zenbait gogoeta, gizabidea fundazioaren hausnarketa estrategikorako* (X. Sarasua Trans.). Eskoriatza: Mondragon Unibertsitatea/ Universidad de Mondragón.

**BENFORD, R. & SNOW, D. (2000).** Framing Processes and Social Movements: An Overview and Assessment». *Annual Review of Sociology*, *26*, 611-639.

**BOSTANCI, S. H., & YILDIRIM, S. (2017).** Identity quest in developing universities. Paper presented at the *International Congress of Management Economy and Policy,* Istanbul.

**BOUCHARD, M. J. (2006).** *L'innovation sociale en économie sociale.* (No. R-2006-01). Quebec: Cahier de la Chaire de recherche du Canada en économie sociale.

**BOURDIEU, P. (2000).** *Los usos sociales de la ciencia*. Buenos Aires: Nueva Visión.

**BRANKOVIC, J. (2017).** Between world culture and local context: The university as an empowered actor in national higher education governance. *Acta Sociológica*, November 15, 1-15.

**BRENNAN, J., KING, R., & LEBEAU, Y. (2004).** *The role of universities in the transformation of societies.* (No. November). Londres: Association of Commonwealth Universities (ACU)/Centre for Higher Education Research and Information (Cheri).

**BURKE, R. (2012).** Contesting notions of an 'education industry': Media commentary on the transition to a trade-orientated international student program in Australia. *Flinders Journal of History and Politics, 28*, 141-174.

**CASTILLO, J. J., & MORÉ, P. (2018).** *Universidad precaria, universidad sin futuro (en liquidación)*. Madrid: Fuhem.

**CAVA, M. J., & LEONARDO, J. (2011).** *La universidad de Deusto entre dos siglos: Los últimos 25 años (1986-2011)*. Bilbo: Deustuko Unibertsitateko Argitalpenak/Servicio de Publicaciones de la Universidad de Deusto.

**CLOUTIER, J. (2003).** *Qu'est-ce que l'innovation sociale?* Montreal: Cahiers du CRISES.

**COMISIÓN EUROPEA. (2013).** *Unión por la innovación*. Luxemburgo: Oficina de Publicaciones de la Unión Europea.

**COMISIÓN EUROPEA. (2017).** *Documento de reflexión sobre el encauzamiento de la globalización.* (No. COM 2017-240). Bruselas: Comisión Europea.

**COMISIÓN EUROPEA. (2017).** *Documento de reflexión sobre la dimensión social de Europa.* (No. COM 2017-206). Bruselas: Comisión Europea.

**CONEJERO, E., & REDONDO, J. C. (2016).** La innovación social desde el ámbito público: Conceptos, experiencias y obstáculos. *Gestión y Análisis De Políticas Públicas, 15*, 23-42.

**CONSEJO ECONÓMICO Y SOCIAL, CES. (2009).** *Sistema educativo y capital humano.* (No. 1). Madrid: Consejo Económico y Social.

**DÍAZ-SALAZAR, R. (2015).** ¿Reproducción o contra hegemonía? ¿Puede contribuir la universidad al cambio ecosocial? *PAPELES De Relaciones Ecosociales y Cambio Global, 130*, 13-26.

**DORRONSORO, G. (2018).** Investigación universitaria y prosperidad económica territorial. <http://agendapublica.elperiodico.com/investigacion-universitaria-y-prosperidad-economica-territorial> Kontsulta: 2018.06.19

**ECHEVERRÍA, J. (2013).** Evaluar las innovaciones y su difusión social. *Isegoría, 48*, 173-184.

**ECHEVERRÍA, J. (ED.). (2017).** *Industrias culturales y creativas: Perspectivas, indicadores y casos*. Donostia: Sinnergiak Social Innovation.

**ECHEVERRÍA, J. (2017).** La retórica de la innovación. *Revista Iberoamericana De Argumentación, 7*, 1-12.

**ECHEVERRÍA, J., & MERINO, L. (2011).** Cambio de paradigma en los estudios de innovación: El giro social de las políticas europeas de innovación. *Arbor, 187*(752), 1031-1043.

**ESPIAU, G. (2017).** Basque transformational narratives. <http://meetingoftheminds.org/basque-transformational-narratives-21585> Kontsulta: 2018.06.12

**ESPIAU, G. (2017).** Nuevas tendencias de la innovación social. *Revista Española Del Tercer Sector, 36*, 139-168.

**EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA/UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO. (2017).** *2018/2021 aldirako plan estrategikoaren oinarriak.* Leioa: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua/Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco.

**EUSKO JAURLARITZA/GOBIERNO VASCO. (2014).** *RIS 3 Euskadi: Prioridades estratégicas de especialización inteligente de Euskadi.* (No. Abril). Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia/Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco. <https://www.irekia.euskadi.eus/assets/attachments/4633/prioridades_estrategicas201404_ris3_gobierno_vasco.pdf?1400573225> Kontsulta: 2018.06.10

**EUSKO JAURLARITZA/GOBIERNO VASCO. (2018)**. *2015-2018ko unibertsitate plana.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia/Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.

**FÉDÉRATION QUÉBÉCOISE DES PROFESSEURES ET PROFESSEURS D'UNIVERSITÉ, FQPPU. (2006).** *L'institution universitaire: Son rôle dans la société, sa mission et ses mécanismes de régulation.* Montreal: <http://archives.fqppu.org/bibliotheque/prises-de-position/memoires-avis/institution-universitaire.html> Kontsulta: 2018.02.19

**FERNÁNDEZ, M. T., MONTES, O., & ASIÁN, R. (2012).** La innovación social como solución a la crisis: Hacia un nuevo paradigma de desarrollo. Paper presented at the *XIII Jornadas De Economía Crítica*, Sevilla. 1084-1101.

**FERNÁNDEZ, N. (ED.). (2009).** *Universidad, sociedad e innovación. una perspectiva internacional*. Buenos Aires: Editorial Caseros: Universidad Nacional de Tres de Febrero.

**FLYVBJERG, B. (2006).** Making organization research matter: Power, values, and phronesis. In C. R. Stewar, C. Hardy, T. B. Lawrence & W. R. Nord (Eds.), *The sage handbook of organization studies* (pp. 370-387). Londres: Sage.

**FUNDACIÓN CYD. (2017).** *El barómetro CYD 2016: El papel de las universidades en España.* Barcelona: Fundación CYD.

**FRASER ESPAÑOLA. (1991).** *Estudio sobre la viabilidad y conveniencia de una universidad tecnológica en Euskadi.* Bilbo: Fundación Euskoiker.

**GALCERÁN, M. (2010).** *La educación universitaria en el centro del conflicto: Capturas y fugas en el mercado global del saber*. Madrid: Traficantes de Sueños.

**GARCÍA, J., & ESTEBAN DE, M. (2011).** *La internacionalización de las universidades, una estrategia necesaria: Una reflexión sobre la vigencia de modelos académicos, económicos y culturales en la gestión de la internacionalización universitaria.* (No. Documento de trabajo II). Madrid: Studia XXI: Fundación Europea Sociedad y Educación.

**GINER, S., LAMO DE ESPINOSA, E., & TORRES, C. (ARG.) (1998).** Diccionario de Sociología. Madrid: Alianza, 811-812.

**GOLDENBERG, M. (2004).** *Social innovation in Canada: How the non profit sector serves canadians… and how it can serve them better.* (No. W/25). Ottawa: Canadian Policy Research Networks Inc. (CPRN).

**GOLDENBERG, M., KAMOJI, W., ORTON, L., & WILLIAMSON, M. (2009).** *Social innovation in Canada: An update.* (No. September). Ottawa: Canadian Policy Research Networks.

**GONZÁLEZ DE LA FE, T. (2009).** El modelo de triple hélice de relaciones universidad, industria y gobierno: Un análisis crítico. *Arbor, 185*(738), 739-755.

**GRAU, F. X. (2012).** *La universidad pública española: Retos y prioridades en el marco de la crisis del primer decenio del siglo XXI*. Tarragona: Universitat Rovira i Virgili.

**GURRUTXAGA, A. (2011).** Condiciones y condicionamientos de la innovación social. *Arbor, 187*(752), 1045-1064.

**GURRUTXAGA, A. (2013).** No todo es innovación social. *Revista Iberoamericana De Argumentación*, *7*, 1-14.

**GURRUTXAGA, A., & RIVERA, A. (2011). I***mplications of current research on social innovation in the Basque Country.* (No. 4). Reno: Center for Basque Studies (University of Nevada).

**GURRUTXAGA, A., & UNZETA, A. (2006).** Hacia una historia comparada de la innovación. Cambio, complejidad y globalización. *Historia Contemporánea, 32*, 129-160.

**HARRIS, M., NIGHTINGALE, P., ACHA, V., HOBDAY, M., PATEL, P., SCOTT, A., & MCLEISH, C. (2006).** *The innovation gap: Why policy needs to reflect the reality of innovation in the UK.* (No. October, IG/02). Londres: NESTA.

**HEALES, C., HODGSON, M., & RICH, H. (2017).** *Humanity at work: Mondragon, a social innovation ecosystem case study.* Londres: The Young Foundation.

**HERNÁNDEZ, J., & PÉREZ, J. A. (EDS.). (2017).** *La universidad española en cifras: 2015/2016*. Madrid: CRUE Universidades Españolas.

**HERNÁNDEZ-ASCANIO, J., TIRADO-VALENCIA, P., & ARIZA-MONTES, A. (2016).** El concepto de innovación social: Ámbitos, definiciones y alcances teóricos. *CIRIEC-España, Revista De Economía Pública, Social y Cooperativa, 88*, 164-199.

**HUDDART, S. (2010).** Patterns, principles, and practices in social innovation. *The Philanthropist, 23*(3), 221-234.

**HUGHES, R. (2008).** Internationalization of higher education and language policy. *Higher Education Management and Policy, 20*(1), 1-18.

**HUNT, S.; BENFORD, R.T; SNOW, D. (1994).** «Marcos de acción colectiva y campos de identidad en la construcción social de los movimientos». En Laraña & J. Gusfield (arg.), *Los Nuevos Movimientos Sociales. De la ideología a la identidad.* Madrid: CIS, 211-249.

**IBAÑEZ, J. (1994).** El regreso del sujeto: la investigación social de segundo orden. Madrid: Siglo XXI.

**IBARRETXE, J. J. (2012).** *The Basque case: A comprehensive model for sustainable human development*. Leioa: Nazioarteko Ikasketen Katedra/Cátedra de Estudios Internacionales.

**IKERBASQUE, BASQUE FOUNDATION FOR SCIENCE. (2017).** *Zientzia Euskadin txostena, 2017.* Bilbo: Ikerbasque, Basque Foundation for Science. Eusko Jaurlaritza/Gobierno Vasco: Gasteiz.

**JONGBLOED, B., ENDERS, J., & SALERNO, C. (2008).** Higher education and its communities: Interconnections, interdependencies and a research agenda. *Higher Education, 56*(3), 303-324.

**LARA, T. (2015).** ¿Qué universidad?, ¿Para quiénes?: El modelo de educación superior en crisis. *Revista De Estudios De Juventud, 108*, 51-59.

**LARRINAGA, A. (2016).** Identidades académicas en cambio en el seno de la universidad multilingüe. *Papeles Del CEIC, 2*, 1-32.

**LÓPEZ, F., MIGUEL DE, Á., GARCÍA, I., VILLAR, J. R., ARRIERO, C., COLLADO, M. A., RÍO DEL, M. ª. J. (2016).** *Informe 2016 sobre el estado del sistema educativo: Curso 2014-2015.* (No. 030-16-624-4 Papel). Madrid: Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, MECD/Secretaría General Técnica.

**LUXAN, M., IMAZ, J. I., BEREZIARTUA, G., & LAUZURIKA, A. (2014).** Universidad y transformación social. *RASE: Revista De La Asociación De Sociología De La Educación, 7*(3), 674-688.

**MANZANO-ARRONDO, V. (2015).** Academia, evaluación y poder. *RASE: Revista De La Asociación De Sociología De La Educación, 8*(2), 198-223.

**MANZANO-ARRONDO, V., & TORREGO, L. (2009).** Tres modelos para la universidad. *Revista De Educación, 350*, 477-489.

**MARTINEZ-GRANADO, M., GREÑO, P., & OLEAGA, M. (2012).** *The Basque Country, Spain: Self-evaluation report.*

**MINISTERIO DE EDUCACIÓN, CULTURA Y DEPORTE, MECD. (2015).** *Estrategia para la internacionalización de las universidades españolas 2015-2020.* (No. 030-16-568-5 Papel). Madrid: Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, MECD/Secretaría General Técnica.

**MONDRAGON UNIBERTSITATEA/UNIVERSIDAD DE MONDRAGÓN. (2018).** *Mondragon unibertsitatea: 2016/2017 ikasturteko memoria.* Arrasate: Mondragon Unibertsitatea/Universidad de Mondragón. <https://www.mondragon.edu/documents/20182/23892/memoria-mondragon-unibertsitatea-2016-2017-eus.pdf/2eefef58-27b9-46ec-a685-d6acc30ec875> Kontsulta: 2018.06.19

**MULGAN, G., TUCKER, S., ALI, R., & SANDERS, B. (2007).** *Social innovation: What it is, why it matters and how it can be accelerated.* (No. March). Skoll Centre for Social Entrepreneurship.

**MURRAY, R., CAULIER-GRICE, J., & MULGAN, G. (2010).** *The open book of social innovation*. Londres: NESTA.

**ORGANISATION FOR ECONOMIC CO-OPERATION AND DEVELOPMENT, OECD. (2016).** *Education at a glance 2016: OECD indicators*. Paris: OECD Publishing.

**ORGANISMO AUTÓNOMO PROGRAMAS EDUCATIVOS EUROPEOS, OAPEE. (2014).** *Datos y cifras del programa Erasmus en España: Curso 2012-2013.* Madrid.

**ORKESTRA, LEHIAKORTASUNERAKO EUSKAL INSTITUTUA & DEUSTU FUNDAZIOA. (2017).** *Euskal Autonomia Erkidegoko lehiakortasunari buruzko 2017ko txostena. Eta bihar?* (Itziar Navarro Trans.). Bilbo: Deustuko Unibertsitateko Argitalpenak/Servicio de Publicaciones de la Universidad de Deusto.

**PABLO DE, S., & RUBIO, C. (2006).** *Historia de la UPV-EHU 1980-2005: Eman ta zabal zazu*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad del País Vasco.

**PARELLADA I SABATA, M., & DUCH, N. (2005).** La universitat de vic i el seu impacte territorial. *Coneixement i Societat*, *7*, 27-51.

**PASTOR, J. M., & PERAITA, C. (2012).** *La contribución socioeconómica del sistema universitario español.* (No. 030-12-296-7). Madrid: Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, MECD/Secretaría General Técnica.

**PÉREZ, F., PASTOR, J. M., & PERAITA, C. (2015).** *La contribución socioeconómica de las universidades públicas valencianas.* (No. Tercer Informe del SUPV). Valencia: Sistema Universitario Público Valenciano, SUPV.

**PLANAS, J., & FACHELLI, S. (2010).** *Les universitats catalanes, factor d'equitat i de mobilitat professional*. Barcelona: Agència per a la Qualitat del Sistema Universitari de Catalunya.

**PLAZA, R. J. M. (2006).** *Universidad SA?: público y privado en la educación superior.* Barcelona: Ariel.

**PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA. (2017).** 65. Soziometroa. Zientzia eta teknologiaren gizarte pertzepzioa. Eusko Jaurlaritza/Gobierno Vasco: Gasteiz. <http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/sociometro_vasco_65/es_def/adjuntos/17sv65.pdf> Kontsulta: 2018.06.19

**RAMIREZ DE OKARIZ, I. (2017).** 40 urtean euskal gizartean eragiten. *Jakingarriak*, *76*, 12-15.

**RINNE, R., & KOIVULA, J. (2005).** La place nouvelle de l'université et le choc des valeurs. *Politiques Et Gestion De l'Enseignement Supérieur, 3*(17), 99-132.

**ROKEACH, MILTON (ARG.) (1979).** Understanding Human Values, Individual and Societal. New York: The Free Press.

**RUBIO, J. A. (2017).** *El canvi cultural en la institució universitària: Agencialització i gestió de la qualitat*, *Revista de cultura, poder i societat*, Valencia: DEBATS.

**RUIZ OLABUENAGA, JOSÉ IGNACIO (1999).** Metodología de la investigación cualitativa. Universidad de Deusto.

**SACRISTÁN, V. (2017).** *¿Quién financia la universidad? Comparación entre comunidades autónomas en España, Europa y la OCDE, 2009-2015.* (Diciembre).OSU: Observatorio Sistema Universitario.

**SCHEUFELE, D.A. & TEWSKBURY, D. (2007):** «Framing, Agenda Setting and Priming: The Evolution of Three Media Effects Models».D. Tewskbury, D.A. Scheufele (arg.), *Journal of Communication*, *57* (1), 9-20.

**SNOW, DAVID & BENFORD, ROBERT (1988).** «Ideology, Frame Ressonance and Participant Mobilization». B. Klandermans, H. Kriesi & S. Tarrow (arg.), From Structure to Action. International Social Movement Research I, Greenwich: Jai Press.

**SOCIAL INNOVATION EXCHANGE (SIX), & THE YOUNG FOUNDATION. (2010).** *Study on social innovation.* (No. 2010). European Union / The Young Foundation.

**STEWAR, C. R., HARDY, C., LAWRENCE, T. B., & NORD, W. R. (Eds.). (2006).** *The SAGE handbook of organization studies*. Londres: Sage.

**STRANDBERG, C. (2017).** *Maximizing the capacities of advanced education institutions to build social infrastructure for canadian communities.* The J.W. McConnell Family Foundation / Simon Fraser University: Canada.

**TESTAR, X. (2012).** *La transferencia de tecnología y conocimiento universidad-empresa en España: Estado actual, retos y oportunidades.* (No. 17). Documentos CYD.

**THE GROUP OF EIGHT AUSTRALIA CENTRE EUROPE (2007).** *Languages in crisis: A rescue plan for Australia.* The Group of Eight.

**UNCETA, A., CASTRO-SPILA, J., & GARCÍA FRONTI, J. (2016).** Social innovation indicators. *Innovation: The European Journal of Social Science Research*, *29*(2), 192-204.

**UNIBASQ, EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE AGENTZIA. (s.f.)** Euskal unibertsitate sistemaren jardueraren behatokia. <https://observatorio.unibasq.eus/eu> Kontsulta: 2018.06.19

**UNION GENERAL DE TRABAJADORES DE ESPAÑA, UGT, & FETE ENSEÑANZA. (2009).** *Resumen del informe sobre el sistema educativo y capital humano en España elaborado por el consejo económico y social.* (No. Marzo). Madrid: Gabinete Técnico.

**UYARRA, E., & SÁNCHEZ-BARRIOLUENGO, M. (2017).** *Papel de la universidad en el desarrollo regional* (Ekonomiaz, Revista vasca de economía ed.) Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia/Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.

**VALLÉS, MIGUEL. (1999).** Técnicas cualitativas de investigación social. Madrid: Síntesis.

**VELEZ, J., & OLAYA, S. (2015).** Éléments-clés pour la durabilité des processus d'internationalisation territoriale: Le rôle des institutions d'éducation supérieure et des centres de réflexion. *Cahiers De La Coopération Décentralisée, 5*, 63-77.

**VERGER, A., LUBIENSKI, C., & STEINER-KHAMSI, G. (2016).** The emergence and structuring of the global education industry: Towards an analytical framework. In A. Verger, C. Lubienski & G. Steiner-Khamsi (Eds.), *World yearbook of education 2016: The global education industry* (pp. 1-26). Abingdon, Oxon: Routledge.

**VERGER, A., LUBIENSKI, C., & STEINER-KHAMSI, G. (2016).** *World yearbook of education 2016: The global education industry*. Abingdon, Oxon: Routledge.

**VERGER, A., STEINER-KHAMSI, G., & LUBIENSKI, C. (2017).** The emerging global education industry: Analysing market-making in education through market sociology. *Globalisation, Societies and Education, 15*(3), 325-340.

**VILALTA, J. M. (Ed.) (2012).** *Impactos de las universidades públicas catalanas en la sociedad* (M. Pardo Trans.). Barcelona: Asociación Catalana de Universidades Públicas (ACUP).

**VILALTA, J. M. (2017).** La internacionalización de las universidades: Tendencias y limitaciones. la experiencia en Cataluña. <http://www.universidadsi.es/la-internacionalizacion-las-universidades-tendencias-limitaciones-la-experiencia-cataluna> Kontsulta: 2018.06.22

**VILLA, A. (2014).** La innovación social en el ámbito universitario: Una propuesta para su diagnóstico y desarrollo. *Revista Argentina De Educación Superior, 8*, 188-218.

**VON HIPPEL, E. (2005).** *Democratizing innovation*. Massachusetts: The MIT press.

**WEBER, M. (2002).** Economía y Sociedad. México: Fondo de Cultura Económica.

# 6. Eranskinak

## 1. Eranskina.
## Sakoneko elkarrizketak egiteko erabilitako gidoi erdi egituratua

**KOKAPENA**

**Identifikazioa:**

- Izen abizenak, lanbidea, formakuntza (ikasketa maila), hizkuntzak, sexua eta adina.

**Unibertsitate sistemarekin duen edo izan duen harremana:**

- Zein harreman pertsonal izan duzu, edo duzu, unibertsitatearekin? Unibertsitatean sartu aurretik, zer espero zenuen? Nola baloratzen duzu unibertsitatean izan duzun esperientzia?
  - Unibertsitateko ikasketak eginak badituzu, non eginak dira? Nola baloratzen dituzu gaur egun?

- Baduzu harreman profesionalik unibertsitate sistemarekin?
  - Bertan lan egiten duzu? Baiezkoan: nola baloratzen duzu unibertsitateko zure jarduera, bai irakaskuntzan, bai ikerkuntzan egiten duzuna?
  - Zeharkako harremana (adibidez, unibertsitate titulodunekin lan egiten duzu)?

**IRITZIAK**

**Unibertsitateari buruz, orokorrean:**

- Gizarteak unibertsitatea behar du? Zertarako? Nola ulertzen dituzu unibertsitatearen eta gizartearen arteko harremanak?

- Zer eskatu behar zaio unibertsitateari? (**Galdera hau irakaskuntzak unibertsitatean duen pisuaz galdetzeko baliatu).*

- *Zure ustez, euskal unibertsitateek jendartearen aldaketan parte hartzen dute, zer aldatzen laguntzen dute? Zergatik?*

- *Eta kontrakoa: zerbait elikatzen/mantentzen dutela uste duzu? (zer aldatzeko ez duten balio). Ibilbide bat egina dutenei: zure ustez hau beti izan da horrela? Zure bizipenetan oinarrituta, mugarriren bat/batzuk nabarmenduko zenituzke?*

**Euskal unibertsitate sistemari buruz:**

- Inoiz izan al duzu euskal unibertsitate sistemaren berri? Baiezkoan: nola ikusten duzu euskal unibertsitate sistema? Zein erakunde kokatuko zenuke «sistema» horretan? Ezezkoan: nola ikusten dituzu euskal unibertsitateak? («euskal» zer den zehaztu gabe, berak aukera dezala).

- Zein ekarpen egiten diote gaur egun, zure ustez, euskal unibertsitateek zure arloari? Eta gainerako arloei? (*ekonomia, kultura, politika, generoa, gizartea, ikerketa, hezkuntza...). Eta euskal unibertsitate bakoitzaren ekarpenaz galdetuko banizu? (*Elkarrizketatua «unibertsitateak egin behar lukeen» horretan tematuko balitz, indarra jarri «egiten duen» horretan).

- Kontakturik izan duzu beste toki batzuetako unibertsitateekin?
  - Baiezkoan: zure bizipenetan oinarrituta, alderik ikusten duzu hemengo eta hango unibertsitateen artean? Zeintzuk?
  - Ezezkoan: zein irudi duzu beste toki batzuetako unibertsitateei buruz?

- Uste duzu euskal unibertsitateek ezer bereizgarririk badutela?

**IKUSPEGI HISTORIKOA**

- Euskal gizartean izandako aldaketak nabarmenak izan dira azken hamarkadetan. Ados balego: zure ustez, zein arlotan gertatu dira? Zein aldaketa nabarmenduko zenituzke?

- Bestetik, azken hiruzpalau hamarkadetan aldaketa nabarmenak suertatu dira euskal unibertsitateetan. Ados balego: bertan zaudenetik/ezagutzen duzunetik nolako aldaketak ikusi dituzu euskal unibertsitateetan? Zeintzuk nabarmenduko zenituzke?

- Harremanik ikusten duzu euskal unibertsitateen bilakaeraren eta gizarteko aldaketen artean? Baiezkoan: nolakoak?

- Nola eragiten ari dira kanpoko faktoreak (Europar Batasunaren eraikuntza, globalizazio ekonomiko eta kulturala...) euskal unibertsitateetan? Bizi izan dituzu zuk zure esperientzian eragin horien ondorioak?

**UNIBERTSITATEEK DUTEN IRUDIA**

- Zure ustez, nola ikusita daude euskal unibertsitateak gizartean, oro har? Zein irudi heltzen zaio jendeari? Barrukoei: nola ikusten zaituzte zure inguruan (familian, lagun taldean, eta abar)? Kanpokoei: Zure inguruak (familiak, lagun taldeak, eta abar) nola ikusten du unibertsitatea? Zer komentario edo iritzi entzuten dituzu maiz unibertsitatearen inguruan?

- Zuk zein irudi duzu euskal unibertsitateei buruz? Zein ezaugarrirekin lotzen duzu bakoitza? (**Aurretik zehaztu baditu, gogorarazi berriro hemen zein unibertsitatez ari garen; aipatu ez baditu, ea berak zehazten dituen; zehazteko eskatuko baligu orduan aipatuko genituzke).*

- *Lisboako estrategiak (1998), «Bolonia prozesuak», oihartzun handia izan zuen Europan unibertsitateen antolakuntzari dagokionez. Prozesu haren gakotako bat unibertsitatearen nazioartekotzearekin lotuta dago. Nola ikusten dituzu euskal unibertsitateak nazioartean*

**GAUR EGUNGO EGOERA ETA ETORKIZUNEKO BEGIRADA**

- Zerbait hartzen duzu faltan euskal unibertsitateetan? Zer pentsatzen duzu hobetu/aldatu beharko litzatekeela?

- Zure ustez, zein dira euskal unibertsitateek etorkizunera begira dituzten erronka nagusiak?

**ITXIERA**

- Zer edo zer geratu zaizu esateke?

- Nahi duzu lan honen emaitzak zurekin partekatzea?

- Esker ona.

# 2. Eranskina. Elkarrizketatutako pertsonen zerrenda[23]

| IZENA EDO ERREFERENTZIA | PROFIL LABURTUA JATORRI INSTITUZIONALAREN ARABERA |
|---|---|
| **Adrian Zelaia** | EKAI Center, DU, MU, MCC-ko kide dena edo izan dena. |
| **N. A.** | EHUko ikaslea, Emakumezkoa (20- 30 urte bitartean). |
| **Asier Lauzirika** | MU, EHUko ikasle ohia. |
| **Iñaki Dorronsoro** | Eusko Ikaskuntza, MCC, LKS. |
| **Iñaki Gonzalez Murua** | LAB sindikatuko kidea. |
| **Itziar Alkorta Idiakez** | EHU, Eusko Jaurlaritza. |
| **Jon Mirena Landa** | Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UPV/EHUko Unesco Katedraren zuzendaria. |
| **Joseba Barandiaran** | BBVA. |
| **Karlos Perez de Armiño** | EHU, Hegoa Institutuko kidea. |
| **Lorea Agirre** | JAKIN, MU, EHU, Euskaldunon Egunkaria. |
| **Mari Jose Aranguren** | DU, Orkestra Institutua. |
| **Marta Macho-Stadler** | EHU. |
| **Nuria López de Gereñu** | Tubacex, CONFEBASK, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia. |
| **Alaitz Landaluze** | INNOBASQUEko kidea. |
| **Anjeles Iztueta** | EUSTAT, Eusko Jaurlaritza, DU, EHU. |
| **Guillermo Dorronsoro** | DU, IK4 Research Alliance, Orkestra. |
| **Iñaki Goirizelaia** | EHU. |
| **Itziar Alkorta Calvo** | EHU, MPC-BERC. Biofisika Institutuko Zuzendaria ohia. |
| **E. G.** | DUko irakasle eta ikertzailea. Emakumezkoa (30-40 urte bitartean). |
| **Joseba Azkarraga Etxagibel** | EHU, MUko ikertzaile eta irakasle izandakoa. |
| **Mertxe Rodríguez**<br>**Aiora Zulaika**<br>**Joxe Mari Agirretxe** | Aktoreak. Pailazoak. |
| **Karmele Artetxe** | EHU, UEU. |
| **Maialen Olabe** | Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko zuzendaria. |
| **Marta Luxan** | EHU, Joxemi Zumalabe Fundazioa. |
| **G. M.** | EHU-ko kudeatzailea, Eusko Jaurlaritzako langilea. Emakumezkoa (50- 60 urte bitartean). |

23 Taula honetan ez dira jaso anonimatua eskatu izan duten pertsonen izenak. Kasu horietan zorizkoak diren siglekin ordezkatu dira.

# 3. Eranskina. Elkarrizketatutako pertsonen lagina aukeratzeko erabilitako banaketa-matriza

| | |
|---|---|
| **KOKAPENA UNIBERTSITATEAREKIKO**<br>(nondik hitz egiten dute?)<br><br>Unibertsitateari lotuta dauden agenteak<br><br>(nolabait unibertsitateak lagundutako eraldaketaren inguruan barne perspektiba bat duten agenteak) | **KOKAPENA UNIBERTSITATEAREKIKO**<br><br>Unibertsitateari zuzenean lotuta ez dauden agenteak (kanpo perspektiba) |
| **BOTEREAren perspektiba**<br><br>(«zientzia gogorra»/ «zientzia biguna») | **BOTEREAren perspektiba** |
| **Generoa (E/G/B)** | |
| **Ikasketa maila** | |
| **Arraza** | |
| **Hizkuntza** | |
| **Klase soziala** | |

# 4. Eranskina.
# Kontraste saioan parte hartutako pertsonen zerrenda

| IZENA ETA ABIZENAK | PROFIL LABURTUA JATORRI INSTITUZIONALAREN ARABERA |
|---|---|
| **Aitor Montes** | Osakidetza. |
| **Beatriz Akizu** | Eusko Ikaskuntza. |
| **Adolfo Morais** | Eusko Jaurlaritza. |
| **Miren Artaraz** | Eusko Jaurlaritza. |
| **Amaia Esquisabel** | Eusko Jaurlaritza. |
| **Amaia Zarrabeitia** | ELHUYAR. |
| **Iker Villanueva** | EHUko Ikaslea - Medikuntza. |
| **Juan Jose Ibarretxe** | Lehendakari Ohia, EHU. |
| **Pedro Miguel Etxenike** | DIPC - Zientzia, UPV/EHU. |
| **Paul Ríos** | Lokarri - ALC. |
| **Miren Azkarate** | EHU – kultura. |
| **Maider Urtaran** | Deusto Health. |
| **Kiko Caballero** | EHU. |
| **Gorane Agirre** | EHU - Errektoretza. |
| **Alvaro Fierro** | Cultumetría. |
| **Iskander Alkate** | TZBZ - Enpresa MTA. |
| **Ainhoa Esnaola** | LEINN - MU gradua. |
| **Angel Elías** | EHU. |
| **Asier Aloria** | CONFEBASK. |
| **Sabino Arrieta** | Trecasin Enpresa. |
| **Javi Larrañaga** | Urbegi enpresa. |
| **Lierni Ezenarro** | Ikasle ohia, Deusto + Master Ikaslea EHU. |
| **Esti Biguri** | Bizkaiko Foru Aldundia. |
| **Irune Prieto** | Bizkaiko Foru Aldundia. |

# 5. Eranskina. Datu kuantitatibo aukeratuak

Eranskin honetarako Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko zenbait datu kuantitatibo aukeratu dira iturri ezberdinetatik, lanean identifikatu eta aztertu diren diskurtsoen ulerkuntza lagun dezaketelakoan. Helburua ez da, beraz, irudi orohartzaile bat ematea, are gutxiago sistemaren ebaluazio baterako materiala eskaintzea.

## 5.1. Euskal Unibertsitate Sistema: deskribapen orokorra (Iturria: UNIBASQ)

### 5.1.1 Euskal Unibertsitate Sistemako ikasleak, unibertsitateen arabera




### 5.1.2 Euskal Unibertsitate Sistemako ikasleak, zientziaren arloaren arabera



## 5.1.3 Euskal Unibertsitate Sistemako ikasleak, generoaren arabera




## 5.1.4 Euskal Unibertsitate Sistemako titulu eskaintza, unibertsitateen arabera




## 5.1.5. Euskal Unibertsitate Sistemako titulu eskaintza, zientziaren arloaren arabera



## 5.2. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistema: deskribapen orokorra

### 5.2.1 ZTBES-eko agenteak

**BERC OINARRIZKO ETA BIKAINTASUNEZKO IKERKETA-ZENTROAK**

- Achucarro Basque Center for Neuroscience
- BC3 Basque Center for Climate Change
- BCAM Basque Center for Applied Mathematics
- BCBL Basque Center on Cognition, Brain and Language
- BCMaterials- Basque Center for Materials, Applications and Nanostructures
- DIPC Donostia International Physics Center
- MPC Materials Physics Cente
- Polymat - Basque Center for Macromolecular Design and Engineering
- Bizkaia Biofisika Fundazioa

**IKZ IKERKETA KOOPERATIBOKO ZENTROAK**

- CIC BioGUNE
- CIC BiomaGUNE
- CIC NanoGUNE
- CIC EnergiGUNE

**IKERKETA BIOMEDIKOA**

- BioCruces Health Research Institute
- BioDonostia Institute
- Kronikgune
- Bioef Biomedical research
- CITA Alzheimer

**KORPORAZIO TEKNOLOGIKOAK**

- Tecnalia
- IK4 Research Alliance

**BESTELAKO IKERKETA ERAKUNDEAK**

- ESS Bilbao
- Orkestra
- Ikerbasque
- Bestelakoak

## 5.3. Finantzazioa

### 5.3.1 EUS-en eta ZTBES-en finantzazio publikoa (Eusko Jaurlaritza): 2015-2018 Unibertsitate Planak eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Planak 2018rako aurreikusitako ekarpenak

| | 2018rako ekarpena |
|---|---|
| EHU (Ekarpen Arrunta + Programa Kontratua + Inbertsio Plana) | 320.808.650 € |
| DU (Programa Kontratua) | 7.845.744 € |
| MU (Programa Kontratua) | 6.994.335 € |
| EUS guztira | 335.648.729 € |
| Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea | 402.000.000 € * |

*Hauetatik 77 milioi «Unibertsitate eta Zientzia Ikerketarako» bideratuak dira.

### 5.3.2 EAEko ikerkuntzaren finantzazioa, iturri eta arloaren arabera (Iturria: EUSTAT, 2016; milioi €)




## 5.4. Emaitzak

### 5.4.1 EUS-en eta ZTBES-en ekoizpen zientifikoaren bilakaera (Scopus-eko argitarapenen ehunekoak) (Iturria: IKERBASQUE)



## 5.4.2 EUS-eko egresatuen jarduera, enplegu eta enplegu enkajatu tasak, 2013ko promozioa 2016 urtean (Iturria: Lanbide)




## 5.4.3 Lanean dauden EUS-eko egresatuen lantokiak, sektorea eta enpresaren titularitatearen arabera, 2013ko promozioa 2016 urtean (Iturria: Lanbide)



## 5.4.4 Goi mailako titulatuen (ISCED 5-8) ehunekoa, 25-34 populazioaren artean (Iturria: OECD eta INE)




## 5.4.5 EAEko unibertsitateko titulatuen ehunekoa, 25-34 urteko populazioaren artean (Iturria: EUSTAT)



## 5.4.6 EUS-en defendatutako doktore tesiak (Iturria: EUSTAT)



# 6. Eranskina. EHUren hitzarmenak. 1981-2017

Eranskin honetan ikerketa honetarako propio landutako datuak aurkezten dira: UPV/EHUk kanpoko eragileekin bere sorreratik sinatutako hitzarmenen analisia. Izan ere, datu honek unibertsitatearen eta gizarteko sektore ezberdinaren arteko harremanaz argiren bat eman dezakeelakoan burutu da lana. UPV/EHUren hitzarmenen historikoa, unibertsitatearen barne sareko web gune batean aurkitzen da (http://www.ehu.es/hitzarmenak/list.php), zentzu horretan, posiblea izan da metatutako datuen tratamendua egitea. Ez da gauza bera gertatzen bestelako unibertsitate agenteekin eta, tamalez, ezin izan dugu alderatutako datuak edo EUS osoko datuak aurkeztu. Horrela, asmoa Euskal Unibertsitate Sistema osoko datuak lantzea bada ere, lana erredaktatzeko orduan oraindik ez ditugu datu guzitak eskura. Alabaina lortu ditugunak aurkeztea ebatzi dugu.

## 6.1. Sarrera

Dokumentu honetan EHUk bere sorreratik hona beste eragile batzuekin sinatu dituen hitzarmenen analisi kuantitatiboa egiten da. Horretarako ehu.eus webgunean agertzen den Hitzarmenen Erregistroan jasota dauden 4.036 dokumentuak hartu dira oinarritzat. Bertan zenbat aldagai adierazten dira: izenburua, dokumentu mota, data, iraupena, dokumentua sinatu duten eragileak, erakunde tramitatzailea, eta abar, dokumentuaren testu osoaz gain.

Analisi kuantitatibo honez gain, EHUko teknikariekin kontaktatu da, aldez aurreko analisien berri izan, irudi orokor bat jaso eta zenbait xehetasun hobeto ezagutzeko.

Lan hau ikerketa proiektu zabalago baten barruan egin da: *Unibertsitate Sistemak euskal gizartearen eraldaketari egindako ekarpena* izeneko proiektua alegia. Proiektu hau EHUko ikerketa talde batek burutu du,[24] Agirre Lehendakari Center eta Euskampus Fundazioa erakundeen babespean, eta Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate eta Ikerketako Sailburuordetzak finantzatua.

## 6.2. Aztertutako aldagaiak

### Hitzarmenak

Aipatu datu basean era ezberdinetako dokumentuak ageri dira. Zehatzago esateko, izen ezberdinekin izendatutako dokumentuak daude: hitzarmenak, itunak, atxikimenduak, aktak eta beste batzuk. Denak ordea ageri dira hitzarmen gisa erregistratuta EHUren Idazkaritza Orokorrean. Bestalde, bertako teknikarien arabera, izen ezberdinak izan arren denak dira, modu orokor batean esanda, 'hitzarmenak'. Horregatik guztiak hartu dira analisirako oinarri.

Edozein modutan % 4 baino ez dira hitzarmen ez den beste izendapen bat daramatenak. Horregatik aztertu beharreko unibertsoan mantentzea erabaki da.

### Eragileak

Era ezberdinetako eragileak dira EHUrekin hitzarmenak sinatu dutenak. Guztiak lau multzo handitan sailkatu dira: enpresak, erakunde publikoak, erakunde sozialak eta ikerketa eta formakuntzako erakundeak.

**Enpresak:** enpresak sailkatzeko Europako Batzordeko Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionala tipologia erabili da.

24 Honakoek osatu dute EHUko ikerketa taldea: Alba Madinabeitia Ezkurra, Ane Larrinaga Renteria, Jone Martínez-Palacios, Onintza Odriozola Irizar, eta Josu Amezaga Albizu. Halaber Mikel Saratxo Moro ikerlariak ere parte hartu du lanaren zenbait ataletan, eta bereziki hemen aurkezten den txosten honetan.

Definizioz, etekin ekonomikoa bilatzen duen erakundea da enpresa. Alabaina bistan da batzuetan etekin hori gabe ere edota etekin hori dibidenduetan banatzeko asmorik gabe aritzen direla enpresa ugari: ekimen sozialeko edota izaera juridiko merkantileko erakunde publikoak adibidez. Edozelan ere datu base honetan agertzen diren enpresa gehien gehienak lehenengo multzoan kokatu behar dira, bestelako batzuk agertzen direla kontuan hartu behar bada ere.

**Erakunde publikoak:** hemen kokatu dira Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazio Orokorrari lotutako erakundeak, Foru Aldundietako zein Udaletako zerbitzuak, Nafarroako Foru Administrazioari lotutakoak, Espainiako Administrazioari lotutakoak, zein bestelako erakunde publikoak.

**Erakunde sozialak:** irabazi asmorik gabeko eragileak sartu dira multzo honetan. Zehazki administrazio ezberdinen erregistro ofizialetan agertzen diren elkarte, fundazio, elkarte eta Gobernuz Kanpoko Erakundeak dira. Haien jarduera eremua definitzeko erregistroetan adierazitakoak hartu dira kontuan.

Enpresekin gertatzen denaren kontrako norabidean, gogoratu beharra dago irabazi asmorik gabeko hainbat erakunde enpresei lotutakoak direla: adibidez sektore ekonomikoetako elkargoak edota enpresen fundazioak. Hauek denak erakunde sozialen atalean mantendu dira, haien kopuru urriagatik datuen irakurketa desitxuratuko ez dutelakoan.

**Ikerketa eta formakuntza erakundeak:** espezifikoki bi jarduera honetara dedikatzen diren eragileak sartu ditugu. Multzorik handiena unibertsitateek osatzen dute (unibertsitateei erabat lotutako erakundeekin batera), baina bestelakoak ere hartu dira kontuan. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko erregistroan ageri diren eragileak ere multzo honetan kokatu dira.

Erakunde bat Ikerketa erakunde gisa eta bestelako erakunde gisa sailkatu daitezkeenean (adibidez ZTBESeko zenbait erakunde, aldi berean Ikerketa erakunde eta enpresa direlarik), ikerketa izaera lehenetsi da.

## Jatorria

Aztertutako eragileek egoitza soziala hartu da kontuan oro har. Egoitza Euskal Herrian dutenen kasuan, herrialde historikoa izan da erabilitako unitatea. Espainiako Estatuko gainerako lurraldeetan dutenen kasuan, erkidego autonomikoa. Hortik landa, herrialdea izan da unitatea. Honetarako ez da bereizi jarduera eremua oinarritzat hartutako unitatera mugatzen den edo ez. Egoitza soziala zehaztea zaila izan den kasu gutxi batzuetan soilik hartu da jarduera eremua unitate gisa.

## Proposamen eta tramitazio atala

Hitzarmena EHUko zein atalak proposatu duen eta zein ataletan tramitatu den adierazten du Erregistroak. Hala ere, bi faktorek zaildu egiten dute datu hauen interpretazioa. Alde batetik EHUko barne egitura aldakorra izan da sorreratik hona, eta atal zehatzak identifikatzea ezinezkoa da (ikerkuntza, antolakuntza akademikoa, nazioarteko harremanak, gerentzia e.a.), Errektoretza taldeek askotan atal ezberdinak bildu dituzte egitura bakar batean beste batzuetan banandu, eta abar.

EHUk hitzarmenak tramitatzeko erabili dituen irizpideak bestalde aldakorrak izan dira denboran zehar, bertako teknikarien arabera. Horrela garai batzuetan hitzarmenak Ikerkuntza atalak tramitatzeko joera nagusitu da (hitzarmenaren izaera bestelakoa izan arren), beste batzuetan beste atal batek, eta horrela.

Arrazoi hauek direla medio, ez da datu hau aztertu, informazio baliotsua galduz: izan ere, atal identifikagarriak eta irizpide egonkorrak izanez gero, hitzarmenen helburuei buruzko xehetasun aberasgarriak izango genituzke.

## Indarreko amaiera data

Hemen ere datu interesgarri bat egon liteke: hitzarmenak noiz onartu ziren eta indarrean noiz arte egon diren jakiteak, haien izaerari buruzko informazioa emateaz gain gaur egun haietatik indarrean zenbat dauden jakingo genuke.

Datu hau, ordea, ez da ageri erregistroen erdian. Hortaz alboratu egin da, dokumentu idatziak banan bana aztertzea eskatuko lukeelako.

### Hitzarmen kopurua eta erakunde kopurua

Aztertu diren 4.036 hitzarmenetatik gehienak (% 88) eragile bakarrarekin sinatu ditu EHUk. Gainerakoetan aldiz eragile bat baino gehiago agertzen dira, EHUren bazkide gisa: hauetako kasu gehientsuenetan bizpahiru eragile izaten dira. Kasu bakan batzuetan hamarnaka eragile ageri dira (adibidez unibertsitate ugarirekin batera sinatuak): kasu hauetan eragile bakartzat hartu ditugu, datuak ez desitxuratzeko.

## 6.3. Ikuspegi orokorra

EHUk kanpoko eragileekin sinatutako hitzarmenen bilakaerak unibertsitate honen gaztetasuna erakusten du: 1981ean hitzarmen bakarra sinatu zen (hala agertzen da erregistratuta bederen), eta 311 izan ziren 2017 urtean, 355 eragile ezberdin inplikaturik egon zirelarik.

1. Grafikoa: **EHUk sinatutako hitzarmenak, 1981-2017**[25]




Hitzarmena sinatu duten eragileen motari erreparatzen badiogu, 2017ko datuek aniztasun handia erakusten dute, lau motatako eragileak agertzen direlarik: enpresak, erakunde publikoak, etekin asmorik gabeko erakunde sozialak, eta ikerketa eta formakuntzari lotutako eragileak. Datuak 2. Grafikoan eta 1. Taulan ikus daitezke.

25 Iturria: Besterik adierazten ez bada, iturri guztiak EHU dira.

2. Grafikoa: **Hitzarmenak eragile motaren arabera, 2017**




1. Taula: **Hitzarmenak eragile sinatzaile motaren arabera, 2017**

| ERAGILE MOTA ETA ARLOAK | SINATZAILEAK |
|---|---|
| **Enpresak** | **124** |
| Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak | 2 |
| Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak | 18 |
| Finantza jarduerak eta aseguruetakoak | 7 |
| Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak | 50 |
| Osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak | 11 |
| Eraikuntza | 1 |
| Hezkuntza | 2 |
| Ostalaritza | 1 |
| Manufaktura industria | 27 |
| Informazioa eta komunikazioak | 3 |
| Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura | 2 |

| **Ikerketa eta Formakuntza Erakundeak** | **100** |
|---|---|
| ZTB Euskal Sareko erakundeak | 13 |
| Unibertsitateak | 87 |
| **Erakunde publikoak** | **52** |
| Nafarroako Gobernua | 1 |
| Eusko Jaurlaritzako erakundeak | 10 |
| Bestelako erakunde publikoak | 13 |
| Foru Aldundietako zerbitzuak | 14 |
| Euskal Udaletako zerbitzuak | 14 |
| **Erakunde sozialak** | **78** |
| Elkarteak | 31 |
| Elkargoak | 2 |
| Fundazioak | 38 |
| GKE | 7 |
| **Sailkatu gabeak** | **1** |
| Sailkatu gabeak | 1 |
| **ERAGILE SINATZAILEAK OROTARA** | **355** |

36 urtean zehar aldaketak izan dira EHUrekin hitzarmenak sinatu dituzten eragile motan. Izan ere EHUren lehen bi hamarkadetan erakunde publikoak ziren sinatzaile mota garrantzitsuena. Geroago, 2000ko hamarkadan zehar, ikerkuntza eta formakuntzari lotutako eragileek (unibertsitateak barne) eskuratu zuten lehen postu hori. Azken urteetan aldiz nabarmen hazi da enpresen kopurua sinatzaileen artean, 2017an talde hau handiena izanik. Era berean azken urte hauetan ere modu adierazgarrian hazi da, EHUko bazkideen artean, erakunde sozialen kopurua. Hori guztiori erakusten du 3. Grafikoak.

3. Grafikoa: **Sinatzaile kopuruaren bilakaera, motaren arabera, 1981-2017**



2017an hitzarmenik sinatu zuten eragileen jatorri geografikoari erreparatzen badiogu, Euskal Herrian kokatuta daudenak bi heren direla erakusten du 4. Grafikoak. Atzetik datoz Espainiatik haragoko herrialdeetakoak (bereziki Europa eta Amerika), eta azkenik Espainian kokatutakoak.

4. Grafikoa: **Sinatzaileak jatorri geografikoaren arabera, 2017**




Sinatzaileen jatorri geografikoa ere aldatu da denboran zehar. 5. Grafikoan ikus daitekeenez, Euskal Herrian (bereziki Euskal Autonomi Erkidegoan) kokatutako eragileekiko harremana sendotu egin da azken urteetan. Inguruko enpresa eta erakunde sozialekin sinatutako hitzarmen kopuruaren hazkundearen ondorio izan liteke, erakunde publikoen kopuru garrantzitsua ere mantendu delarik.

5. Grafikoa: **Sinatzaileen jatorri geografikoaren bilakaera, 1981-2017**



## 6.4. Enpresak

Jadanik esana dago enpresak direla gaur egun EHUrekin hitzarmenak sinatzen dituzten eragile talde handiena, azken urteetan izan den hazkundearen ondorioz.

Orotara 639 enpresak sinatu du hitzarmenik EHUrekin honen sorreratik hona. 6. Grafikoak erakusten du oso arlo ezberdinetakoak direla, manufakturen sektoreak zein jarduera profesional, zientifiko eta teknikoen sektoreak pisu handia dutelarik.

Talde honen banaketa xehetasun handiagoaz ikus daiteke 2. Taulan.

6. Grafikoa: **Sinatzaileak arloaren arabera, 1981-2017**



2. Taula: **Enpresa sinatzaileak, arloka 1981-2017**[26]

| **ERAGILE SINATZAILEAK** | **834** |
|---|---|
| **Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak** | **25** |
| Bulegoko administrazio jarduerak eta enpresentzako lagungarri diren beste jarduera batzuk | 6 |
| Bidaia-agentzien, bidaia-agentzia handizkarien, erreserba zerbitzuen jarduerak eta horiekin guztiekin uztartutako jarduerak | 1 |
| Alokairu jarduerak | 2 |
| Enpleguarekin uztartutako jarduerak | 13 |
| Zerbitzuak eraikinentzako eta lorezaintzako jarduerak | 3 |
| **Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak** | **41** |
| Liburutegi, agiritegi eta museoko jarduerak eta beste kultur jarduera batzuk | 11 |
| Sormen, arte eta ekitaldi jarduerak | 7 |
| Kirol, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak | 23 |
| **Finantza jarduerak eta aseguruetakoak** | **64** |
| Finantza zerbitzuen eta aseguruen jarduera lagungarriak | 1 |
| Aseguruak, berraseguruak eta pentsio funtsak, derrigorrezko Gizarte Segurantza salbu | 11 |
| Finantza zerbitzuak, aseguruak eta pentsio funtsak salbu | 52 |
| **Jarduerak higiezinekin** | **3** |
| Jarduerak higiezinekin | 3 |
| **Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak** | **237** |
| Egoitza nagusien jarduerak; enpresa kudeaketako aholkularitza jarduerak | 37 |
| Jarduera juridikoak eta kontabilitatekoak | 82 |
| Albaitaritzako jarduerak | 1 |
| Hezkuntza | 4 |
| Ikerkuntza eta garapena | 29 |
| Beste jarduera profesional, zientifiko eta tekniko batzuk | 10 |
| Publizitatea eta merkatu azterlanak | 7 |
| Arkitektura eta ingeniaritzako zerbitzu teknikoak; saiakerak eta azterketa teknikoak | 67 |
| **Osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak** | **57** |
| Ostaturik gabeko gizarte zerbitzuen jarduerak | 10 |
| Osasun jarduerak | 28 |
| Laguntza egoitza-establezimenduetan | 19 |
| **Nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza eta arrantza** | **3** |
| Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta horiekin zerikusia duten zerbitzuak | 2 |
| Arrantza eta akuikultura | 1 |
| **Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motozikleten konponketa** | **10** |
| Handizkako merkataritza eta merkataritzako bitartekariak, ibilgailu motordunen eta motozikletena salbu | 5 |
| Txikizkako merkataritza, ibilgailu motordunak eta motozikletak salbu | 5 |

26 Kasu honetan sinatzaileek kopurua (834) enpresen kopuruaren gainetik dago (639). Horren arrazoia, enpresa batzuek hitzarmen bat baino gehiago sinatu izana da.

| | |
|---|---|
| **Eraikuntza** | **13** |
| Eraikinen eraikuntza | 12 |
| Ingeniaritza zibila | 1 |
| **Hezkuntza** | **17** |
| Hezkuntza | 9 |
| Euskara eta euskal kultura | 8 |
| **Ostalaritza** | **8** |
| Ostatu zerbitzuak | 3 |
| Jaki eta edari zerbitzuak | 5 |
| **Manufaktura industria** | **238** |
| Osasun jarduerak | 9 |
| Edarien fabrikazioa | 41 |
| Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa | 15 |
| Material eta ekipo elektriko fabrikazioa | 2 |
| Altzarien fabrikazioa | 2 |
| Beste garraio material baten fabrikazioa | 15 |
| Metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa | 10 |
| Kautxu produktuen eta plastikoen fabrikazioa | 8 |
| Botiken fabrikazioa | 9 |
| Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa | 7 |
| Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria eta ekipoak salbu | 1 |
| Ibilgailu motordunen, atoien eta erdiatoien fabrikazioa | 19 |
| Elikagaien industria | 48 |
| Egurraren eta artelazkiaren industria, altzariak izan ezik; otargintza eta espartzugintza | 3 |
| Paperaren industria | 2 |
| Industria kimikoa | 26 |
| Ehunen industria | 3 |
| Metalurgia; burdinazko, altzairuzko eta burdin aleaziozko produktuen fabrikazioa | 12 |
| Manufakturako beste industria batzuk | 5 |
| Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioa | 1 |
| **Informazioa eta komunikazioak** | **78** |
| Zinemako, bideoko eta telebista saioetako jarduerak, soinu grabazioak eta musika edizioak | 14 |
| Argitalpena | 24 |
| Programazioa, aholkularitza eta informatikarekin uztarturiko beste jarduera batzuk | 27 |
| Informazio zerbitzuak | 1 |
| Telekomunikazioak | 12 |
| **Beste zerbitzu batzuk** | **2** |
| Beste zerbitzu pertsonal batzuk | 2 |

| | |
|---|---|
| **Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa** | **7** |
| Deskontaminazioko jarduerak eta hondakinak kudeatzeko beste zerbitzu batzuk | 1 |
| Ura hartu, araztu eta banatzea | 3 |
| Hondakinak bildu, tratatu eta deuseztatu; balorizazioa | 3 |
| **Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura** | **15** |
| Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura | 15 |
| **Garraioa eta biltegiratzea** | **16** |
| Biltegiratzea eta garraioarekin uztartutako jarduerak | 1 |
| Itsas garraioa eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoa | 1 |
| Lurreko eta hodi-sare bidezko garraioa | 14 |

EHUren historian hitzarmenik sinatu duten eragileen jatorriari begiratzen badiogu, nabarmena da Euskal Herrian (bereziki EAEn) finkatutako enpresen nagusitasuna, guztien ia hiru laurden hartrzen baitute, 7. Grafikoan ikus daitekeenez. Jarraian datoz Espainian, bereziki Madrilen, egoitza dutenak.

7. Grafikoa: **Enpresa sinatzaileak, jatorriaren arabera, 1981-2017**



## 6.5. Erakunde publikoak

Hasierako hamarkadetan zuten nagusitasuna geroago ikerketa eta formakuntza eragileek eta azken urteetan enpresek kendu badiete ere, erakunde publikoak beti izan dira EHUren lankide garrantzitsuak, hitzarmenen bidez. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari zein Foru Aldundi eta euskal Udalei lotutako erakunde eta zerbitzuak dira, baina bestelakorik ere bada, bereziki Espainia eta beste herrialde batzuetakoak. 8. Grafikoak erakusten du hori.

8. Grafikoa: **Erakunde publiko sinatzaileak, izaeraren arabera, 1981-2017**




## 6.6. Erakunde sozialak

Arestian esan da eragile sozialen presentzia handitu egin dela azken urteetan EHUrekiko hitzarmenen sinatzaileen artean, baldin eta erakunde sozialtzat irabazi asmorik gabeko erakundeak hartzen baditugu.

Erakunde hauek, beren izaerari erreparatuta, era ezberdinetakoak izan daitezke: elkarteak, fundazioak, elkargoak, eta Gobernuz Kanpoko Erakunde gisa ezagutuak ere. Azaldu dugunez, nahiz eta definizioz denak diren irabazi asmorik gabeko eragileak, batzuk nabarmenki daude lotuta jarduera enpresarialei.

Eragile hauek zein arlotan aritzen diren erakusten du 9. Grafikoak.

9. Grafikoa: **Erakunde sozial sinatzaileak jarduera eremuaren arabera, 1981-2017**



## 6.7. Ikerketa eta Formakuntza erakundeak

EHUrekin hitzarmenik sinatu duten eta ikerketa eta formakuntzari lotuta dauden erakundeen artean unibertsitateak nabarmentzen dira. Jarraian datoz Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Euskal Sareko eragileak (ZTBES), 3. Taulan ikus daitekeen legez.

3. Taula: **Ikerkuntza eta formakuntzari lotutako erakunde sinatzaileak, izaeraren arabera, 1981-2017**

| | |
|---|---|
| **Unibertsitateak** | **1.236** |
| Mondragon Unibertsitatea | 15 |
| Bestelako unibertsitateak | 1.118 |
| Deustuko Unibertsitatea | 28 |
| EHU | 75 |
| **ZTB Euskal sareko erakundeak** | **241** |
| BERC | 68 |
| CIC | 32 |
| Korporazio teknologikoak | 31 |
| Ikerketa biomedikoa | 39 |
| ZTBESeko bestelako erakundeak | 71 |
| **Bestelako Ikerketa Erakundeak** | **46** |
| **IKERKETA ETA FORMAKUNTZA ERAKUNDEAK OROTARA** | **1.523** |

Taula honetan 75 kasutan agertzen da EHU bere buruarekiko hitzarmen sinatzaile gisa. Honen arrazoia zera da: batzuetan unibertsitate barneko atal ezberdinen arteko hitzarmenak (adibidez Errektoreordetzen eta Ikerketa Taldeen artekoak) jasoak izan dira Hitzarmenen Erregistroan.

Euskal Unibertsitate Sistemako beste unibertsitateak ere (Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea) agertzen dira sinatzaileen artean. Gainerako unibertsitateen jatorria, 10. Grafikoan ikus daiteke.

10. Grafikoa: **Unibertsitate sinatzaileak, jatorri geografikoaren arabera, 1981-2017**




Grafiko honetan nabarmen geratzen da Espainiako, Europako (bereziki Frantziako) eta Amerikako (nagusiki Latinoamerikako) unibertsitateek hitzarmenen sinatzaileen artean duten pisua.

# Unibertsitate Sistemak euskal gizartearen eraldaketari egindako ekarpena

AGIRRE LEHENDAKARIA CENTER
for Social and Political Studies

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

euskampus
FUNDAZIOA